

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-04-07
ASTELEHENA
448. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Txertoen kontrako diskurtsoak kaltegarriak eta arriskutsuak dira"

Arantza Landaluze | Erizaina | 28

Gaixotasun mitokondrialen ikerketarako dirua, Bergaran | 5



Irain eta erasoen aurrean, joko garbia kirolean | 2



Bailarako musika eskolen erakustaldia Eskoriatzan | 12



Kantua Kalean... eta zirkuan ere bai!

Oñatiko 11 abesbatzak kalerik kale kantuan ibili ziren zapatuan; asko mozorrotuta, arratsalde zirkua egin zuten-eta gaztelekuan | 29

Gaztelekuan egindako zirku emanaldiaren une bat. | IMANOL SORIANO



Zapatuko agerraldia. | OIHANA ELORTZA

"Mendeku gosea" salatu dute agerraldi jendetsuan

Josu Uribetxeberria "bizitzaren azken egunera arte erasotu eta jazartuko dutela" ikusten dute haren lagun eta senideek. Zapatuan, herriko zein bailarako hainbat jende erakutsi zion babesa Uribetxeberriari, epaileak ezarritako etxetik ateratzeko debekua dela-eta. | 6

SINADURAK

	JOXEMARI MUXIKA 9
	9 JOKIN BEREZIARTUA
	AITOR OROBENKOA 14
	16 MAITE PLAZAOLA
	ELIAS ZUMALDE 18
	19 BEÑAT ZAMALLOA
	IMANOL GALLEGO 37
	40 XABIER ZUBIZARRETA

RES. Nº 148/10/L.G.

AURRERATU UDA GARAIARI

Ray-Ban | arnette | VOQUE | OAKLEY

eta askoz gehiago...

%30 deskontua
eguzkitako betaurreko guztietan
BILDUMA BERRIAK!

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR
ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

* Promozio hau indarrean egongo da apirilaren 1etik ekainaren 15era. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Joko garbiaren garrantzia azpimarratzen

- ▶ Azkenaldian ugaritu egin dira epaileen eta jokalarien kontrako erasoak
- ▶ Kirol taldeek eta erakundeek errespetua sustatzeko ekimenak abiarazi dituzte
- ▶ Jarrera ezegoki askoren atzean gurasoak daudela diote kirol arduradunek

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Azkenaldian zeresan handia eman dute gure artean gaztetxoek kirol partiduetan izan diren zenbait istiluk. Jokalarien eta entrenatzaileen jarrera itsusiak ikusle moduan izaten diren gurasoekin nahastu dira, eta ahazteko moduko gertakariak ekarri dituzte ondorio moduan. Epaileak izan ohi dira horrelakoetan ikusle zein jokalarien jomugan izaten direnak; baita etxetik kanpo jarduten duten futbolari zein entrenatzaileak ere.

Guztien lekuan egotea zer den ederto daki Jon Ander Errasti oñatiarrak. 19 urte besterik ez duen arren, Errastik futbola du pasio eta astean ordu asko pasatzen ditu futbol zelaietan. Aloña Mendiko entrenatzailea da, alebinetan, eta, horrez gain, epaile lanetan ere ibiltzen da Preferente Mailan.

Astebururo bi futbol partidutako protagonista izan ohi da, beraz, gazte oñatiarra. Tentsioa "partidu guztietan" egoten dela dio hark. "Mutikoak alebinetan hasten dira lehiatzen, eta esan beharra daukat normalean arazo gutxi sortzen dizkigutela", azaldu du. "Gurasoek, baina, garrasi asko egiten dute, eta hor hasten dira arazoak. Mutikoak urduri jartzen dira orduan, eta hanka sartzen dute", dio entrenatzaile-epaile oñatiarrak.

Zaleak dira, hain zuzen, partiduetan jokalaria gehien bero-

tzen dituztenak. Errastik dioenez, "ikusleek partidua berotzen dute, baita entrenatzaile batzuek ere, komeni zaienean".

Denek jokatu

Ikusleek jokariengan eragiten duten presio hori nabarmenagoa izaten da jokalaria txikiak direnean. "Beti dago bere semeak Realean jokatuko duela uste duen gurasoren bat, eta horiek izaten dira txarrenak", kexatu da Errasti. "Gurasoek garraisi egiten diete, ez bakarrik epaileari, baita beraien taldeko entrenatzaile eta jokalariei ere", dio.

Harrigarria badirudi ere, guraso asko euren seme-alaben taldeko jokalaria batzuei "oso txarrrak" direla esatera iristen dira, Jon Ander Errastik dioenez. Horrelako jarrerak ekiditeko, eta maila txikietan futbolariak kiro-

laz goza dezaten, jokalaria guztiak parte hartzeko politika daramate Aloña Mendiko talde txikiak. "Guk taldeko jokalaria guztiak erabiltzen ditugu partidu bakoitzean. Modu horretan, taldean sor daitezkeen gatazkak ekiditen ditugu eta umeak pozik ibiltzen dira taldean", dio Errastik.

Frustraziorik ez

Futboleant, baina, garrantzitsuen emaitzak dira. Aloña Mendiko alebinak pozik dira kirolaz gozatzen, baina, Gipuzkoako sailkapenean begiratuz gero, azken lekuan ageri direla ikusiko dugu. Badaude horrelako egoerak onartu ezin dituzten taldeak, eta hori da Realaren kasua, noski.

Bixen Calzon aretxabaletarra, Realeko Debagoiena-Goierri aldeko arduraduna izateaz aparte, talde txuri-urdineko alebinen entrenatzaile ere bada. Aloña Mendik ez bezala, Realak talentuak nahi ditu, errendimendua eskatzen die bere jokalariei. Horrek ez du esan nahi, baina, talde txuri-urdinaren errendimendua hori edonola lortu nahi duenik.

"Realaren helburua da bere jokalaria gazteek hezkuntza integrala jasotzea", dio Bixen Calzonek. Taldeak bere jokalarien jarraipena gertutik egiten du. "Klubeko arduradun batek jokalarien emaitzak jasotzen ditu ikastolan, eta bere gurasoekin maiztasunez hitz egiten du", dio. Taldeak helburu batzuk jartzen



Eskola kiroleko gazteak, elkarri eskua ematen futbol partidu baten ostean. | JULEN ARANBARRI

dizkio jokalariei, eta gero, helburu horiek bete dituen edo ez aztertzen du klubak.

Denera, 200 haur pasako dira aurten Realeko alebinetako taldeetatik, eta haietatik oso gutxi lortuko dute, azkenean, infantil mailan jokatzea. "Ez dugu frustraziorik sortu nahi", dio futbol

teknikari aretxabaletarrak. "Jokalariek daukaten dena emanez gero Zubietan, pertsona moduan daukaten helburuak bete egingo dituzte", uste du Calzonek.

Jarrera txarren alorrean ere zorrotz jarduten du talde txuri-urdinak. "Duela aste batzuk jokalaria batek modu desegokian ospatu zuen gol bat, eta bere entrenatzaileak zelaitik atera eta bere portaera aurpegiatu zion", azaldu du Bixen Calzonek.

Futboleant batez ere

Baina futbol profesionalak gizar-tearengan uzten duen itzal luzeak gazteen jarrera ezegokiak sortzen jarraitzen du. Hori dio, behintzat, gaztetxoek kirola arautzeko arduradun Foru Aldundiko Gazteria, Kirol eta Kultura Sailak.

Bertako arduradun batek adierazi duenez, "kirolean izaten diren jarrera txar gehienak, guztiak ez badira, futboleant izaten

ESANAK

"Ikusleen artean oharrak banatzen ditugu, errespetua balio moduan sustatzeko"

SUSANA SANTOR | LEK

ESANAK

"Gurasoek garrasi egiten diete; ez bakarrik epailei, baita euren taldeko jokalariei ere"

JON ANDER ERRASTI | EPAILEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

ADIERAZITAKO SOMAT
baxera-detergenteetan
NAHI DUZUN BEZALA KONBINATU
3 eraman eta 2 ordaindu

3 eraman eta 2 ordaindu

OMINO BIANCO
Detergente likidoa,
aldaera guztiak

NAHI DUZUN BEZALA KONBINATU
3 eraman eta 2 ordaindu

15 PUNTO EXTRAK

1 erositako 8,95 €

5,97 € Ale bakoitza:

Eskaintza baliagarriaK 2014ko apirilaren 9ra arte



Kirolean hezi, disfrutatzen

Leintz Eskola Kirola proiektuak Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Aramaioko 1.139 ikasle hartzen ditu. Adinka banatuta, kiroltasuna eta errespetua sustatu nahi ditu; baita adimen emozionala eta partaidetza ere. Kirola gozamenarekin lotzea da helburuetako bat.

Bailarako haur askori kirola ezagutzeko lehen aukera ematen dio proiektu horrek. Txikienekin kirolak lantzen dituzte eta nagusienei, berriz, kirol federatuan lehiatzen hasteko aukera eskaintzen die.

tzen da". Kirolak transmititzen dituen balioak azpimarratu nahi ditu Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen zikloko ikasleak batzen dituen proiektu horrek. Gazte txoek askotariko kirolak egiteko aukera daukate LEKen, eta guztiei kirolaz gozatzeko mezua ematen zaie astean zehar egiten dituzten saioetan. Hori bakarrik ez, "jarrera egokiak egunerokotasunean lantzen" dituztela dio Santorrek, eta "kiroltasuna eta partaidetza" azpimarratzen dituztela dio. "Taldeen partiduetan izaten duten jarrera ere baloratzen dugu, eta portaera horren arabera puntuak banatzen dira gero", dio Santorrek. Gurasoentzat oharra jartzen dituzte harmailetan, elkarren artean errespetua sustatzeko asmoarekin.

Norgehiagoka guztien amaieran bi taldeetako jokalariek eskua elkarri ematen diote, gainera. LEKeko arduradunak dioenez, "oso giro ona izaten da asteburuetako partiduetan, eta jokalaria zein gurasoek errespetuz jokatzen dute epaileekin".

Eskola kiroleko partidu horietan ez dago lehiatzeko asmorik, eta helburua, irabaztetik urruti, gozatzea da. Horrek salbuespen izaten jarraitzen du, baina. Errespetu eta kiroltasunaren aldekoak epe luzera begira egin diren apustuak dira; eta, emaitzak jaso arte, zeresana ematen jarraituko dute, zoritxarrez, kirolarekin lotutako bortxakeria kasuek.

dira". Denboraldi honetan, epaileen kontrako bortxakeria kasuak ugaritu egin dira, Aldunditik salatu dutenez. Gertaera horiek kasu isolatu izatetik urrun dardela diote; eta portaera erasokorrak gizaratean oso errotuta dardela uste dute, gainera.

Arlo horretan, gaztetxoek kirola arautuko lukeen euskal legearen beharra aldarrikatzen dute Foru Aldunditik. Bizkaian, zale, entrenatzaile eta jokalarien portaera desegokiak zigortzeko txartel beltza ezarri berri dute. Gipuzkoan ez da horrelakorik, oraingoan, eta Diputaziotik gazteen kirola arautuko lukeen lege bat ateratzeko eskaera egin diote Jaurilaritzari.

Kirolaz ikasten

Erakunde publikoak arazoari irtenbide bat aurkitzen saiatzen diren bitartean, haurrak kirol balioetan hezten dituzten ereduak

indarra hartu dute. Hori da, hain zuzen, Leintz Eskola Kirola proiektuaren kasua.

Leintz arroko haurrak batzen dituen proiektu horretako koordinatzailea Susana Santor da. Hark dioenez, "kirol federatuan ez bezala, eskola kirolean lehiakortasuna bigarren mailan gera-

ESANAK

"Daukaten dena emanda, pertsona moduan daukaten helburuak beteko dituzte"

BIXEN CALZON | REALA

ERIK BADILLO | ESKUA PROIEKTUAREN ARDURADUNA

"Kontzientziario lana egiten gabiltza klubean"

Denboraldi batzuetatik hona, kirol balioak sustatzen dabiltza UDAko talde txikietan. Eskua proiektuak (Errespetua Sustatzeko Kirola Ulertuz Aretxabaletan) emaitzak eman dituela uste du bere bultzatzaile Erik Badillo aretxabale-tarrak. Jokalariez gain, gurasoengan ere eragin nahi dute orain UDAko arduradunek.

Zer da Eskua proiektua?

Igor Arenatza eta biok duela hiru lau urte hasi ginen Eskua proiektuarekin. Gizaratean hutsune bat ikusten genuen jarrera eta balio aldetik, eta umek futbolera etortzen zirenean erakusten zuten ilusioa hutsune horiek betetzeko erabili nahi izan genuen. Futbol zelaian lantzen duten fisiko eta teknikaz gain, adimen emozionala eta bestelako balioak garatzeko asmoa genuen. Hasieran, behar bada, esparru zabalegia hartu nahi izan genuen, gurasoekin, seniorekin eta haurrekin lan egin nahi genuelako, eta hori gehiegi da,

"Gurasoen aldetik ere jarrera egokiagoak ikusten dira"

denborak erakutsi digunez. Horregatik, gazteenekin lan egin dugu, gaurko gazteak biharko nagusiak izango direlako. Epe luzerako lanek egiten ari gara haiekin.

Ze balio azpimarratu nahi dituzte Eskua proiektuan?

Batez ere, errespetuan eragin nahi dugu. Errespetu barruan beste alderdi asko sartzen dira: errespetua taldearekiko, inguruarekiko, hizkuntzarekiko... Dena. Orain, berriz, adimen emozionalaren inguruan lan egiten ari gara. Sentimenduen kudeaketa txarra hobetu nahi dugu, autozagutza, autokontrola... Esparru hauetan lanketa egokia egiten badugu, partiduetan gazteek izan dezaketen jarrera ezegokietan eragin dezakegula uste dugu. Gure barruan dauzkagun balioek gure sinesmena zehazten dute eta sinesmenek, berriz, egiten ditugun ekintzak.

Jar gaitzen futbol partidu baten. Zein jarrera txar izaten dira, normalean?

Betikoak. Futboleko epailea da ahulena, eta guztiak harekin sar-



MIKEL ARREGI

tzen dira. Norberak oso gutxitan onartzen du berak edo bere taldekideek egindako akatsen bat, eta kritikak epailearengan jartzen dira, normalean.

Gurasoek ere arazoak sortu ohi dituzte...

Bai, zoritxarrez hala izaten da. UDAn oraintxe hasi behar dugu gai hau lantzen, eta, horretarako, Ibai Zangitu eta biok lanean hasi berri gara. Bideo batzuk egin nahi ditugu, jarrera egokiaren dekalogo bat azaltzeko.

Gurasoek jakin behar dute umek futbolera ondo pasatzera datoze-lan. Izan ere, 3.000 haurretik bakar-

irteten da profesional, hori da gure inguruan daukagun batez bestekoa. Kontua da guraso askok lehiakortasunean hezten dituztela seme-alabak, eta gero arazoak hortik datoze-lan. Futbola jokoa dela ikusi behar dute gurasoek, eta hori, zoritxarrez, ez da beti gertatzen.

Eskua proiektua duela hiruzpau urte jarri zenuten martxan. Igarri duzue hobekuntzarik denbora honetan?

Epe luzerako proiektua da Eskua. UDAk betidanik talde *marrulleroa* den ospea izan du, eta hori urte gutxitan aldatzea lortu dugula uste dut. Azken denboraldietan jaso dugun txartel kopuruak hori dio. Eskua martxan jarri genuenetik, UDAn askoz txartel gutxiago ateratu dizkiote, eta hori oso datu esanguratsua da guretzako. Gurasoen aldetik ere jarrera egokiagoak ikusten dira proiektua martxan denetik. Poliki-poliki kontzientziario lanean gabiltzala uste dut.

MGE P

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 9 • 18:00

Maiatzak 24 • 11:00



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgep@mondragon.edu
 943 73 97 65



Aurreztu.com

Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

EKOBAI

Ezabatu birusak eta garbitu zure ordenagailua!


15€

LEHEN:

30€

DESKONTUA:

%50



IGARO ESTETIKA

**Brontzea zaitez 5 minutuan!
%100 teknika naturalekin!**

28€

LEHEN:

38€

DESKONTUA:

%27



GORKA ILE APAINDEGIA

Mutilentzat. Ilea moztu merke-merke.

16€

LEHEN:

23€

DESKONTUA:

% 31



TODO-DEPORTE.COM

LZKN Beñat betaurrekoak, aisialdirako aproposak!

40€

LEHEN:

90€

DESKONTUA:

% 56



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?

Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

Jende ugari gaitz mitokondrialen ikerketa bultzatzeko jaialdian

Dantza erakustaldiak, azoka solidarioa eta zozketak izan ziren Bergaran

MIKEL ARREGI | BERGARA

Guztiok Jon, Iker eta Yararekin jaialdia egin zuten zapatuan Bergarako frontoian. Gaixotasun mitokondrialak ikertzen jarraitzeko dirua biltzea zuen ekimen honek helburu, eta Ana Belen Martinezek, Iker Galan haurraren amak, esan zuenez, asmoak bete egin ziren. "Jaialdiaren oso balorazio positiboa egiten dugu, jende ugari etorri da frontoira, eta etorri ezin izan duten askok ere sarrerak erosi dituzte elkartasun seinale moduan", esan zuen ama bergararrak.

Iker, semea, ospitalean ingratsuta du Ana Belen Martinezek duela hiru astetatik, eta, horregatik, umeak ezin izan zuten bere aldeko jaialdian egon. Han izan ziren, ordea, Jon eta Yara haur bizkaitarrak. Hirurek gaixotasun mitokondrial sendaezinak dituzte, eta bizi itxaropen motza ematen diete medikuek.

Duela urte batzura arte, gaitz hauek ikertzeko diru laguntzak ematen zituen gobernuak, baina, murrizketekin, kendu egin dituzte ikerketarako aurrekontuak. Horregatik, zientzialarientzat dirua biltzea da orain gaitz mito-



Jon eta Yara umeak Bergarako frontoian izan ziren. | IMANOL SORIANO

kondrialak dituzten haurren familien asmo nagusia. Horretarako, Bergarako dendek emandako produktu-saskien zozketa egin zuten zapatuan, eta artisau azoka ere jarri zuten. Honez gain, sarrerako dirua ere gaixotasun hauen ikerketara bideratuko dute antolatzaileek.

Erakundeek kritika

Ikerketarako diru laguntzen murrizketengatik erakunde publikoen kontrako kritika egin zuen Ana Belen Martinezek. Bere uste-

tan "erakundeek kontzientziazio maila altuagoa erakutsi beharko lukete horrelako gaixotasunak dituzten umeen aurrean". Gaitz mitokondrialak ikustarazteko beharrez ere mintzatu zen Martinez. Gaixotasun hauek "edozein pertsonatan eragin dezaketela" gogorarazi zuen berak, eta hori askotan "ahaztu egiten dugula" uste du gainera.

Jasotako babesagatik pozik, antolakuntzan parte hartu zuten guztiei eskerrak eman zizkien jaialdia amaitutakoan.

Elena Laka izango da aurrerantzean Euskaltzaleen Topaguneko buru

M.A | GASTEIZ

Euskaltzaleen Topaguneko Elena Laka abokatu eibartarra aukeratu du presidente. Larunbatean Gasteizko Montehermoso jauregian egin zuen batzar nagusian egin zuen aldaketa Topaguneko. Modu honetan, Lakak, azken bi urteetan presidente jardun duen Mikel Irizarren lekukoa hartu du.

Topaguneko zuzendaritzako kide duela bost urtetatik, Eibar... eta Kito! euskara elkarreko kide da Elena Laka. Presidente berriak azpimarratu zuen batzar nagusian izan zen kontsentsu maila altua: "Puntu guztiak aho batez onartu izanak mugimendua kohesionatuta dagoela erakusten du", esan

zuen. Presidenteak gaineratu zuen Euskaltzaleen Topaguneko erdal komunitatera hurbiltzen jarraituko duela bere agintaldian.

Aldaketak zuzendaritzan

Elena Lakarena ez zen izan Topaguneko zuzendaritzako kide duela bost urtetatik, Eibar... eta Kito! euskara elkarreko kide da Elena Laka. Presidente berriak azpimarratu zuen batzar nagusian izan zen kontsentsu maila altua: "Puntu guztiak aho batez onartu izanak mugimendua kohesionatuta dagoela erakusten du", esan

Arpela-Etxebarriko euskara elkarteak ere Topaguneko kide gisa onartu zuten. Egun, Euskal Herri osoko 93 euskara elkarte osatzen dute Euskaltzaleen Topagunea.



Elena Lakak Mikel Irizarren lekukoa hartu du. | TOPAGUNEA

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84



Arrasateko Herriko Plazan egin zuten prentsaurrekoa zapatuan. | O.E.

"Mendeku gosea" ikusten dute Josu Uribetxeberriaren senide eta lagunek

Auzitegi Nazionalaren erabakia bertan behera uzteko eskatu dute

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Auzitegi Nazionalak Josu Uribetxeberriarendako eman duen agindua "mendeku gosea" dela uste dute bere senide eta lagunek. Uste dute Uribetxeberriarentzat etxean bete beharreko espetxeratzea agindu izanak "helburu politiko eta mediatikoei" erantzuten diela, "mendekuaren arrazoiari". Gainera, erabaki hori "ez dago zuzenbidean egoki oinarrituta, bere egoera medikua ez delako onera aldatu, txarrera baizik", senide eta lagunen esanetan, eta, ondorioz, "Josuren kontra hartutako erabakia bertan behera geratzea" eskatu dute.

Arrasateko herriko plazan zapatu eguerdian egindako prentsaurreko jendetsuan egin zituzten adierazpen horiek Uribetxeberriaren lagun eta senideek.

Bailarakoak

Arrasatekoak ez ezik, bailarako beste herri batzuetako lagunak ere bildu ziren zapatuko prentsa agerraldi horretan, *Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea. Josu askatu* lelopean.

Joseba Garitaonaindiak hitz egin zuen denen izenean, Josuren anaia Jabi Uribetxeberria, Ino Galparsoro Arrasateko alkate ohia, egungo alkate Iñaxio Azkarragaurizar eta Amaia Larrañaga alkateordea ondoan zituela.

Uribetxeberriaren egungo osasun egoera aipatuz hasi zuten prentsaurrekoa: "Oso momentu eskasean aurkitzen da; beraz, bere askatasuna ahalbidetu zuen koadro medikua larriagotu egin da". Auzitegi Nazionalak hartutako erabaki horrekin, arrasatearra "bizitzaren azken egunera

arte erasotu eta jazartuko dutela" ikusten dute haren lagun eta senideek. Adierazi zuten, abokatuaren esanetan epaiketa egin eta zigorra ezarrita ere horrek ez lukeela eraginik izango bete beharreko urteen barruan, 30 urteko gehienezko zigorra jarrita duelako lehendik ere. Auzia preskribatuta dagoela ere adierazi zuten. Horrela, giza eskubideen kontrako erabakia dela uste dute, eta bertan behera uzteko eskatu. Bukatzeko, giza eskubideen alde egingo dituzten mobilizazioetan parte hartzeko egin zieten dei herritarrei.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Agerraldiak deitu ditu kontseiluak, estatuen esku-hartzea salatzen

IRATI GOITIA | ARRASATE

Kontseiluak salatu du Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Carlos Urkijok "euskararen normalizazioa geldiarazteko abiatutako erasoaldia". Horri aurre egiteko, elkarretaratzeak deitu ditu.

"Estatu espainiarreko ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta beste 46 udalen aurka egin du azken hilabeteotan, hizkuntza-politikari lotutako hainbat arlotan. Lehenik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurka egin zuen, 2009an hartutako erabakia (kontratazioetan hizkuntza irizpideak jartzea), betetzen hasi zelako. Ondoren, *Udaletik* programaren baitan, udalen aurka egin zuen. Hain-

bat udali, tartean Eskoriatza-koari, indarrean dituzten euskara planak bidaltzeko eskatu die. Azkenik, hizkuntza-irizpideekin lotutako edozein erabaki jakinarazteko agindua eman die hainbat udalei", adierazi du Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok. Bestalde, gaineratu zuen: "Estatu frantsesak ikastolen aurka egin du, 1850eko Falloux legea baliatuta".

Hala, herritarrei dei egin diete, etzi, euskararen normalizazioa helburu duten neurriak babesteko eta Estatuen esku-hartzea salatzen. Agerraldiak egingo dituzte Bergaran, 18:30ean; Arrasate, 19:30ean; eta Oñatin, 19:00etan, herriko plazetan.



Kontseiluko kideek Tolosan egin zuten agerraldia. | KONTSEILUA

Europako hauteskundeetarako zerrendak argitaratuko dira gaur

I.G. | ARRASATE

Maiatzaren 25ean egingo dira Europar Parlamenturako hauteskundeak.

Hainbat data

Bada, gaurtik apirilaren 14ra bitarte egingo da zerrendak kontsultatzeko aukera.

Bestalde, hauteskunde egunean mahaian egoteko zozketari dagokionez, legeak zehazten du: hauteskunde deialdia estatuko buletin ofizialean publikatzen denetik, 25-30. egunera egin behar dela. Apirilaren 14an egin zen deialdi hori. Beraz, apirilaren 26tik 30era bitarte egin behar da zozketak gure herrietako udaletan. Behin hori eginda, jakinarazpenak egingo zaizkie herritarrei. Horiek maiatzaren 25ean mahaian ez egoteko arrazoiaren bat izanez gero, alegazioak egiteko aukera izango dute. Horretarako, notifikazioa jasotzen dutenetik hiru eguneko epea izango dute.

Bestalde, joan zen egubakoitzean eratu zen Bergaran Hautes-batzordea. Hauteskunde prozesua zonaldeka arautzen duen erakundea da hori. Hiru epaile izaten dira buru, eta udaletako idazkariak delegatuak.

Alderdi politikoei apirilaren 16tik 21era bitarte aurkeztu beharko dituzte zerrendak eta hautagaiak hautes-batzordean. Behin betiko hautagaiak apirilaren 29an publikatuko dira buletinean. Kampania maiatzaren 9tik 23ra izango da.

Bisita gidatuak Ausolanera bailarako ikastetxeetatik, jardunaldi gastronomikoen barruan

Debagoieneko XVI. Jardunaldi Gastronomikoen baitan, bisita gidatuak egingo dituzte Ausolan enpresara. Zehazki, bailarako ikastetxeetatik egingo dituzte bisita horiek. Lehena gaur, apirilak 7, egingo dute Arizmendi ikastolako ikasleek. Ausolaneko sukalde zentrala ezagutuko dute eta funtzionamenduari inguruko azalpenak ere jasoko dituzte. 10:45ean egingo diete ikasleei harrera enpresan, eta sukaldea 12:00etan bisitatu dute.

Osasun arloko erreformak salatzen agerraldia

LAB sindikatuak deituta elkarretaratzea egin zuten egubakoitzean, Arrasaten, osasun arloko lan erreformak salatzen. Erreformek "eredu pribatua eta ekonomista" dakartela adierazi zuten. Baita mutualitateei kontrolrik gabeko erabateko boterea ematen zaiela ere. Eurek eredu publiko eta unibertsala aldarrikatu zuten.



MIREN MUJICA

Laster egingo dituzte Fagor Etxetresnen gaineko eskaintza zehatzak

Likidazio Plana jasotzekoa da epailea egunotan, eta horren ondoren, proposamenak egin ahal izango dira

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Fagor Etxetresnen lantegien eta horietan sor daitezkeen lanpostuen etorkizuna ez da Cevital talde aljeriarraren eskaintza hasi eta bukatzen; Fagor Etxetresnek baieztatu dutenez, Cevitale gain "beste batzuk ere badaude interesatuta" eta gaur egun "intenzioak eta interesa" dena laster hasiko da zehatzten.

Ezinbestean zehaztu beharko dituzte alderdi interesatu guztiek euren asmoak, Fagor Etxetresnen prozesuko administrazio konkurtzalak likidazio plana aurkezten dionean epaileari. Hori "egunotan" gertatuko da, Fagor Etxetresnen esanetan; hala, martxoaren 21ean agindu zen Edesa, Proiek eta Grumalen likidazio fasea hastea.

Behin likidazio plana jasota, epaileak -kasu honetan, Donostiako 1. Merkataritza-Auzitegiko Pedro Jose Malagonek- 15 egun ditu plana onartzen duen edo ez esateko. Onartzen bada, Erakusketak Publiko fasea irekitzen da. "Hor, behin betiko eskaintzak aurkez daitezke", diote Fagor Etxetresnek. Beraz, orain arte gehiago edo gutxiago entzun diren asmo eta intenzioak zehatz-mehatz agertu beharko dira, eta jakin ahal izango da zeintzuk diren Fagorren aktiboetan interesa duten aldeak eta ze eskaintzen duten.

Ezagunena, baina ez bakarria, Cevital da. Komunikabideetan zabaldu da Kataluniako CNA taldea (Cata izenarekin operatzen duena) interesatua dagoela Garagartzako eta Eskoriatzako lantegietan, eta BHI inbertsio-taldeak Geyser Gastech-en jarduerara jo duela begiz, baina Etxetresnek ez dute hori baieztatu ez ezeztatu.

Malagonen epaiaren eragina

Oraingoz, bi epai daude zintzilik; bata Donostian, Malagon epaileak eman beharrekoa, Cevitalek erosi nahi dituen Fagor Etxetresnen Brandt, De Dietrich, Vedette, Sauter eta Easycook intsignien gaineko balioaz edo gutxieneko prezioaz. Cevitalek 25 milioi euro eskaini zituen horientatik, baina, Espainiako Abokatutzak horiek gehiago balio zutela esan eta gero, Malagon epaileak 35 milioi salneurria finkatu zuen. Horren aurka errepizio-errekurtsoa ipini zuen Cevitalek, eta horren gainean erabaki behar du Malagonek.

Epai hori oraingo astean edo hurrengoan emango duela uste dute Fagor Etxetresnek, eta horren zain dago Nanterreko (Frantzia) Merkataritza-Epaitegia. Balio



Fagor Etxetresnen Garagartzako lantegia. | IMANOL SORIANO

horri eustea erabakitzen badu Malagonek, eta Cevitalek ez badu berau ordaindu nahi, ia seguruenik Cevitalen eskaintza guztia bertan behera geratuko da. Apirilaren 11n da Nanterreko epaitegia Fagor Brandt-en gaineko

eskaintza aztertzekoa eta Cevitali ematekoa edo likidazioa agintzekoa.

Mastercookez, Poloniako filialaz, ere Donostiako epaitegia da kompetentea eta berak erabakiko du zer gertatuko den.

Garitanorekin batzartu da Ordaindu

Ordaindu elkarteak Martin Garitano diputatu nagusiarekin batzartu zen eguenean, eta hiru gauza planteatu zizkion: batetik, Fagorren hartzekodun diren eta langabezia dauzen bazkideen egoera, ezin dutelako Diru-sarreraren Berme Errenta (RGI) kobratu; zergatan ondasuna handitu izanagatik ordaindu dituzten kopuru estrak bueltan jasotzeko eskaera; eta Foru Aldundiak Mondragon Korporazioarekiko negoziazioaren aldeko jarrera har dezan eskatzea, "publikoki eta pribatuan", kooperatibista hartzekodunei haiek eskatzen dituzten diru-kopuruak bueltan eman diezazkieten: kapital soziala, mailegu merkantilak eta borondatezko ekarpenak.

Laboral Kutxaren batzar orokorrean ere izan ziren

Ekintza gehiago ere egin ditu Ordainduk: zapatuan, Laboral Kutxaren batzar orokorraren aurrean kale-bilkura egin zuten. Hau dio Ordainduk: "90ko hamarkadatik, kooperatiben banketxea izateari utzi zion Laboral Kutxak (...). Kooperatibista aktibo guztiok banku horretatik kobratu behar dugu eta kontuak, kartillak... ditugu (...). Laboral Kutxa izan zen Fagorri laguntzeari uko egin zion eta jausten utzi zuen lehenengo bankua (...). Laboral Kutxak, aurten emaitza bikainak izan dituenak, Txomin Gartzia du presidente, eta Mondragoneko gestorako kidea da. Gestora horrek ez du gu hartzea nahi eta kooperatibista hartzekodunendako irtenbiderik ez du adostu nahi".

Langabezia datuak zertxobait txarrera egin du

Otsailean baino 17 langabe gehiagorekin bukatu da martxo Debagoiengan

L.K. | ARRASATE

Langabezia tasak berdintsu jarraitzen du Debagoiengan martxo bukaeran: %12,78, otsailean %12,72. Hain zuzen, beste 17 lagunek eman zuten izena Lanbideren bulegoetan enplegu-eskatzaille gisa, eta hilabetea 3.808 enplegu-eskatzailerekin bukatu zen.

Batez ere Arrasaten handitu zen langabezia martxoan: 23 langabe gehiago zeuden Lanbideren bulegoetan izena emanda (%15,86tik %16,11ra).

Herriz herri, hauek dira datuak: Antzuola: 102 langabe (-3), %9,35 (-0,27); Aretxabaleta: 367 langabe, %10,85 (otsaileko datu berdina); Arrasate: 1.669 (+23), %16,11 (+0,25); Bergara: 850 (-5), %12,12 (-0,07); Elgeta: 48 (+2), %8,86 (+0,37); Eskoriaza: 269 (+5), %13,21 (+0,25); Leintz Gatzaga: 10 (+2), %7,41 (+1,48); eta Oñati: 493 (-7), %9,39 (-0,14).

Euskadin ere txarragoa izan da martxoko langabezia datua: 2.112 langabe gehiago, otsailean baino 1,20 puntu gehiago. Martxo bukaeran, 178.148 pertsona zeuden lan-eskatzaille gisa izena emanda, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak aditza eman duenez.

Espainian, 2006tik onena

Espainiari dagokionez, kontrako joera izan dute datuek, eta otsailean baino 16.620 langabe gutxiagorekin bukatu zen hilabetea, 2006. urtea ezker martxoan izan den beherakadarik handiena. Gaur egun, 4.795.866 langabe daude. Zortzi hilabetean jarraian egin du behera langabezia, 1999. urtetik gertatzen ez zena.

Normalean, martxoan hobera egiten du langabezia, baina krisialdiko urte gogorrenetan kontrakoa izan zen, bereziki 2009an, 124.000 langabe gehiagorekin.

Merkatuan eskaintza bateratua egingo dute aurrerantzean Eroski eta Barcelo bidaia-agentziek

Eroski Bidaiak eta Barcelo Bidaiak enpresek aliantza estrategikoa sinatu dute. Enpresa bien maila indartzeko helburuarekin, merkatuan eskaintza bateratua egingo dute, eta horrela, 871 bidaia-agentzia izango dituzte Espainian zehar. Enpresa biek gaur egungo sare komertzialak mantenduko dituzte eta orain arteko entseinekin lanean jarraituko dute; bi enpresen arteko kapital gurutzatzerik ez dute aurreikusten. Eroski Bidaiek 191 bulegoz osaturiko sare komertziala izaten jarraituko dute.



VKCOMUNICACION

MUren ekintzailatza sarea Indian

Mondragon Unibertsitateak 10.000 ekintzaille prestatuko ditu Indian. Helburua da horiek 5 milioi lanpostu eta 20 milioi pertsonak bizi ahal izateko baliabideak sortzea. Hori aurrera eramateko euskal-indiar sare bat sortuko da. Horretarako hitzarmena sinatu zuten joan den astean Josu Zabala, MUko errektoreak, eta Parag Shah enpresaburu indiarrek.

Begoña Gartzia | MondragonLinguako eta Langune aurre-klusterreko kidea

"Enpresa askorendako biziraupen kontua da langileek ingelesez jakitea"

- ▶ MondragonLinguako Kontseilu Errektoreko eta Languneko presidenteordea da Gartzia
- ▶ Langunek, Euskal Herriko Hizkuntz Industrien Elkarteak, Plan Estrategikoa egin berri du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bilboko MondragonLinguaren zentroko zuzendaria, Kontseilu Errektoreko kidea eta, 2012ko martxoan ezker, Langune aurre-klusterreko presidenteordea eta zuzendaritza batzordeko kidea eta, bestalde, Nazioartekatze Batzordeko arduraduna da Begoña Gartzia Muniozguren bilbotarra.

Zenbat ikasle ditu MondragonLinguak oraingo ikasturtean?

2013an gure ikasle kopuru errekorra lortu genuen: 9.869.

Zenbat enpresa dira zuen bezero? Batzuk aipa diezazkigukezu?

350 enpresa baino gehiago. Gure Itzulpen eta Interpretazio dibisioko bezero nagusiak hauek dira: Europako Parlamentua, IBM eta Nazio Batuak; formazioan, Orona, Euskaltel, SPRI, Batz, Mondragon Assembly, Tecnalia eta Mondragon Eskola Politeknikoa. Gainera, irakaskuntzako patronal nagusietako irakasleei ere ingelesezko formazioa ematen diegu: Kristau Eskola, Eusko Ikastola Batza eta zentro diozesiarrak, eta Lanbide Heziketako zentroetakoak.

Zein da zuen ikaslearen profila?

Arrasateko eta Oñatiko zentroetan adin guztietako ikasleak ditugu, umeetatik helduetara; eta hiriburuetan, helduendako formazioan espezializatuta gauden. Salbuespena irakaskuntza zentroetan eskola-orduetatik kanpo ematen ditugun eskolak dira, Lehen Hezikuntzatik Batxilergora.

Ingelesa da oraindik atzerriko hizkuntza eskatuena? Eta inguruko gazteen ingelesezko kompetentzia nola baloratzen duzu?

Bai, ingelesa da hizkuntza eskatuena. Kompetentziari dagokionez, azken urteotan asko hobetu da, batez ere ahozko komunikazioan –betidanik defizit handiagoa izan da hor–, baina oraindik asko geratzen da egiteko.

Ze ingeles azterketa dira eskatuenak?

Hizkuntza Eskola Ofizialekoak eta Cambridge Unibertsitatearenak, eta azken horietatik, First Certificate.

Txinera, alemana... ikasteko boom bat ere egon zen orain dela ez urte asko. Zertan da gaur egun?

Bakarrrik enpresetan erakusten dugu txinera eta, azken urteotan zerbait hazi den arren, beste hizkuntza batzuekin konparatuta, gutxi batzuek formazioa da. Alemana ikasteko eskaera asko



Begoña Gartzia, MondragonLinguako presidenteordea. | MONDRAGONLINGUA

hazi zen norbanakoen aldetik 2011/12 ikasturtean, eta orain egonkor dago.

Bat datoz norbanakoen eta enpresen interesak?

Ikasleen interesak adinaren arabera aldatzen dira; gazteek titulua atera nahi dute, eta helduek, berriz, ardura handiagoa dute ahozko komunikazioa hobetzeko.

Enpresei dagokionez, lehen askok eskaintzen zuten ingelesa langileendako "ondasun sozial" gisa; gaur egun, krisiarengatik eta atzerrian merkatu berriak bilatzeko premiarengatik, langileek ingelesez jakitea biziraupen kontua bilakatu da enpresa askorendako.

Interes horiek aldatu dira urteekin?

Bistan da, gero eta gehiago, nor-

berak dakiena akreditatuko duen titulazioren bat lortzeko beharra dagoela; gaur egun, unibertsitate askok ingeles maila jakin bat eskatzen dute bertan ikasteko edo gradu titulua ateratzeko.

Nola aldatu dute zuen lan egiteko modua erreminta teknologiko berriek?

Teknologia berriak gakoa dira gure irakaskuntza metodoan, eskola presentzialak ikasketak softwarearekin bateratzen ditugulako; denbora ondasun preziatuena denean, teknologia berriek gure lan eta familia-konpromisoei eusteko eta, era berean, beste hizkuntza batzuk ikasteko aukera ematen dute. Horiek biak egitea zailagoa izaten da metodo tradizionalekin.

Zeintzuk dira zuek erabiltzen dituzuen erreminta berrienak?

Eskolak emateko Skype eta bideo-konferentzia erabiltzeak ordu-tegia malgutzeko eta ikasten ematen duten denbora optimizatzeko aukera ematen die gure ikasleei.

Beste herrialde askotan ere badituzue egoitzak. Zer egiten da horietan?

Gure Itzulpen eta Interpretazio Dibisiorekin ordezkaritza komertzialak dira.

Languneren batzar nagusia egin duzue orain dela gutxi. Nola baloratzen dituzu 2013an lortu dituzuen emaitzak?

Zifra globalak 2012koak baino zerbait hobek izan dira: enpleguan, %1,26, eta fakturazioan, %0,5; baina gorabeherak daude Langune osatzen duten sektoreen arabera. Hazi egin dira Hizkuntza eta Interpretazioa, baina murriztu egin dira Hizkuntza Edukiak eta Hizkuntzaren Teknologia. 2014an %2,33 haztea aurreikusten dugu.

Zuen plan estrategikoan, Euskadin sektore estrategiko bihurtzeko helburua aipatzen duzue. Zein izan daiteke zuen ekarpena hori lortzeko?

Langunek daukan erronka handienetarikoa bat industria gisa errekonozimendua lortzea da, ez bakarrik ondasun kulturala; EA Eren BPGn duen pisua apala den arren (%0,42), 5.000 laguni lana ematen dion eta urtero 300 milioi euro fakturatzeko dituen sektorea da.

Beste alde batetik, sektore transbertsala denez, bera garatzea gakoa iruditzen zaigu beste arlo industrial batzuk hazi daitezela. Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016 Industrializazio Planak jasotzen dituen lehentasun estrategikoen artean, Enpresen Nazioartekatze Plana edo Basque Country Estrategia dago, eta Langune osatzen duten enpresen ekarpena ezinbestekoa da horretan, gure iritziz.

Beste helburu hau ere aipatzen duzue: beste hizkuntza minorizatu batzuetarako eredu bihurtzea Euskadi. Hori lortzeko, ze harreman ditu Langunek gaur egun?

Gure erreferente nagusia Ailia da, Kanadako Hizkuntzen Industrien Elkarteak. Languneren azken batzarrean Antoni Mir ere izan zen, Linguako, Kataluniako Hizkuntzen Industrien Klusterreko zuzendaria nagusia.

"Azken urteotan asko hobetu da gazteen ingeles kompetentzia"

"Gazteek titulua nahi izaten dute, eta helduek, berbetan hobeto moldatu"

ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA
goiena.net/komunitatea/



Berdintasunaren gakoak

Pertsonen arteko berdintasuna bizikidetzarako nabarmenak diren gutxieneko hiru ardatzetan oinarritzen da: soldatak, hizkuntzak eta sexu arteko lan banaketa.

Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko lan banaketaren alorrean ekoizpen lana eta erreproduzio lana bereizi daitezke. Inguruan bereizketa itzela ikusten da, lan mota batzuk bakarrik ordaintzen dira. Etxeko lana besteentzat uzten saiatu izan bagara ere, argi dago otorduak prestatzeko aurrez jeneroa erosi behar dela, mahaia jarri, jaso, konponketak eta garbiketa lanak egin, arropenak, sukaldekoak eta etxe guztikoak, bestela usainak eta zomorroek inguratu gaituzte. Gainera, askotan, umeen eta ezgaituen zaintza lanak ere egin behar dira. Aurreko hauek guztiek erreproduzio lana osatzen dute eta ez da ordaintzen etxeko kanpoko pertsona bati ez bada. Beste gauza bat da ekoizpen lana, etxetik kanporako lana, hau ordaindua da. Erreproduzio lanak derri-gorrezkoak dira ekoizpen lanak egingo badira. Lanak berdintasunez banatuz gero, guztiok izango gara askeago.

Hizkuntzen erabilpenaren inguruan solaskidearen hizkuntza ez jakiteak ez du justifikatzen hura nahi ez duen hizkuntza erabiltzeko beharrezkoa. Hori bata bestea derrigortzea da. Gaztelania eta euskara ulertzeko hainbat jakitera derrigortuak gaude guztiok aukeratzeko askatasun berdina izango badugu.

Soldatek baliokideak izan behar dute, bataren eta bestearen soldaten artean ezin da alde handirik egon, ez emakume edo gizon delako, ezta gaizki banatutako goi-karguen justifikazioz edo jabetzaren baitako aldeak eraginda ere. Noiz jarriko dizkiegu topeak soldatei eta jabetzari?

Gizon eta emakume guztion esku dago egoera hauek egoki garatzea, berdintasunaren bidean guztien askatasuna ahalbidetuz. Besteek eskatzea egokia izan daiteke, baina garapena zaila izango da norberak berdintasunez jokatu ezean.

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.com

Leloaz harago, gure esku dago

Asteburuan erosi dut Gure Esku Dago dinamika ekainaren 8rako antolatu duen giza katerako metroa. Ni ere katean egongo naiz, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea aldarrikatzea nire esku ere badagoela sentitzen dudalako. Hain da oinarritzakoa aldarrikapena, benetan gure esku dagoela barneratzean dago gakoak. Leloaz harago, politikaz –berba kutsatuegia gurean– harago joan behar duela, behetik gora. Iru-dimenetik, eta herriz herri, auzoz auzo eta eskuz esku. Herri txiki baten hasi zenak lorpen erraldoi baterako bidea markatu duela, helduko delako zer izan gura dugun erabaki ahalko dugun egun hori, ziur nago. Emaizta? Lasai, orain ez da lehentasuna.

KALE INKESTA

Zure ustez, zergatik da garrantzitsua liburuak irakurtzea?



NEKANE AGIRREBEÑA
ARRASATE

"Irakurri asko ikasten da eta horregatik da garrantzitsua. Arazo handiena gaur egun irakurtzeko denboratxo bat ateratzea da".



MIKEL IRAZOLA
ARRASATE

"Adibidez eleberririk beste hizkuntza batean irakurtzen badituzu asko ikasten duzu eta, gainera, ondo pasa eta entretenitu egiten zara".



SAIOA BERISTAIN
ARRASATE

"Ikasteko eta pentsarazteko da egokia irakurtzea. Horrez gain entretenitu egiten zara, azken finean irakurtzea aisialdia da".



ARANTXA ERIZ
ARRASATE

"Irakurtzen ikasi egiten da. Zure hiztegia aberastu egiten da edozein hizkuntzatan irakurrita. Horrez gain ondo pasatzen duzu."

HANDIK ETA HEMENDIK

Gurean ere txakurrak ortozik

Inazio Arregi
blogak.goiena.net/margola/

Gosaria oso garrantzitsua da dieta osasuntsu batean. Garrantzia handia ematen diot eta aste egunetan ez zait falta izaten zukua, kafesnea eztiarekin gozotua, gaileta batzuk eta ahal bada mermelada apur bat. Igande eta jai egunetan gustura jaten dut urdaiazpikoa tomatearekin igurtzitako ogi xigortuaren gainean. [...]

Hain gosari sanoek ez naute libratu joan den astean Arrasateko ospitalean egonalditxo bat egitetik. [...]

Jende dezente ezagutu dut atsedendian. Erizain eta laguntzaile langile eta adeitsuak, sendagileak, eta baita ondoko ohetik pasa den lagun pare bat. Lehenengoarekin bi egun eta bi gau egin nituen. Martin (ez da bere benetako izena) ebakuntza bat egitera etorria (ekarria) zen ospitalera eta bera eta bere bizitza ezagutzeak gure inguruan era guztietako miseriak daudela erakutsi dit baldin eta lehenagotik ez banekien.

Martinek, Gipuzkoako herri euskaldun batean jaio arren ez daki euskaraz. [...] Bost urte zituela utzi zituen amak bere sei seme-alabak aitaren kargura eta Nafarroako Erriberako herri batera joan omen zen beste gizon batekin bizitza berri bat hastera. Umetan hainbat baserri eta baserriko lan astunak ezagutu zituen amak Erriberara deitu zuen arte. Hamar urterekin utzi zuen jaioterria baina ez zuen denbora asko behar izan amarekin haserretu eta etxea uzteko. Lanean hasteko gai izan zenean zainzuriak batzen, mahatsa jasotzen eta beste hainbat lanetan aritu zen. Valentzian laranja bilketak eta Lleidan beste fruta batzuenak Nafarroakoekin tartekatuta zituen harik eta Gipuzkoara itzuli eta bertako lantegi pare batean beharra aurkitu zuen arte.

-Ardo asko edaten nuen sasoi hartan. Berehala hasten nintzen jotak kantatzen eta El jotero deitzen zidaten. Berehala mozkortzen nintzen.

Baina gauzak antza ondo ez eta bere buruaz beste egiten saiatu zen.

-Ez dut ulertzen zergatik nagoen ingresatuta eta tratamenduan ordutik hona. Behin neure buruaz beste egin

izanagatik hamar urte horrela egon beharra. Ez dut ulertzen.

Beste arazo batzuk ere bazituen. NASaren jazarpenaren biktima zen eta bere burua pertsegituta sumatzen zuen.

-Nasakoak nire atzetik dabiltza. Ez dakit zer egin nahi duten baina ez naute bakean uzten.

Anaia bat ere galdu zuen duela urte batzuk. [...]

Konfiantza apur bat izatera ere iritsi ginen elkarrekin egon ginen egunetan, eta hirugarrenean, ambulantiako gidaria bila etorri zitzaionean pena pixka bat hartu nuen. Berak ere bai.

Laguntzaile batek ekarri zuen eta gidari batek eraman. Han egon zen denboran ez zitzaion inor bisitan etorri. Ezta sendikorik ere, nahiz eta eurekin telefonoz behin baino gehiagotan hitz egin eta bere jaioterrik oso urrun ez izan.

Gelako atea itxi zenean pentsatu nuen gure gizarte honetan dauden miseria eta gabeziak ez direla bakarrik ekonomikoak. Maitasun eta osasun miseriak ere asko direla begien bistan ikusten ez ditugun arren.

Martinek berrogeita lau urte ditu. Gurean ere txakurrak ortozik.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Altor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtetako arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenbua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Julen Iriondo
Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Cordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Harmailatik

Debagoieneko kirola
Xabi Urzelaik aurkeztuta

► Astelehena, 19:30, 22:00 eta 00:20



HERRIAK

ONATI

Erretiratuen 'Lagun-Lekua'

- ▶ Eteo zaharrean lokala izango dute erretiratuek; hango taberna eurek kudeatuko dute
- ▶ Lagun-Leku deituko da eta erretiratuak batzeko eta ekintzak egiteko lekua izango da

LEIRE KORTABARRIA | ONATI

Kalean bazebilen, batez ere Olakuan eta San Lorentzon, erretiratuak zerbait egiteko asmotan zebiltzala Eteo zaharreko egoitzan. Auzotarrak aguro enteratu dira, bai. Eta arrazoia zuten zurrumurruak: Eteo zaharreko taberna zena erretiratu talde batek hartu du eta eurek gestionatuko dute; beste espazio batzuk ere eurek erabiltzeko izango dira. Helburua da euren txoko bat edukitzea, auzo horietako erretiratuendako leku bat; baina ez erretiratuendako bakarrik: "Zentru zabala izango da, denei irekia", diote bultzatzaileek. Aukerako izena ipini diote: Lagun-Leku.

Orain urte batzuk, gogo eta premia bat igarri zuten hainbat erretiratut, Juan Joxe Lizarralde dioten moduan: "800 erretiratu gara; makalaldiak eta izaten ditugu, eta beheraino, Pake-Lekuraino joateko... Eteo berria egin zutenean, taberna ikustera joan ginen eta guretako egokia zela ikusi genuen. Udalari planteatu genion. Batzar pilo egin ondoren, onartu egin ziguten eta giltza eman ziguten".

Badira 50 bazkide

Bultzatzaileak banaka batzuk izan dira. Elkarrekin osatu dute eta dagoeneko 50 lagun egin dira bazkide. Oraingoz, lana da konpartitzeko daukatena, lokala oraindik ez dagoelako guztiz bukatuta. Dena eurek konpondu eta txukundu dute, auzolanean: "Barra berria geuk ipini dugu", diote, harro-harro. Tabernaren lokalaz gain, beste gela edo espazio batzuk dituzte: bulegoa izango da baten; sukaldea, beste baten; baita bizikleta estatikoen gela bat ere, ariketa egin gura dute-nadako. Hasiara besterik ez da hori. Kafe-makina berri-berria dute; billar mahaia "ping pong mahai eta futbolina laster ipiniko ditugu", esaten dute eta gauza gehiago ipintzeko asmoa eta ideiak.

Izan ere, eurek dioten moduan, "ilusio handia" dago proiektuaren atzean, eta egoteko lekua bakarrik ez, ekintzak egiteko lekua izan dadin ere gura dute: billar, futbolin, ping pong eta bingo jokoak antolatu, "herri mailakoak"; hitzaldiak antolatu eta beste mila gauza.

Eltzia programaren eskutik,



Ezkerretik eskumara, Miguel Vieitez, Marilo Untzurrunzaga, Juan Joxe Lizarralde eta Joxe Manuel Molinero. | L.K.

Enpresa eta norbanako askoren babes

Lagun-Lekuko erretiratuek oso bidelagun onak dituzte euren ametsa egia bihurtzeko. Udalak emandako laguntasunaz gain, herriko enpresa eta jende asko dituzte eskertzeko: Mikel Lizarralde bizikleta estatiko bat eman die; Egur-Lanek obrak egiten lagundu die; Brasileñak kafe-makina eman du; Zubeldiak eta Geretak, sukaldea ekipatzeko erabiliko dituzten etxetresnak; Mertxe Plazaolak dekorazioaren gaineko aholkuak eman dizkie... "Seguru bateren bat ahaztu egin zaigula", diote. Eta, jakina, bazkide egin diren 50 ofatiarrak ere gertu dituzte lanerako.

Eteo zaharra bizi berriz bete da, eta "bizilagun" berriek badakite dagoeneko nora jo ahal izango duten mokadutxo edo kafetxo hartzeko: "Gurutze Gorrikoak, guraso taldea, trikiti taldea, bertsolariak... ekintza asko egiten dira inguru honetan, eta gure tabernara etortzen dira horiek. Jendea egoteko lekua izango da hau; erretiratuok gestionatuko dugu, baina denondako da", azpimarratzen dute.

Taberna gestionatzeko modua hau izango da: hilean egunero arduradun bat izango da, boluntario talde batetik, eta hark aten-

ditu eta zaindu beharko du taberna egun horretan. "Ikusiko dugu zelan gabiltzan eta gero pentsatuko dugu horrela jarraitu edo beste modu batera", esaten dute.

Arratsaldetan batzen dira han bultzatzaileetako batzuk -Marilo Untzurrunzaga, Joxe Manuel Molinero, Juan Joxe Lizarralde, Bernardo Muñoz, Miguel Vieitez...- eta auzotar askoren bisita jasotzen dute: "Bai, jendeak badaki hemen zer edo zertan gabiltzala eta lokala ikusi gura izaten dute", azaltzen dute.

Azpimarratzen duten beste

gauza bat hauxe da: "Hau ez da Pake-Lekuren kompetentzia. Oso harreman ona daukagu eurekin; izan ere, hemen gabiltzan asko hango bazkide gara. Are gehiago, asko lagundu digute", esaten du Joxe Manuel Molinero.

"Inaugurazio handia"

Jende asko noiz irekiko duten zain dago. Bada, laster izango da hori, azken ukituak emanda dituztenean. "Inaugurazio handi bat" egiteko asmoa dutela aurreratu digute, maiatzean, eta horren berri zabala emango dute.

ESANAK

"Eteo lekuz aldatu zenean pentsatu genuen hona etortzea"

JUAN JOXE LIZARRALDE
BULTZATZAILEA

"Erretiratuok eroango dugu, baina herritar guztiondako da"

JOXE MANUEL MOLINERO
BULTZATZAILEA

DATUA

800

ERRETIRATU

Olakua eta San Lorentzo auzoetan bakarrik, 800 erretiratu inguru bizi dira dagoeneko.



Taldea kiroldegiko agertokian jotzen. | I.S.



Mutiko bat tronpa jotzen. | IMANOL SORIANO

ESKORIATZA

Idazteko makinekin ere egin zuten musika Debagoieneko eskolek

Ohiko doinuak eta bereziagoak izan ziren bailarako eta Soraluzeko musika eskolek egindako saioan

JULEN IRIONDO | ESKORIATZA

Umeetatik hasi eta helduetaraino; talde txikietan edo handiagoetan; denak instrumentu berarekin edo tresna desberdinekin. Era

askotara egin zuten musika egubakoitz arratsaldean Eskoriatzako kiroldegian batutako Oñatiko, Bergarako, Aretxabaletako, Arrasateko, Soraluzeko eta etxeko


musika eskoletako kideek. Eta ohiko gitarra, tronpa edo zeharkako flauta doinuez gain, izan ziren bereziagoak ere: oñatiarren idazteko makinarena, edo are-

txabalarrek txaloak eta edalontziekin egurrean emandako kolpeak konbinatuz egindakoak; hots desberdinok gitarra doinuekin-eta nahastuz, harmailetan

batutako jendearen arreta eragin zuten musikariek: "Begiak ondo irekita egon dira begira neska-mutikoak", zioen Eskoriatzako Beheko Errota musika eskolako zuzendari Araceli Telletxeak.

Eskoriatzako kiroldegiko harmaila zati bat prestatu zuten emankizuna jarraitzaera joandako jendearentzako. Musikarrien sende eta lagunak ziren tartean, herri guztietakoak; baita Eskoriatzako jendea ere, zaharren egoitzatik joandako lagunak tartean. Telletxeak amaieran zioen ondo atera zela emanaldia.

ANE ERAÑA
ESKORIATZA



"Lehenengo aldia dut kontzertu honetan. Ohituta gaude jende aurrean; ez gara urduri jartzen. Ikasturte hasieran eta amaieran ere egiten ditugu halakoak".

BLANCA GOMEZ
ARRASATE




"Oso dibertigarriak dira halakoak. Musikara konektatzen gara berriz ere. Ez gara lekuz kanpo sentitzen gaztetxo artean; musikak batzen gaitu".

OLATZ KORTABARRIA
OÑATI



"Nahikotxo jotzen dugu; Oñatin, Gasteizen ere egon izan gara... Kiroldegia txikitxo da eta jende askorik ez, baina ondo. Beste herrietan egiten dena ikusi...".

DANEL MURGIÓNDO
BERGARA



"Gitarra jo dugu zortzi bat lagunekoko taldeak. Nahikoa ondo atera da. Interesgarria da halakoetan parte hartzea, errepikatze modukoa".

PABLO LOMBARDO
ARETXABALETA



"Normalean baino hobeto atera da. Ondo abestu dute, eta guk ere ondo jo dugu gitarra. Astero elkartzen gara entseatzeko, eta elkar ondo hartzea ez da zaila".

ANTZUOLA

Hoditeria berria jarri eta auzolanean konpondu dute Uzarragako iturria

J.I. | ANTZUOLA

Udalak egindako deiari erantzunez, dozena bat lagunekoa koadri-la ibili zen zapatu goizean Antzuolako Uzarraga auzoko iturria konpontzen. Iturriraino ura eramateko jarritako hodiak burdinazkoak ziren aurretik, baina, horiek hondatuta, plastikozko berriak jarri zituzten.

Auzolanean ibilitako Joxe Mari Iturberen arabera, iturri berezia da Uzarragakoa, egin zutenean harrizko ubidean barrena joaten zelako ura.

Geroago sartu zituzten metaluzko hodiak, baina herdoildu eta zulatu egin dira horiek denborarekin: "Urik ez zen iristen azkenaldian iturrira; espero dugu orain iritsiko dela".

Uzarragako iturrira pixka bat gorago dagoen iturburu batetik iristen da ura, eta iturburua eta iturria arteko zatia da zapatuan auzolanean konpondu zutena, 150 metro ingurukoa; zuloa atondu eta hodi berriak sartu. Lanean fin jardun zuten, auzoko bertako eta herritik joandako lagunek.



Hodiak jartzeko zuloa egiten. | IMANOL SORIANO



Taldea, lanak banatuta. | I.S.



Ikasleek denetarikoreografiak egin zituzten Amaia antzokiko agertokiaren gainean. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Arizmendiko batxilergoko ikasleen festa borobila

Datorren ikasturtean egin gura duten ikasbidaiarako dirua lortzeko desfilea egin zuten Amaia antzokian

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arizmendi ikastolako batxilergoko lehen mailako ikasleek egun handia izan zuten egubakoitzean. Datorren ikasturtean egin gura duten ikasbidaiarako dirua lortzea helburu, *Aldatu Kataia* ikuskizuna eskaini zuten Arrasateko Amaia antzokian. Desfile moduan ezagutzen da kalean, baina urtez urte handitzen eta hobetzen doa

ikuskizuna. Hasieratik bi aurkezle gidatu zuten saioa, umore ukitua jarritz. Gero, gelaka antolatutako dantza-ikuskizunetan, hainbat kanturen pasarte labur batzuk dantzatu zituzten jarraian, saio dinamikoak eskainiz.

Urtero moduan, irakasleen agerraldiak eragin zituen barre algar handienak. Arropatik lotuta irten ziren, ileorde eta guzti.

Antzokia goraino beteta

Dirua batzea zen helburua eta, horretarako, sarrerak bost eurotan jarri zituzten salgai. Jasotako diru kopuru zehatza zein den oraindik kalkulatu ez badute ere, ikasleak pozik geratu ziren, Amaia goraino bete zen-eta. Ikuskizunaren ostean, ikasle asko Arrasateko kaleetan ikusi genituen; ziur gauak luze joko zuela...



Ikasleak aurkezle lanetan. | IMANOL SORIANO



Irakasleak euren saioa egiten. | JOKIN BEREZIARTUA

LEINTZ GATZAGA

Zigor Lasagabaster: "Mundua oso jende onez beteta dago"

Andaluziatik Thailandiara bizikletan bizitako abentura aurkeztu zuen

J.B. | LEINTZ-GATZAGA

Andaluziatik Thailandiara poliki-poliki bizikletan izeneko abentura aurkeztu zuen Zigor Lasagabaster aretxabaletarrak egubakoitzean Leintz Gatzagako kultura etxean. Maria Caro granadarrarekin batera iazko irailean Algecirasetik (Cadiz) irten eta Thailandiara bizikletaz egindako bidaiaren gainean egin zuen berba Lasagabasterrekin. 40 bat lagun izan ziren aurkezpenean, eta Lasagabasterrek nondik nora ibili ziren azaldu zuen, argazkiekin eta musikak lagunduta. Oso gustura geratu zen abenturazale

aretxabaletarra aurkezpenarekin: "Oso gustura egon nintzen lagun, familia eta ezagutzen ez nituenekin azken urte eta erdiko amets hori partekatzen. Beti gelditzen zaizu sentsazioa ezer gutxi kontatu duzula, baina urte eta erdi horren denbora motzean laburtzea ez da batere erraza". Esperientzia "ahaztezin" hartatik honakoa nabarmendu du: "Mundua oso jende onez beteta dago. Berdin da zein nazionalitate edo erlijio izan, jasotako harrerak hori sentiarazi digu". Era berean, "milaka" anekdota bizi izan zituztela nabarmendu du.



Zigor Lasagabaster azalpenak ematen, aurkezpenean. | IMANOL SORIANO



Lasagabaster monje budistekin berbetan. | ZIGOR LASAGABASTER

Gorputz ezberdina
Bihotz bera

FORD FOCUS
> MotorEcoBoost
12.990 eurogatik

MUGARRI AUTOAK

ARRASATE
Araba Etorbidea, Z/S
Tel. 943 79 56 64

Ford Focus EcoBoost gama, kontsumo mistoa (l/100 km): 4,7 - 7,2. CO2 igorpena (g/km): 109 - 160

INTERNATIONAL engine of the year awards 2013

Ford

"PSE-EEk besteon lana kritikatzera ezin da ulertu"

Hondakinen Mahaiak alderdi sozialistak egunean esandakoei erantzun die

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Sozialistek egunean egindako agerraldiaren harira, Hondakinen Mahaiak uste du Denis Itxaso PSE-EEko ordezkariak bosgarren edukiontzian "konfiantza falta" duela: "Ematen du kezkatuta dagoela Arrasaten bosgarren edukiontzia ezarri delako, hondakinak gaika bereizita jaso ordeztu nahita nahastuta biltzeak sortzen duen kutsadurak ingurugiroan duen eraginarekin kezkatuta egon beharko zukeenean. A ze nolako konfiantza falta horrenbeste defendatu izan duen sistema, ezta?".

Hondakinen Mahaiaren araber, ez da onargarria alderdi sozialistaren arduradunak, edukiontzien sistemak Arrasaten arrakasta izan dezan arrasatearrak animatu eta laguntza eman beharrean, haren porrotaren alde azaltzea birziklatzearen onerako.

Parte hartu ez izana salatzen

Era berean, PSE-EEk mahaiaren parte hartu ez izana ere kritikatu dute Hondakinen Mahaia osatzen duten ordezkariak: "Alderdi



Hondakinen Mahaiko ordezkariak artxiboko irudi baten. | IMANOL GALLEGO

sozialistaren Arrasateko ordezkariak ez dute mahaiaren parte hartu nahi izan, behin baino gehiagotan gonbidatuak izan diren arren. Hau da, ez dute euren interesen alde lan egin, mahai horretan ados jarriko ginenik ere ez zutelako espero, ziur aski. Mahai hori jarrera ezberdinen arteko eredu izan da, denon helburu bat lortze aldera: hondakinak birziklatzea ahalbidetzen

duen eta arrasatearrentzat egokiaz den biltze sistema bat ezartzea". Lagundu beharrean beste eragileek lana kritikatu izana ere nabarmendu dute: "Ezin da inondik inora justifikatu sozialisten ordezkariak orain, lagundu beharrean, besteok egindako lana kritikatzera". Izan ere, Hondakinen Mahaia "erabat" konbentziturik dago arrasatearrak %70eko birziklatze tasara helduko direla.

NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA



Kalifornia vs Arrasate

Duela gutxi amaitu dut Stanford Unibertsitateko irakasle nahiz Silicon Valley-ko sortzaile izan zen Fred Terman (1900-1982) irakasleari buruzko biografia irakurketa. Liburu luzea da, baina aberatsa. Urrundik ikusita Kalifornia lortu duen garapen maila mirargarria dirudi, baina, liburuan agertzen denez, ez dago miraririk, baizik eta urtetako lan sakona.

Aipatu liburutik ikasketa ugari atera daiteke gaur egungo Arrasaterako balioak izan daitezkeenak. Esate baterako, Bigarren Mundu Gerraren amaiera gertu ikusiaz, Estatu Batuetako Franklin D. Roosevelt (1882-1945) presidentea legedi berezi bat ezarri izan zuen 1945. gerran borrokatzen ari ziren soldaduen etorkizuna prestatzen laguntzeko asmoz. Franklinek honako hau agindu zuen: "nire soldaduetarik inor ez dadila geratu ikasketarik gabe, lanik gabe eta etxerik gabe"

Franklin D. Roosevelt-en legediaren eraginez Kaliforniako unibertsitate nagusienak (Berkeley, Stanford, UCLA) gau eta egun aritu izan ziren, egunean hiru txanda eskainiz, gerratik zentozten soldaduei ikasketako aukera emanez. Ahalegin horretan laguntzeko, gerra aurretik erretiratu zirenen irakasleak unibertsitateetara itzuli izan ziren berriz ere. Horren eredu honako hau da: Stephen Timoshenko (1878-1972), materialen erresistentzia zientziaren sortzaileetarikoa, garai hartarako 67 urte zeuzkana, lau urtez goizalde-arte irauten zuen gabeko txandatan 60 gora gazteri erakusten aritu izan zela.

Fagor Elektrogailutako porrotak Kalifornian 1945. urtean egindako ahaleginaren pareko saiakera eskatzen du bertako langileek bizitzarako bigarren aukera izan dezaten. Hari horri muturra atera nahirik On Jose Maria Arizmendiarrrietaren esaldi hau dakart: "libertatea maite duen herriak bere heziketaz arduratu behar du, izan ere ezjakintasunak esklabutzara baitarama"...

"Ezjakintasunak esklabutzara baitarama"

Behar duzun gorputz tratamendua daukagu!

GORPUTZ TRATAMENDUAK

- Zelulitisa
- Biguntasuna
- Gehiegizko pisua
- Gorputzerako aparailuak

KONTSULTA MEDIKO-ESTETIKOA

- Dieta pertsonalizatua
- Aqualixa
- Gorputz mesoterapia

BELTZARAN ZAITEZ DISTIRATSU EGOTEKO!

Kontsulta itzazu gure eskaintzak:
www.amagaraestetikazentroa.es

RPS: 228/10



AMAGARA

Erdiko kalea 54, behea
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 09 09



Ikasleek batzarra egin zuten alkatearekin bioaniztasunaz jarduteko

Eskola Agenda 21 ekimenaren barruan, jarraipen bilera egin zuten Kulturateko Jokin Zaitegi gelan

J.B. | ARRASATE

Arrasateko ikastetxe guztietako ikasle eta irakasleak alkatearekin bildu ziren joan den astean Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 2012-2013 ikasturteko Eskola Agenda 21eko jarraipen bilera egiteko.

Bioaniztasuna izan zen 2012-2013 ikasturteko gaia, Eskola Agenda 21 barruan ikasle eta irakasleek aztertu zutena. Urtero bezala, zenbait proposamen eraman zituzten 2013ko maiatzean egindako osoko bilkura. Orduan hainbat ikasleklasean bioaniztasunarekin

lotura duten zenbait gairen gaineko ondorioak irakurri zituzten udalbatzaren aurrean, banan-banan.

Alkatea, banan-banan

Bada, apirilaren lehen ikasle eta irakasleen 45 ordezkari bildu ziren alkatearekin, orduan esan zirenen inguruko jarraipena egiteko. Inazio Azkarragaurizarrek banan-banan aztertu zituen iaz ikasleek egindako proposamen guztiak, eta bakoitzarekin zer egin den edota zer egiteko asmoa dagoen azaldu zien bertaratutakoei.



Ikasleak Inazio Azkarragaurizarren azalpenak entzuten. | ARRASATEKO UDALA

Euskarak "babes politiko eta soziala" behar duelako, elkarretaratzea etzi Herriko Plazan (19:30)

Hainbat euskaltzalek elkarretaratzea deitu dute etzirako Herriko Plazan (19:30): "Euskaraz bizitzeko beharrezkoak ditugun neurri politikoak babestu eta areagotzea eskatzeko, Kontseiluaren salaketarekin bat egiten dugu", diote. Carlos Urkijo Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariaren zenbait udali-Arrasateko barne-jarritako helegiteen harira antolatu dute agerraldia.

Erakusketa eta azalpen gidatua gaur eta bihar, Takolo-Goiru proiektua ezagutzera emateko

Takolo-Goiru proiektua ezagutarazteko erakusketa eta azalpen gidatua antolatu du Udalak gaurko eta biharko Kulturateko areto nagusian, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Azalpenak emango dituzte Joxe Etxeberriak eta Juan Antonio Urdangarinek, hirigintzako zinegotzia eta hirigintzako arlo buruak, hurrenez hurren (19:00etatik 20:00etara).

Sinadura ekitaldia zapatuan eta 'Eskutik Eskura Eguna' domekan, Gure Esku Dago taldearen eskutik

Gure Esku Dago taldeak hainbat ekintza antolatu ditu astebururako. Zapatuan, hilak 12, *Erabagitteko Eskubidien Aldeko Arrasateko Adierazpena* sinatzeko ekitaldia egingo dute Kulturaten eta domekarako hilak 13, *Eskutik Eskura Eguna* antolatu dute: giza katea alde zaharrean, erraldoi eta kilikien konpartsa eta Sant Cugat del Valleseko castellers-ak izango dira, besteak beste.

Ikasleentzako eskaintza zabala aurtengo eskola-antzerki jardunaldietan

Bihartik aurrera ikasleentzako antzerki saioak izango dira Amaia antzokian

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Asteartean hasiko dituzte 2013-2014 ikasturteko eskola-antzerkiaren jardunaldiak. Udaleko hezkuntza sailak antolatuta, lehen hezkuntzako hiru zikloetako eta DBH lehen eta bigarren mailako ikasleentzako antzerkiarekin lotutako hainbat jarduera egingo dira Amaia antzokian.

Martizenean, ikasleek egingo dako lau antzezlan taularatuko dira. Arrasate Insitutuko DBHko lehen mailako ikasleek *Amona honekin kontuz!* lana aurkeztuko dute, etea bigarren mailakoek aldiz, *Musu baten bila* izenekoa. Arizmendi Ikastolakoak ere Amaiko oholtza gainera igoko dira. Gaztelupe guneko ikasleek, *Gai-xo* deitzen den antzelana eramanango dute, eta Almenekoez aldiz *Bederatzi ez da bederatzi*. Saio hauek, lehen hezkuntzako ikasleentzako taularatuko dira.

Antzerki profesionala

Behin ikasleek prestatutako lanak taularatuta, konpainia profesionalen txanda izango da. Apirilaren 10 eta 30ean, eta maiatzaren 9an, ikasleentzako antzerki talde profesionalen emanaldiak izango dira Amaia antzokian. Eguen honetan, Markeliñe taldearen



lazko eskola-antzerki jardunaldietan taularatutako antzezlanak. | GOIENA

Txixarra eta inurria lana taularatuko dute emanaldi bikoitzean; hilaren 30ean, Paraiso teatroaren

ko *Erpurutxo*; eta maiatzaren 9an berriz, Picor teatroa konpainiaren *Jauzi hirukoitza*.

Antzerkia modu didaktikoan lantzeko asmoz, Amaia antzokiko instalazioak ezagutzeko aukera ere izango dute arrasateko ikastetxeetako ikasleek. Andoni Zubiaga antzokiko arduradunaren eskutik, ikasleek antzokiko txoko guztiak bisitatuko dituzte. Bisita gidatu hauek datorren maiatzaren 27 eta 28an egingo dituzte. Aipatu jardunaldi hauek 11.831 euro bideratu ditu Arrasateko Udalak.

DATUA

1987

IKASLE

LHko eta DBHko 1987 ikasle izango dira eskola antzerkiaren jardunaldietan.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

Mondraren historixe: momentu ederrak, baiñe tristiek be bai

Beraneante batzuk ekarri euen futbola herri, Mondraura, 1913en, eta orduen fundau zan Club Deportivo Mondragones. 1942xen, aurreko taldie desagertu eta Juventud Deportiva de Mondragon izatera pasau zan. Talde harek inaugurau euen Iturripe. 1966xen, gaur egungo futbol kluba dana fundau euen: Mondragon Club de Futbol; lelengo presidentie Jose Martinez de Ubago izen zan.

1979xen Regional Preferentera igo zan taldie eta 82-83 denporaldixen Hirugarren Maillara; bixetan, entrenadorie Luis Lopez Bonba zan.

Momentu ederrak bizi izen zittuen klubak, baiñe baitte tristiek be: 79-80 denporaldixen, Iñaki Herrero jugadorie futbol kanpuen bertan hil zan.

Mondrak 800 bazkide euen 1989xen eta oso txarto ebillen diru aldetik. Gaiñera, urte gaxa eroien: febreruen presidentiek dimitidu egin euen eta ordura arteko entrenadorie, Juanito Arriaran, kargutik kendu euen. Patxi larza jarri euen presidente eta Iñaki Zeziaga, barriz, entrenadore. Martxuen bertan, Txosa jugadorie Eibarrera itxitte juen zan, denporaldi hartarako bakarrik.

Toxikomanuen familiakuen batzarrak

Drogiena problema haundixe zan herrixen, batez be heroiniek in lotutekue.

Drogadiktuen familixakuek talde bat egin euen -gehixenak amak zien- eta elkarketan hasi zien frantziskanuen lokal baten. Horrekin batera, Udalak gizarte laguntzaille bat kontratau euen eta droga-menpekotasuneko prebisiñorako komisiño bat egitteko asmue euen.

18. zenbakia 1989-04-14



Erramu-zapatua Bergaran, mahoiz jantzita gozatzeko feria kuttuna

Euskal txerriak bere tokia izango du aurten seminarioko jolaslekuan

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Ohi bezala, Erramu-zapatuko ferian gauza asko egongo da ikusteko. 9:30ean irekiko dute eta bazkalordura arte ganadua, artisauak, bertako produktuak... egongo dira erdigunean. Udalak mahoi jantzeko gonbidapena egin diela herritarrei.

Ibargarai kalean ganadua egongo da ikusgai; Seminarioko jolaslekuan hegaztiak, animalia bitxiak eta baserriko makineria; San Martin plazan artisauak egongo dira, Fraisko zurin sasoi-ko produktuak eta txosna egongo dira eta Simon Arrieta plaza aldiz, gozozaleen txokoa izango da, bertan batuko baitira gozogile eta okinak. Aurten gainera, Seminarioko jolaslekuan, euskal txerria ezagutzeko parada izango da.

14:30ean aldiz herri bazkaria egongo da, Udal Pilotalekuan, eta 500 bat lagun espero dira. Zoritarrez baina, bazkariko txartel guztiak lehen egunean saldu ziren. Arratsaldean, 17:30ean, umeendako zezentxoak egongo dira Seminarioko jolaslekuan.

Kontuan izan gainera, Martinez Iralan egiten ari diren lanengatik, San Martin ikastetxe-ko jolaslekua izango dela, aparkaleku moduan egokituko den toki bakarra. Horregatik, behin baino gehiagotan Udaletik argitu duten moduan, azoka egunaz gozatzeko aukerarik onena, autoa etxean utzita da.



Simon Arrieta plazan batuko dira gozogile eta okinak. | GOIENA

Azoka eguna baino gehiago

Erramu-zapatuko egitaraua gaur hasiko dira, 19:00etan, Amaia Diaz de Monasterioguren eta Peio Zabalak *Udaberria, natura entzunak ditugun elikadura beharra* hitzaldia eskainiko dute osoko bilkuren aretoan.

Egubakoitzean 22:30ean, Udal pilotalekuan Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Iker

Zubeldia, Amaia Agirre eta Nerea Elustondo lehen mailako bertsolariak arituko dira, saioko gaitzaitzailea aldiz Iker Iriarte izango da. Aldez aurretik, sarrerak 8 eurotan www.bergara.net gunean eta 18:00etatik 21:00etara Kultura etxean eros daitezke. Azken orduan erosi nahi duten horientzat, baina pilotalekuko leihatila 21:30ean irekiko dute.

ERRAMU ZAPATUKO FERIA

GAUR

19:00 'Udaberria, natura entzunak ditugun elikadura beharra' hitzaldia, osoko bilkuren aretoan.

APIRILAK 11

22:30 Bertso saioa, Udal pilotalekuan (8 euro).

APIRILAK 12

9:30 Feria zabaltzea.

11:00 Euskal hanburgesatxo dastaketa, San Martin plazan.

11:30 Txorimalo lehiaketa. (sari banaketa 13:00etan)

11:30 Castellars-ekin kalejira, Santa Marinatik hasita.

12:00 Bergarako trikitilarien emanaldia, Ibargarai hiribidean.

14:30 Herri bazkaria, Udal pilotalekuan.

17:30 Umeentzako zezentxoak, Seminarioko jolaslekuan.

Castellers ikuskizuna eguerdian

Gure Esku Dago dinamika goizeko 11:00etatik aurrera, eta herria giotzeko, kalejira egingo du erdiguneko kaleetatik.

Eguerdiko 12:00etan, Sant Cugat del Vallés-eko castellersak emanaldia eskainiko du Irizar jauregiko lorategian, eguraldi txarra egiten badu, ikuskizuna pilotalekuan egingo dute. Gogoan izan, goizean zehar, ekainak zortzira begira, Irizar jauregian eta pilotalekuan metroak salduko dituztela.

NIRE USTEZ

MAITE PLAZAOLA



Argi da(go)

Argi eta ilunen artean oroitzen ditut txikitako pasarte ugari; amaren usain goxoa, lagunarteko jolas eta liskartxoak, familia-bidaia eta beste hainbat, era nahasian, bizitakoaren eta entzundakoaren arteko amaraun sarea baillitza.

Hala eta guztiz ere, argi irudikatzen dut nire lau urteko gorputza San Martzialako aldapa -orduan laukoiztua- igotzen, ondoren jango nuen bokata goxoarekin ametsetan. Baina egun hura ez zen guztiok pentsatutako erromeria eguna. Izan ere, hamasei urte behar izan genituen halako eguna Bergaran berriz ospatzeko. Eta bai, hura ere argi asko daukat;

baina orduan txosnan egon nintzen, kalimotxo eta zuritoak edaten, lagunekin, parrandan eta lanean.

Egun hartan guztiok izan genuen argi, Belcebluesi esker, egun handia zela hura, Angiolilloren hil-herria izan zen hau dantzan jarri beharra zegoela, eta wolframioari esker asma-tutako bonbillak bezala, argitu eta alaitu.

Ordutik zazpi urte pasa dira, asteko egunak bezain azkar igaro direnak. Hori bai, orotzapan horiek ahaztu aurretik etorriko zaizkigu berriak. Izan ere, bi urte barru, nire memorian hirugarren aldiz, Kilometroak ospatuko dira Bergaran, Aranzadi Ikastolan. Argi izan genuen eta argi izan zen; argi daukagu eta argi izango da.

"Nire memorian hirugarren aldiz, Kilometroak egingo dira Bergaran"

Bidegorriari buruzko ideiak jasotzeko batzar irekia

I.G. | BERGARA

Udalak deituta, herriko bidegorriari buruzko ekarpenak jasotzeko bilera egingo dute arratsaldean (19:00) Irizar jauregian. Ekarpentxoak jaso aurretik baina informazioa ere emango dute, "Aldundiak bidegorriari buruz eman digun informazioa partekatuko dugu lehenbizi", azaldu du Joseba Moñux zinegotziak.

Horren ostean baina, bidegorri sarea hobetzeko berta-ratzen diren herritar eta taldeen ekarpenak jaso nahi dituzte, "sarea eta ibilbidea definitua daude, baina bidegorria hobetzeko ideiak proiektuarentzat oso aberasgarriak izan daitezke", zehaztu du Moñuxek, herritarrei bilerrako parte hartzeko gonbita luzatzeko orduan.

TXALOK ETA TXISTUAK



Espaloi irisgarriagoa Ozaetan

↑ Herritar guztiok kalean oztoporik gabe ibiltzeko gero eta herri irisgarriagoak ditugu, igogailu publikoak, maila bakarrek kaleak... Duela gutxi arte, Ozaeta eta Zubiaurre auzoak lotzen zituen espaloiak koska handi bat zuen, eta goiko irudian duzuen arrapalari esker, oztopo hori gaindituta dago. Bergarar batek baino gehiago esan duten moduan, orain bidea erosoagoa da.



Aurreko saioetan talde bakoitzak bere bilerak egin ditu. | BERGARA

Bihar arratsaldean egingo dute Azoka Bergaratzen prozesuko bateratze saioa

Talde bakoitzak bere bileretako proposamenak eroango ditu udaletxeko osoko bilkuren aretora

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Oxirondo azoka aztertu eta balorean jartzeko Udalak, Bagararen laguntzarekin, sustutako Bergaratzen prozesuak bihar arratsaldean, pausu garrantzitsu bat emango du. Proiektu garrantzitsu honen parte diren talde ezberdinek euren taldekako dinamika egin eta gero, hasierako ideia eta proposamen bilketa horren ostean,

bateratze saioa egingo dute bihar (18:30) udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Azokaren proiektua bultzatzeko garaian, hito garrantzitsu bat da bateratze saio hau, ildo desberdinetako lan taldeetan egindako proposamenak ezagutu, partekatu eta gainontzeko taldeen aurrean azaltzeko aukera eskainiko du-eta.

Udalak aurreko saioetara gerturatu diren herritarrei gonbita luzatzeaz gain, bateratze saio ireki honetara, prozesu honen parte izan nahi duen edozein herritarri ere gonbita luzatu die. Honekin, alde aurretik, talde bakoitzak pentsatu eta hausnartu dituen ideak ezagutu eta hobetu ahal izateko. Horrez gainera, antolatzaileek esan moduan,

biharkoa aurrez pentsatutako ideak bateratzeko saioa izan arren, proposamen berriak ere batu nahi dituzte.

Lehen sektorea

Apirilaren lehen izan zen lehenengo sektoreko bigarren lan saioa. Lehenengo saioan adostutakoak sakondu eta zehazten jardun zuten parte hartzaileek, apirilaren 8an izango den bateratze saiora taldeko proposamenak eramateko asmoz. Horretaz gain, sektorearen egoera eta baldintzen berri ezagutzeko aukera ere eskaini zuen saioak.

Aztertu eta hobetu beharreko aspektuetako bat astegunetako jende jariora areagotzea izan zen. Horretarako ekintza osagarriak txertatzearen ideia azaleratu zen. Herriko beste eragile batzuekin kolaboratzeko bideak ere aztertu zituzten.

Azokako aisialdi gunea

Martxoaren 15ean izandako *Haurren Aisialdia: ezagutu, hausnartu eta parte hartu* jardunaldian egindako talde dinamiketan Bergarako aisialdiaren inguruan hausnartzeko aukera izan zen. Aldez aurretik jasotako ezaugarriak aisialdi gunean islatzeko, planoen bidez, esparru ezberdinak ere finkatzen hasi ziren.

Esparru honek izandako partaidetza eta interesagatik, aisialdi gunerako bi lan saio egin dira: bata arratsalde eta bestea goizez. Bikoizketa horri esker, guraso eta hezitzaile ugari prozesu honetan parte hartzeko aukera izan dute.

Talde hauekin izandako bileraz gain, Oxirondo azokaren prozesuan, herriko merkataria eta beste kolektibo batzuek ere euren saioak egin dituzte. Udaletik adierazi moduan, azoka herriaren proiektu gako bat da-eta.

Apirilean ere, kultura askeena kartzela zaharrean

Hil honetako hitzordu batean baino gehiagotan emakumeak protagonismo berezia izango du

I.G. | BERGARA

Ohiko zirkuituetatik at, gazteak kultura askeenaren bozgorailu izaten jarraituko du hile honetan. Astebete pasa da apirila hasi genuenetik, eta askok kartzela zaharrean, aste bukara mugitua izan badute ere, oraindik hitzordu garrantzitsu asko geratzen dira.

Pasa den egubakoitzeko Punk-rock kontzertuez gainera, apirilaren 19an *Jar itzazu tapoiak mesede*z jaialdiaren eskutik, hardcore taldeak izango dira kartzela zaharrean. Hitzordu honetarako, Jerez de la Fronteratik Minority of One taldea etortzeaz gain, Yaw donostiarrek ere euren musika ekarriko dute.

Jaialdia ezagutzen ez dutenek komeni, izenburuari kasu egin eta tapoiak eroatea, hitzordu hau

euren agendetan jasotzen duten horiek aldiz, aurreko jaialdietan bezala, honetan ere gogotik disfrutatuko dute.

Emakumea protagonista

Abortuaren erreformaren kontrako manifestazioarekin bat egiteaz gain, emakumeak esparru berezia izango du. Uxue Alberdik Euli-giro liburua erakutsiko du apirilaren 25ean (19:00). Alberdik esan moduan, sentsazioetatik sortutako ipuin sorta bat da.

Apirilaren 18an (22:30), umorez beteriko obra bat izango da *Gaztetxean. Izan bedi emakumeak* antzezlanak emakumeek jasaten duten diskriminazioaren inguruan hausnartzera bultzatu nahi du. Istoria paradisuak kokatzen den arren, ikusleek oso berezia den Eva bat ezagutuko dute.

III. Bizikleta jardunaldien azkeneko pedalkadak

I.G. | BERGARA

Duela hamabost egun ekin zioten Bergaran III. Bizikleta jardunaldiak ospatzeari, eta ekintza mordoxka baten ostean, eguaztenean amaituko dira jardunaldi hauek. Horren aurretik baina, zer ikasi eta eztabaidatu egongo da, izan ere, egitarauan geratzen diren bi ekitaldiak hitz egin eta ideiak trukatzeko sortuak dira-eta.

Astelehenean, Bergarako kirol kontseiluak *Bergarako bide motorizatu gabeen sarea* gai monografikoa landuko du Irizar jauregian 19:00etan. Bertan, herriaren guztiz atonduta ez dauden bide eta zirkuituez mintzatuko dira.

Amaiera, Markel Uriarterekin

Bizikletari eskainitako jardunaldiak behar bezala bukatzeko, bi gorpil gainean iaioa den Markel Uriarteren hitzaldiaz gozatzeko aukera egongo da.

Enduro, Mendi bizikletako iraultza izenburupean, aretxabaletarrak, bi gorpil gainean duen esperientzia zabalaz mintzatuko da, tartean 'Enduro' modalitateaz jardungo delarik. Ziur batek baino gehiagok pedalei eragiteko arrazoi berriak topatuko dituela Uriarteren hitzak entzun eta gero.



Markel Uriarte. | GOIENA

Hurrengo DJ jaialdia Pazkoa Asteko zapatuan izango da

Aste Santuan energiak berreskuratu ostean, Humberto disko jartzaileak ekingo dio opor osteko lehen DJ saioari eta ohi moduan, erritmo dantzagarrienekin animatuko ditu herriko gazteak. Orain arte moduan, nerabeek Zabalotegi aretoan, 18:30etatik 21:30etara gustukoak dituzten abestiak entzun eta dantzatzeko aukera izango dute.

Zapatura arte aurkez daitezke Arantzadiko pisurako eskaintzak

Bergarako Udalak salmentan dauka Telesforo Aranzadi 3-2.F etxebizitza, atxikitako 3. zenbakiko trastelekuarekin batera. Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 12an, 13:00etan bukatzen da. Pisua ikusi nahi dutenek txanda gutxienez 24 ordu aurretik hartu behar dute 943 77 91 00 telefonoan edo udaletxeko idazkaritzara gerturatuta.

Errolda gaurtik hasita aste betez ikusgai egongo da udaletxean

Maiatzaren 25ean izango diren Europako hauteskundeak gainean ditugula eta, aste honetan argitaratuko du Udalak hautesle-errolda. Gaurtik eta hurrengo astelehena bitarte (biak barne), udaletxeko idazkaritzan ikusi ahal izango da zerrenda osoa, interesatuek aztertu, eta behar izan ezker, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Zabor, Estolderia eta Uraren 2014ko lehenengo hiruhileko tasa

Helbideratutako erreziiboak, zergapekoak agindutako kontu korrantean zordunduko dira 2014ko ekainaren 11n. Helbideratu gabeko erreziiboak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko dira. Herritarrek, Udaleko diru-bilketa zerbitzuan, bankuetan edota www.bergara.net-en ordaindu ahal izango dituzte.

Pol-Poleko kideek Kantabriara eguneko txangoa antolatu dute

Domekarako Pol-Pol mendizale taldekoek, egun osoko irteera antolatu dute. Orain honetan Kantabriara egingo dute eta Ramales herritik Pico del Morora joan etorria egingo dute. Autobusa, egun bertan, goizeko 8tan irtengo da frontoitik. Joan nahi dutenek, 20 euroren truke Pol-Poleko bulegoan eros ditzakete euren txartela.

Herriko kirol plana prest egongo da urtebete barru

Kirol eragileekin eta kirolariekin egingo da, parte-hartze prozesu bidez

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Jarduera fisiko eta kirol jarduerarako egitasmoa egiten hasi da udala. Hau da, kirolaren inguruko plan bat egiten. Plan horrek herriko kirol sistemaren garapen iraunkor zentzuzkoa bermatuko du, udalaren esanetan.

Bi fase

Plan hori herriko kirolariekin batera egingo du udalak. Batetik, kirol eragileekin (hemen sartzen dira, adibidez, ikastetxeak, Aloña Mendi eta beste elkarte batzuk) eta bestetik, kirola egiten duten herritarrekin, norbanakoekin. Parte-hartze prozesu baten bitartez gauzatuko da plana eta alde bietan batera egingo da parte-hartzea, paraleloan.

Astigarragan egoitza duen Kirol Management enpresa arduratuko da plan hori egiteaz eta horko kide de Jon Ander Garcia de Kortazarrek adierazi duenez, apirileko azken astean hasiko dira lehen bilerak egiten: "Jakín gura dugu, adibidez, zer nolako instalazioak dauden, ze baliabide dauden kirola egiteko, zer erabilerak dauden, zein egoeratan dauden, herritarrek zein kirol egiten duten, zer falta duten, gustura dauden edo ez... Eta datu horiek jasotzeko bilerak eta galdetegiak prestatu ditugu".

Hilabete honetan hasi eta urtebete barru, datorren martxorako, bukatu gura dute plana. "Bi fase izango ditu: egungo ana-



Garcia de Kortazar, Carrascal, Martin eta Biain Lazarraga parkean. | O.E.

lisisa eta diagnosia, eta planaren diseinua", zehaztu du Garcia de Kortazarrek.

Plan integrala

Kirol plan honek, baina, kirola bera ez ezik jarduera fisikoa hartuko du kontuan. "Jarduera fisikoa bere osotasunean landuko da plan honetan, egitasmo integrala da zentzu horretan", argitu zuen Oskar Carrascal kirol teknikariak egubakoitzeko prentsurrekoan.

Kirol departamenduarekin ez ezik, udaleko beste hainbat sailekin ere egingo dute lana diagnosia egin eta plana diseinatzeko, hala nola, hirigintza sailarekin edo euskara departamenduarekin, adibidez..

Parte hartzeko deia

Ainhoa Martin kirol zinegotziak azaldu zuenez, plan hau garrantzitsua da udalarentako: "Handia da kiroldegiko bazkide kopurua (4.000 baino gehiago), handia da bestelako instalazioak erabiltzen dituzten herritarren kopurua, handia da bere aldetik kirola egiten duten herritarren kopurua... Beharrezkoa ikusten dugu egoera aztertu eta beharrezkoa ikusten bada, egokitzeke tartea hartzea. Benetan sinesten dugu plan honetan eta herritarren iritziekin egin nahi dugu. Kirola egiten duten herritarrek orain dute aukera esateko zer faltan dagoen, zer ondo edo zer gaizki, eta eskatu gura diet denei parte hartzeko prozesu honetan".

Pedalei ematen jarraituko du Txirrinkak

Bizikleta herriko elementu bat gehiago dela dio eta ekintzak egingo ditu elkarbizitza lantzeko

O.E. | OÑATI

Txirrinkak bizikleta eguneroko bizimoduko elementua izatea du helburu, eta pedalei ematen jarraituko du hori herritarren artean zabaltzeko.

"Gero eta jende gehiagok erabiltzen du bizikleta egunerokoan. Elementu berri bat da bai herriko mugikortasunean baita elkarbizitzan ere, eta hori landu behar dugu orain", azaldu du Txirrinka elkarteak Antton Zubiak.

Horretarako, hainbat ekintza egingo dituztela aurreratu du Zubiak: "Ipuin lehiaketa bat egingo dugu, eskolara bizikletaz joateko deialdia ere bai, sare sozialetan egongo gara eta hitzaldiak eta bideo emanaldiak ere antolatuko ditugu".

Aisialdirako ez ezik eguneroko bizimoduan ere bizikleta erabiltzeko sentsibilizazioa

zabaltu gura du herrian Txirrinkak, eta horretara bideratuko ditu antolatuko dituen ekintzak.

Kanpaina

Horri lotuta, bazkide kanpaina ere jarri du martxan. Martxoko azken zapatuan, esaterako, kontejupean egon ziren hainbat bizikleta, kamiseta eta informazio mahai baten ondoan. "Herritar asko etorri ziren eta pozik gaude", adierazi du Txirrinka elkarteak kideak. Hala ere, bazkide kanpainak aurrer jarraitzen du eta edozein momentutan dago aukera 10 euroren truke Txirrinkari laguntzeko. "Horretarako modu errazena izan daiteke bilera bate-tara etortzea. Hileko lehen astelehenetan elkartzen gara Zubikoa kiroldegian, 19:15ean", zehaztu du Antton Zubiak.



Txirrinkako kideak plazan jarritako informazio mahaietan. | IMANOL SORIANO

NIRE USTEZ

ELIAS ZUMALDE



Entzuteko jarrera

Bai, gure gizartean gero eta entzunger gehiago dagoela iruditzen zait. Sarritan galdetzen diot neure buruari: "eta hemen, nor dago entzuten". Esatea bai, esatea gustatzen zaigu. Beste kontu bat da gauzak nola esaten ditugun; baina, tira, ahalegintzen gara geure iritzia, usteak, asmoak besteari helarazten. Sarri askotan gainera ahotsa altxatuta, altuago hitz eginda ideiak argiago geratzen diren ustean edo. Entzutea belarrietatik doinu batzuk sartzea baino zerbait gehiago da. Jarrera bat da, bestea eta berak esaten duena ulertzeko modu bat. Ondo entzuteak patxada eskatzen du, zabaltasuna, prestasuna.

Entzuteko jarrerak gauza asko errazten dituelakoan nago, gauzak adosteko aukerak zabaltzen ditu, elkarbizitza errazago egiten du, parte-hartzearen edota auzolanaren oinarria da, ikasteko, garatzeko, aukera ematen du... Makina bat errazagoa izango litzateke entzuten asmatuko bagenu!

Bizitzako edozein alorretarako da garrantzitsua entzuteko jarrera izatea. Duela gutxi Espainiako linguista bati entzun nion Espainian hainbeste elebaker (espainolez bakarrik dakitenak) egotearen arrazoi nagusia beste hizkuntzak entzuteko jarrera falta dela. Beste hizkuntza bat entzuteko ahalegina egiten duena, beharbada, ez da iritsiko beste hizkuntza horretan suelto-suelto berba egitera, baina dezente ondo ulertzera bai. Hori gurera ekarrita, euskaraz dakigunok euskaraz ulertzen (entzuten) dutenekin euskaraz egiten dugunean, elkarbizitza, auzolana, parte-hartzea... bultzatzen ari gara.

Auzo konposta hobeto egiteko bilerak egingo dituzte aste honetan ere

O.E. | OÑATI

Auzo konposta egiten dutenekin bilerak egingo dituzte aste honetan ere. Kudeaketa hobetzeko bilerak izango dira.

Hala, bihar, martitzena, auzo konposta Zubibarri, eta Bidebarrieta guneeetan egiten duten herritarrekin elkartuko dira udal ordezkariak eta informazio bule-

goetako langileak. Lehen gunean 18:00etan hasiko da bilera eta bigarrenetan, 19:00etan. Eguazteenan, berriz, Errekalden egingo dute, 18:00etan.

Bestalde, auzo konpostan parte hartzeko izena eman baina itxaron zerrendan dauden herritarrei asmoa berrestu gura duten galdetuko die udalak.

Oñatin bizi diren aretxabaletarrek bazkaria egingo dute

Oñatin bizi diren aretxabaletarrek bazkaria egingo dute maiatzaren 10ean. Herriko jatetxe batean izango da eta tokia hartzeko, komeni da lehenbailehen apuntatzera. Apirilak 25 da azken eguna horretarako. Izena emateko bideak dira: Miren: 648 19 10 37 edo Rosa: 678 21 59 48.

Leintz bailaran bizi diren oñatiarrak

Leintz bailaran bizi diren oñatiarrak elkartu eta afaria egin dute. 50 bat lagun elkartu ziren guztira. Arrasateko elkarte batean egin zuten bazkaria eta hurrengo urterako data ere jarri zuten. Orduan, baina, jatetxe batean elkartuko dira, bazkaltzeko.



JUAN CARLOS PASCUAL

ESKORIATZA

Protesta ekintzak deitu ditu Eskoriatza Garbiak

Organikoarendako saskiak balkoietan zintzilikatzeko dei egin dute

J. BEREZIARTUA/M. ALTUBE | ESKORIATZA Eskoriatza Garbiak deituta batzar irekia egin zuten joan den egue- nean, Ibarraundi museoan. Atzo abian jarritako atez ateko hondakin bilketa sistemaren aurka antolatu dituzten protesta ekintzen berri eman zuten bertan. Iragarri zuten eguean, apirilak 10, egingo duten osoko bilkurara joango direla. Era berean, hondakin organikoarendako banatutako saski marroiak balkoietan jartzera deitu zieten eskoriatzarrei.

Osoko bilkurara joateko deia

Herritarren ekarpenak jaso eta datozen egunotarako antolatu dituzten protesta ekintzen berri ematea zuen helburu Eskoriatza Garbia plataformak egindako bilerak. Eta hainbat herritar elkartu ziren deialdiarekin bat eginda.

Atez ateko bilketa indarrean jartzen den eguean bertan, atzo hain zuzen, hastekoak ziren protesta horiek saski marroiak balkoietan zintzilikatuta. Horrez



Eskoriatza Garbiak deitutako bileran elkartutako herritarrak. | JOKIN BEREZIARTUA

gain, eguean, apirilak 10, egingo den osoko bilkurara agertzeko deia egin diete herritarrei. Bilkura horretan otsail amaieran egindako herri kontsultaren notario-akta helaraziko diote alkateari.

Eskoriatza Garbiakoek "ozen" esan gura dute atez atekoaren aurka daudela, diotenez Udalak "euren iritzia aintzat hartu arte". Era berean, protestak bateratua izan behar duela aipatu zuten batzarrean, behin eta berri.

ARETXABALETA



Egungo zinegotzi batzuk eta aurreko agintaldietako hainbat elkarrekin, ikurrinaren aldeko agerraldian. | M.A.

"Geurea ikurrina" dela aldarrikatu dute

Hogei zinegotzitik gora elkartu ziren ikurrinaren alde egindako agerraldian

M.A. | ARETXABALETA

Hainbat alderditako hogei zinegotzitik gora elkartu ziren egue- nean, udaletxeko atarian, Espainiako banderaren "inposaketa" salatu eta "geurea" ikurrina dela aldarrikatzeko. Ana Bolinaga alkatea buru zutela egin zuten agerraldia.

Espainiako Gobernuaren ordezkariak egindako errekerimenduak eta 696/2013 epaiak behartu du Udala apirilaren 14ra- ko bandera espainola udaletxeko balkoian zintzilik izatera. Askok ahaztuta dute azkeneko noiz izan zen hori udaletxean, eta

beste batzuek gogoratu ere ez dute egiten. "Nire akorduan behintzat ez dago", zioen Anjel Bergaretxe alkate ohiak. Eskuarrean ikurrinak hartuta salatu zuten "inposaketa" hori: "Inposatzen zaigun banderak ez du sekula herri hau ordezkatu, ez lehen eta ez orain".

Plazako ikurrina aldatu

Banderak eta koloreak ez dituztela gutxiesten gaineratu zuten, esanaz ordezkatzeko dituzten lurraldeetako ikur izatea zilegi delako. Baina argi utzi zuten aretxabaletarren "gehiengoa" ikurrinak

ordezkatzeko duela eta horregatik "merezki duen presentzia" eman gura diotela. Hala, Herriko Plazako mastan dagoen ikurrina berri bategatik ordezkatzeko dute: "Era berean, inposaketaren salaketaren adierazpena jarriko dugu plaka baten bitartez".

Etxeko balkoi eta leihoetatik ikurrinak zintzilikatzera gonbidatu zituzten herritarrak, eta horiek dagoeneko hasi dira jartzen -Arkupen salgai dituzte-. Eta egubakoitzean, hilak 11, Herriko Plazan (18:30) egingo duten omenaldi ekitaldira hurbiltzeko ere dei egin zuten.

'Herria elkartuz' ekimenerako haurren abesbatza sortu gura dute Eskoriatzan

M.A. | ESKORIATZA

Herria elkartuz izeneko ikuskizuna gertatzen dabil eskoriatzar talde bat datozen San Pedro jaietarako. Herriko hainbat eragilek bat egin dute eta elkarlanean gertatutako ikuskizuna izango da.

Horren harira, Arizmendi Ikastolako Almen guneko eta Luis Ezeiza eskolako guraso batzuek abesti bat sortu dute bi ikastetxeetako haurrek elka-

rrekin abesteko. Eta asmoa da 7 eta 14 urte bitarteko haurrez osatutako taldeak abestea hori. Horretarako, abesbatza osatu gura dute, eta lehenengo bilera bihar, martitzena, izango da, 20:00etan, pilotalekuko dantza lokalean. Orduan adostuko dituzte entsegu egunak eta orduak. Era berean, gurasoei dei egin diete seme-alabak anima ditzaten abesbatza horretan parte hartzera.

OHARRAK

IPUIN KONTAKETA ETZI

Dorleta Kortazarrek ipuinak kontatuko dizkie umeei eguztenean, liburutegian (18:00).

HITZALDIA EGUAZTENEAN

Arantzazu Loidik *Vivir constructivamente lo que hace sufrir, lo que crea problemas* izeneko

berbaldia eskainiko du eguztenean, kultur etxean (18:00).

HONDAKINEN BULEGOA

Hondakinen informazio bulegoa jarriko dute Ibarraundin. Astelehenetik eguean, goizez eta arratsalde egongo da zabalik, eta egubakoitzean, goizez.

ARETXABALETA

NIRE USTEZ

BEÑAT ZAMALLOA



Egubakoitza, kasu

Goizean goiz hasiko gara martxan egubakoitzean, bederatzi eta erdietan Kurtzebarri eskolan egingo dugun emanaldiaren azkenak prestatzeko. Eskolak elkarlana proposatu zigan, egubakoitzean Euskararen Eguna ospatu behar zutela eta. Eta guk pozez heldu genion, beti hala koetarako gogotsu. Beren beregi prestatutako emanaldi berezian, bertso-eskolako gazteok, gazteek eta helduen taldeko Martin Berrizbeitiak, eta Ane Zuazubiskar, Xabi Igoa eta Madi Sarasua bertsolari gazteek kantatuko dute. Eta parean dituztenak ere jarriko dituzte kantuan. Hamaiketan bukatuko dugula baliatuta eta orduak

inspiratuta, hamaiketakoarekin borobilduko dugu jarduna.

Arratsaldean goiz hasiko gara martxan, Debagoieneko Bertso-eskolen Eguna ospatuko dugulako. Merienda prestatuko diegu Debagoienetik etorritako eta bertako bertso-eskolako gazteok, eta adi entzungo ditugu. Bertso meriendan, elkar ezagututa elkarren bertsoekin gozoago egingo dute merienda. Ikurrinaren aldeko ekitaldian ere parte hartzekoak gara. Ilunkaran, gazteak eta helduak etorriko dira bailarako herrietatik, eta gure festa hasiko da: jinkana tabernaz taberna, afaria eta letorkeena. Bertso festa goizean goiz arte luzatuko dugu.

Egubakoitza, irailatik eten barik loratuz dabilen Lekaixoka bertso-eskolaren adibide da. Adibide eta ondorio: elkarlana, festa, gogo, ahalegina, zaletasuna, irekia, adinen arteko harremana... Eskoletatik eta kalera, kaletik eta eskolara, edonorentzat zabalik den lagunartea, eten barik loratuz eta *haziz*.

Aretxabaleako Gure Esku Dago lantaldeak bilera du gaur

Aretxabaleako Gure Esku Dago taldea hasi da lanean. Lehenengo bilera joan den eguean egin zuten eta gaur, astelehena, bigarrena izango dute. Udaletxe zaharreko lokal sozialean elkartuko dira, 18:30ean. Gure Esku Dago ekimenarekin bat egiten duten herritarrei zabalik dago lantalde hori.

Makil Dantza Eguna egingo dute bihar Leizarrako dantzariak

Leizarra musika eskolak antolatuta Makil Dantza Eguna egingo dute lehenengo gurean, bihar. Makilekin dantzatzeko diren dantzen erakustaldia izango da eta Leizarrako dantzako ikasle guztiek hartuko dute parte, bost urte dituzten umeen taldeetatik hasi eta helduen taldeetaraino. Ekitaldia plazan da, 18:30ean.



Ramon Ajuria alkatea eta Artemaneko Iker Barandiaran udaletxean, akordioa sinatu berri. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Artemanek zuzenduko du biomasa proiektuaren sentsibilizazio kanpaina

Aste Santu ostean hasiko dira etxez etxe triptikoak banatzen oinarritzko informazioarekin; hitzaldiak, erakusketa eta bideo bat ere prestatuko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Biomasaren proiektua aramaioarrei gerturatu, ahalik eta informazio gehien zehaztasun eman eta euren inplikazioa sustatu. Horiek dira Aste Santu ostean hasiko den sentsibilizazio kanpainaren helburu nagusiak. Arteman komunikazio enpresak gidatuko du kanpaina, Udalarekin apirilaren 3an hitzartu zuten: "Herriarrei beharrezko azalpen guztiak emateko eta euren inplikazioa bilatzeko komunikazio enpresa profesional batengana jotzea erabaki genuen, gu ez ginatekeelako gai izango hori behar den moduan egiteko", adierazi zuen Ramon Ajuria alkateak akordioa sinatu berri.

Herritarren inplikazioa "beharrezkoa" dela nabarmendu zuen Ajuriak: "Kalean, Ibarren, 900 biztanle inguru bizi dira eta horiek guztiak parte hartu beharko lukete, onuragarria da eta denondako". Honakoa ere gaineratu zuen: "Ekonomikoki, sozialki zein ingurumen aldetik oso garrantzitsua izango da herritarrendako".

Biomasa batzordea, ados

Udalak ilusio handia du proiektuarekin baina aurrera egin dezan ezinbestekoa izango herritarren inplikazioa. Martxo erdialdean

eratu zen biomasa batzordeak ere onspena eman zion sentsibilizazio kanpainari. Triptiko batzuk banatuko dituzte etxez etxe, oinarritzko informazioa emateko: "Proiektua zertan datzan, ze onura izango dituen eta ekin-tza plana iragarriko dugu triptiko horietan", adierazi zuen Artemaneko Iker Barandiaranek.

Aurrerago, maiatza amaieran, erakusketa bat jarriko dute Sastiñan: "Erakusketa horretan informazio sakonagoa emango dugu eta horrekin lotuta hainbat hitzaldi antolatuko ditugu, auzuneka edo taldeka banatuta, herritar guztiengana heltzeko. Hitzaldi horiek teknikoak eta informatiboak izango dira. Gainera, ikus-entzunekeko labur bat ere egingo dugu". Arteman ere "ilusio handia" dago erronkarekin, Barandiaranek adierazi zuenez: "Udala ahalegin guztia egiten ari da proiektu aitzindari bat garatzeko eta hori horrela izateak lana erraztuko digu. Hori bai, erronka izango da guretauko auzo guztiarentzat".

ESANAK

"Onuragarria da denondako; herritar guztiak parte hartu beharko lukete"

RAMON AJURIA | ALKATEA

"Udala ahalegin guztia egiten ari da proiektu aitzindari bat garatzeko"

IKER BARANDIARAN | ARTEMAN

ANTZUOLA

Aberri Egunaren gaineko mozioa ezohiko batzarrean, egubakoitzean

Antzuolako Udal Gobernuak herritarrak deitu ditu osoko bilkuren aretora joan daitezzen

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aberri Egunaren gaineko mozioa aztertzeko, ezohiko udal batzarra deitu du Antzuolako Udal Gobernuak apirilaren 11rako –egubakoitzean, 18:00etan–. *Euskal Herri-tarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu* lelopean, mozioa den adostasunez onartzea gura dute. Udal Gobernuak herritarrak ere

deitu ditu osoko bilkuren aretora joan daitezzen.

'Gazta zati bat' eta Iran

Gazta zati bat dokumentala eman-gura du gaur –astelehena, 19:00etan–, Olaranen, Gure Esku Dagok. Bestalde, *Antzuolarrak munduan zehar* ekimenaren barruan, egunean, Iñaki Legorburuk azaldu-

ko du Iranen egindako bidaiari: "Nolabait erakutsi nahi dut Irani buruz zer kontatzen diguten gaur egunean prentsan eta telebistan, eta guk 25 egunean zer ikusi dugun: erlijioa, historia, jendea...". 18:30ean izango da, Olaranen. Blogean ere baditu egindako bidaietako argazkiak: www.akaki08.blogspot.com.

Landatxopetako

Landatxo elkarteak Juanita Zabalok eta Pilar Agirrezabalak Debagoieneko Puntu Txapelketa irabazi dute. Apirilaren 10ean Legazpin jokatu dute bigarren kanporaketa, Donostiako finale-rako txartela ematen duena.

ELGETA

Adimena zorrozteko ipuinak kontatuko ditu Amaia Arriaranek

Hilaren 11ko saiora, 14-99 urte bitarteko elgetarrak gonbidatu dituzte udal liburutegitik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Liburuaren Eguna dela eta hainbat proposamen luzatu dituzte Elgetako udal liburutegitik. Barikuan ume kopuru polita izan zen 3-8 urte bitarteko umeendako ipuin kontalari saio berezia. Ipuinak entzuteaz gain etxean egiteko eskulan polita jaso zuten opari Elgetako neska-mutikoei. Liburuak ere zozketatu zituzten ipuinak entzutea gerturatu zirenen artean.

Apur bat nagusiagoendako —14 urtetik gorakoak— adimena zorrozteko ipuinak agindu ditu Amaia Arriaran ipuin kontalariak, hilaren 11rako, barikua. Kontalaria 22:00etan elkartuko da entzuleekin liburutegian bertan, eta sarrera libre izango da.

Itzal-txotxongilo tailerra

Aste Santuko oporrak gain gainean ditugu, eta liburutegiak animazio ekintza bereziak eskainiko ditu hasierako egunetan. Eñaut Gorbeak hilaren 15ean egingo duen itzal-txotxongiloen tailerrak jakinmina sortu du. Jakin zabalik dagoela oraindik ere izena emateko epea. Bihar, martitzena da azken eguna. Sortzen diren taldeen arabera finkatuko dituzte tailerraren ordutegiak, beti ere arratsaldean izango delarik.

Gogoan izan, bestetik, udal liburuzainak kalera aterako dituela liburuak eguaztenean, hilak 16. Liburutegira iritsitako azken nobedadeak erakutsiko ditu, eta aurreratu duenez opariak ere egingo ditu.

Gure Esku Dago lantaldea martxan jartzeko lehen bilera deitu dute zapaturako: 12:00etan Ozkarbin

Eguenean egin zuten Gure Esku Dago dinamikaren aurkezpena Espaloian. Oñatiko eta Antzuolako lantaldeetako kideak etorri ziren ekimenaren nondik norakoak azaltzera, eta hogeita lagun inguru batu ziren haiei entzutea. Azalpenen ondoren, horietako hainbatek konpromisoa hartu zuten ekimena herrian abiarazteko. Honela, lehenengo bilerarako hitzordua ere egin zuten: zapatuan, hilak 12, 12:00etan Ozkarbi elkartearen. Erabakitze eskubidearen aldeko lanean jarduteko gertu dagoen oro dago gonbidatuta taldean parte hartzera.

LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako eta ur-sareko obrak, laster

Bi proiektu horiek egiten hasteko, bakoitzaren aurrekontua lantzen dihardute udaletxean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketa inguruan Udalak egin gura dituen berrikuntza lanak egiten hasteko aurrekontua lantzen dihardute Udalean. Izan ere, eta Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartearen diru laguntza dela eta, aurrekontua zehaztu eta onartu ostean, hasteko moduan egongo dira obra horiek. Hain justu ere, Eugenio Otsoa alkateak iragarritakoaren arabera, eguraldia apurtxo bat egonkortu bezain laster hasi gura dituzte.

Wi fia eta ziburu-zaburuak jarri gura dituzte Gaztainuzketan. Eta, obra aprobetxatuz, mendiko laginak hartu gura dituzte, ibilbide txikitxo batzuk egokitze. "Arlaban erreka hor dagoela aprobetxatuta, Aizkorri-Aratzeko proiektuaren

moduan, pago motzak, arruntak, haritzak, sendabellarak, perretxikoak... erakusteko ibilbidea. Baita inguruan dagoen karobi bat ere. Hori guztia seinaleak eta ipinita" (*Goiena* papera, 2014/02/28).

Arlabango ur-sarea handitu

Bestalde, Gatzagako Udalak ur-sarea handitu gura du. Izan ere, Arlabanen ur-biltegi bat eginda dago, eta bertara eramanda erdiguneko ur-hodiak, bada, asma da ur-sare hori handitzea, ur-zerbitzua bera handitzeko.

Kasu horretan ere badute diru laguntza lanok egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiarena, hain justu. Horrenbestez, Udalean aurrekontua zehaztu, eta ahal bezain laster hasiko dira obra hori egiten.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobeztatu abantailak. Abantailak ikusteko: goienakluba.com

ALZU

ALZU, S.L Ehiza eta arrantza
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati
Arropetan %10eko beherapena.

ARGIA

ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).

ARRIKRUTZ

oñatiko obak

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

caravanas Oñate

CARAVANAS OÑATE
Galdaragintza. Bizikletak
Otaui Zuhaitzia, 25 | Oñati
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

ARRASATE AVIA

ESTACION SERVICIO ARRASATE
Gasolindegia
San Andres 7 | Arrasate
%2ko gasolindegian erregaia erosita.
%2ko dendako produktuetan.

eureka! zientzia museoa

EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia
Mikeletegi 43-45 | Donostia
Sarrera bat erosita eta kupoi+ Goiena Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.

GAES

Centros Auditivos
Entzumen zentruak

GAES Entzumen zentroa
Otalora 18 | Arrasate
Zurradero 10 | Bergara
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)

gahir fisioterapia osteopatia

GAHIR Fisioterapia / Osteopatia
Aranburuzabala 6 behe | Eskoriatza
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.

GUZTIZ EDER

GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeetan.

kuttuna ESTETIKA ZENTROA

KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behe | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).

lastai

LASTAI
Koltxoak eta umeentzako artikulua
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.
%5eko deskontua haur kotxe eta automobileko segurtasun - aukietan.
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aukietarako denboraldiko ehun-gaietan.
%10eko deskontua denboraldiko haur-arropan. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

MAGDALENA GASOLINDEGIA

MAGDALENA Gasolindegia
Santxolopetegi auzoa | Oñati
%2ko deskontua gasolindegian erregaia erosita.

MULTIÓPTICAS

lehen zerbitzu optikoetan

MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behe | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan)..

NAREN

NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behe | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).

NINIKA LORADENDA

NINIKA Loradenda
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara
%10eko deskontua artikuluguztietan.

OÑATI GARAJEA

OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.

TXURI-URDIN

TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
%20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).
%10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean. **Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05 | kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba

Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

Bolada txarra eta jaitsieraren mamua ahazteko hiru puntu Antzuolarendako

- ▶ Azkenera arte izerditu behar izan zuten Juanina Garairen mutilek garaipena eskuratzeko
- ▶ Imanol Arantzabalek egin zuen partiduko gol bakarra; Touringek maila ona erakutsi zuen

EMAITZA

ANTZUOLA

1-0

TOURING

FITXA TEKNIKOA

Antzuola: Iturbe, Asensio, Lete, Longares, Agirre, Arana, Ibabe (Godoi, 59. min), Arantzabal (Zabalo, 87. min), Agirre (Larrea, 84. min), Aranbarri eta Linazisoro.

Touring: Salinas, Arake (Etxebeste, 83. min), Altuna, Fernandez, Vinolas, Jimenez (Hernandez, 83. min), Nagore, Gomez (Arrillaga, 87. min), Garmendia, Arruti (Egimendia, 76. min) eta Maritzalar (Tarragona, 61. min).



Julen Aranbarri Antzuolako erdilaria baloia buruz lehiatzen; zapatuan lan ederra egin zuen jokalarri arrasatearrak, defentsan batez ere. | IMANOL SORIANO

JOKIN BEREZIARTUA | ANTZUOLA

Antzuola heldu da 40 puntuen langara eta beraz, izugarri aldrebestu beharko dira gauzak taldea Ohorezko Erregional Mailatik jaisteko. Gainera, zapatuan lortutako garaipen justuarekin maila mantentzeko ia azken urratsa emateaz gain, azken bolada txarrarekin amaitu zuten Juanina Garairen mutilek. Ez zuten erraz irabazi, baina gehiago egin zuten hiru puntuak eskuratzeko.

Touringek, sailkapeneko beheko postuetan egon arren, maila ona erakutsi zuen eta azken minutura arte borrokatu zuen Oreretara gutxienez puntu bat eramateko. Izan zituzten aukerak berdinketa lortzeko, baina ez zuten asmatu.

Futbola, 'Eztala erara'

Bi taldeak hiru puntuen bila irten ziren eta hasieratik ikusi zen zapatuan asko zegoela jokoan Eztala futbol zelaian. Eztalara doan badaki ze futbol mota aurkituko duen: jokaldi landu, luze eta politak beharrez, geldidune askoko eta kontaktu handiko jokoa. Bada, zapatuko ez zen salbuespena izan. Balo jabetza inorena izan barik hasi zen

partidua eta golaren aurretik heldu ziren aukeren artean Julen Aranbarri erdilariaren jaurtiketa nabarmendu behar da; bitan pentsatu barik jaurti zuen, ederto, baina atezainari.

Gola 35. minutuan heldu zen; Jon Iturbe atezainak azkar atera, Mikel Ibabek buruz lehiatu eta baloia Imanol Arantzabali erori zitzaion, bakarrik, atezainaren aurrean. Baloia ondo kontrolatu

eta ederto gurutzatu zuen aurrelari arrasatearrak partiduko gol bakarra egiteko. Handik gutxira antzeko aukera bat izan zuen Arantzabalek baina ez zen baloia erabiltzeko sinistuta sartu, eta ez zuen gola egiterik izan.

Bigarren zatia nahiko makal hasi zen, baina minutuek aurrera egin ahala Touring estutzen hasi zen. Mikel Ibabek aukera ona izan zuen bosgarren minu-

tuan, baina hegaleko sake batetik eratorritako baloia buruz errematatu eta kanpora joan zen gutxiatik. Handik gutxira aukera ederra izan zuen Touringeko Urtzi Arruti aurrelariak; erdiraketa baten ostean bakarrik geratu zen bigarren zutoinean baina jaurtiketari erantzun ederra eman zion Jon Iturbe atezainak. Jokalari berberak izan zuen kanpokoan aukerarik garbiena 20. minutuan;

birritan jaurti baina ez zuen asmatu. Barkatu egin zuen Arrutik, argi eta garbi. 33. minutuan gol bat baliogabetu zioten Oinatz Agirrerri jokoz kanpo zegoelako; azken txanpan Touringek beste aukera on bat izan zuen.

Oreretakoek halabeharrez baina ideia garbirik barik egin zituzten azken saiakerak baina ez zuten berdintzerik lortu, antzuolaren lasaitasunerako.

IMANOL ARANTZABAL | ANTZUOLAKO JOKALARIA

"Sufrituta irabazi dugu, eta eskerrak"

Lehiaren amaieran garaipen "sufritua" izan zela zioen partiduko gol bakarra egin zuen aurrelari arrasatearrak.

Ez daga raipenerraza izan, edo?

Ez, sufritu egin dugu irabazteko. Eskerrak garaipen honi, bolada txar bati buelta emateko aukera eman digulako. Aurkariak zail jarri digu partidua, nahiz eta beheko postuetan egon.



J.B.

Pozik gola egin izanagatik, ezta?

Bai, baina hori gutxienezkoa da. Taldearendako garaipena da garrantzitsua.

Nolako partidua izan da barrutik?

Jokatzeke ez da partidua polita izan. Goitik joan dira baloi gehienak eta aldaratzeak izan dira protagonista. Touringek badu taldea; gaur ikusi dudana ez da jaistea merezi duen taldea.

UDA eta Aloña garaile, Bergarak galdu

UDAK, Aloña Mendik eta Bergarak kanpoan jokatu zuten atzo, Vasconia, Getariako Keta eta Tolosaren aurka, hurrenez hurren. Aretxabaletarrek eta oñatiarrek hiru puntuak ekarri zituzten. UDAK 1-3 irabazi zuen eta honezkeroko bigarren dira, 54 punturekin; Berio, liderra, zortzi puntura dute baina bigarren amaitzeko aukera handiak dituzte Gorka Valleren mutilek. Aloñak 0-1 irabazi zuen Getarian eta bosgarrenak dira sailkapenean. Bergarak, ordea, 1-0 galdu zuen Tolosan eta jaitsiera postuetan ez amaitzeko borrokatu beharko dute oraindik Aitor Arrateren mutilek.

Mondrak 3-0 galdu zuen Deban

Bestalde, Erregional Preferente mailan dagoen Mondrak 3-0 galdu zuen atzo Amaikak Bat taldearen kontra. Gotzon Urzelairen mutilek ez zuten ezer egiterik izan Debako taldearen aurrean eta Ohorezko Erregional Mailara igotzeko lehia geroago eta urrutia dute; liderra den Ordizia zortzi puntura dute dagoeneko.



Mikel Arexolaleiba kontraerasoan. | IMANOL SORIANO

JOSU LARREATEGI
MU-KO ENTRENATZAILEA

"Gaurkoan
galtzea merezi
genuen; gaizki
jokatu dugu"

**Kostata, bai-
na garaipena
etxean.**

Partidu oso
arraroa izan
da. Zortzi

jokalarirekin etorri dira La Peñakoak, barruko jokalariek min hartuta zituztelako. Euren jokatzeko era anarkikoak min handia egin digu eta hasieratik arazo asko izan ditugu. Defendatzeko deserosoa da. **Gainera erasoan ez da izan zuen egunik onena.**

Ez, nahiko baldar ibili gara gaur. Hiruko marrik nahiko fin ibili gara, baina barruko jokoa ez dugu menperatu. Eurak txikiak ziren arren, min handia egin digute taula azpian; eta azken segundotan erabaki da partidua.

Gainera zonan defendatu dute partidu osoa.

Bai, minutu gehienak zonan defenditu dute. Hala ere, jaurtiketa erraz asko izan ditugu baina zalantza izan ditugu. Pase txar askotxo egin ditugu eta konfiantza galdu dugu. Horrek azkenean arazoak sortzen ditu.

LEHEN NAZIONAL MAILA

Partidu txarra jokatuta irabazi zuen MUK (72-68)

Azken minutura arte sufritu zuten etxeok garaipena lortzeko

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Zapatu arratsaldean Iturripen kantxaratu zen taldea eta aurtengo denboraldiko MUK ez ziruditen talde bera. Noraezean ibili ziren, eta 72-68 irabazi arren, Larreategiren mutilek azken minutura arte sufritzen izan zituzten Iturripenko ikusleak. Parean La Peña, sailkapeneko azken postuetan dagoen taldea; hala ere, bilbotarren jokatzeko moduak min handia egin zien arrasatearrei.

Larreategik norgehiagoka hasi aurretik, argi eta garbi utzi zien jokalariei partidua lehenengo minutuetan apurtu ezean, bukaerara arte sufriruko zutela, eta hala izan zen. Izan ere, La

Peña talde anarkikoa da, ez dituzte sistema askorik erabiltzen eta jokalariek buruz-buruko jokaldi asko egiten dituzte.

Ahazteko minutuak

Markagailua 0-0ean mantendu zen bost minutuz eta jokoa oso eroa izan zen. Etxekoak hiruko marrik saiatu ziren, baina barruan ez zuten beste batzuetan erakutsitako konfiantza agertu eta atsedenaldira markagailuan aurretik joan arren (30-24), sentsazioak ez ziren batere onak.

Hirugarren laurdenaren hasieran taldeak bere jokoa egin behar zuela zirudien arren, ez zen horrela izan. Zonakako defentsa erabili zuten partidu osoan zehar

La Peñakoak. Etxekoak erasoan ez zuten asmatu eta defentsan oso ahul ibilita 11-25eko partziala jaso zuten hirugarren laurdenean. Azken hamar minutuak biziak izan ziren; hamar puntuz galtzen joan ostean, azkenengo minutuan irabazi zuten norgehiagoka defentsari eta Kintanaren jaurtiketa libreei esker.

SENIOR BIGARREN MAILA

Arrasatearrek irabazi zuten Zubikoako derbia (43-57)

Zapatuan Zubikoa kiroldegian oñatiar eta arrasatearren arteko jokatutako derbian, zerrajeroak nagusitu egin ziren. Hasieratik aurre hartu zuten markagailuan, eta azken laurdenean etxeok hiruko jaurtiketekin markagailuan gerturatzea lortu zuten arren, ez zen nahikoa izan eta garaipena Arrasatera joan zen.



IMANOL SORIANO



I.S.

MAILA AUTONOMIKOA

Partidu serioa eginda, 83-73 irabazi zuten Natrak

Garaipenari esker, denboraldia balantze positiboarekin amaituko dute oñatiarrek

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Domeka goizean jokatzek dakerrenarekin eta baja dezente izan arren, norgehiagoka serioa jokatu zuten atzo oñatiarrek Astigarragako Mundarro La Salle taldearen aurka.

Taldeko zortzi jokalarik eta jubenetako hiruk jokatu zuten atzo. Hasieran lo kantxaratu arren, 0-6ko partzialarekin hasi zen partidua, pixkanaka erritmoa hartu zuten etxeok eta lehen laurdena aurretik amaitu zuten (22-19). Erritmo biziko laurdena izan zen eta bi taldeak defentsan baino, erasoan fin ibili ziren. Saskiratze errazak egin zituzten biek, hala ere, bigarren laurdenean atzean estutu zuten eta puntu gutxiago lortu zituzten. Atsedenaldira puntu bat azpitik joan ziren etxeok (33-34).

Amaherara arte borrokan

Lehenengo zatian, Asier De La Iglesia min handia egin zuen taula azpian. Aldagelatik bueltan, baina, La Sallekoek defentsa gogorragoa egin zioten pibotari. Hala ere, etxeok kanpotik jokatzeari ekin zioten eta bederatzik puntuko aldea lortu zuten markagailuan, joko ona erakutsiz.

Azkenengo hamar minutuak, hamahiru puntuko aldea lortu ostean, lasaiak izango zirela zirudien arren, hiru eraso txar egin ostean La Sallekoak berriz ere gerturatu ziren. Azken hiru minutuetan erabaki zen partidua eta, nahiz eta La Sallekoek kantxa osoan estutu, oñatiarrek jaurtiketa libreak ondo aprobetxatu zituzten.

Garaipenari esker, Natrako mutilek denboraldi amaiera lasaia izango dute.



Asier De La Iglesia lasaitasuna eskatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Norgehiagoka irabazteko aukerak izan arren, Eskoriatzakoek 43-36 galdu zuten Oiarsoaren aurka

Lehenengo lau onenen artean sartzeko azken aukera galdu zuten Eskoriatzako neskek zapatuan Oreretan. Lehenengo hiru laurdenetan markagailuan aurretik joan ziren arren, azken hamar minutuetan presaka jokatu zuten eta erabaki txarrak hartu zituzten. Azken laurdenean 14-7ko partziala jaso zuten eskoriatzakoak eta horrek partidua erabakita utzi zuten.

SENIOR BIGARREN MAILA

Intxaurrondotik garaipena ekarri zuten bergarrek, bertako Internacional taldeari 50-58 irabazita

Donostiako Internacional taldearen aurka garaipena lortu zuten zapatuan Soralue Bergarako mutilek. Intxaurrondoko Mons kiroldegian 50-58 irabazi zuten; horrela sailkapenean Aloña gaintuz. Bergarrek hamargarren postura egin dute salto eta datorren astean Aloñaren aurka jokatuko dute etxean. Derbya irabaziz gero, sailkapenean gora egin eta oñatiarrek puntu aldea handitzeko aukera bikaina izango dute.

ERRENDIMENDUZKO GAZTEAK

Easo 97 Ezpala taldearen aurka galdu zuten Mondragon Unibertsitateko junior taldeak etxean

Easo 97 Ezpala taldea Arrasatera etorri zen zapatuan, eta norgehiagoka 42-56 irabazita, bi puntuak eurekin eraman zituzten Donostia aldera. Porrot horren ostean, taldeko sailkapeneko azken postuan daude arrasatearrek; bederatzik partidu jokatu dituzte eta bi irabazi dituzte. Datorren astean, azkenengo partidua jokatuko dute laugarren sailkatuaren aurka, Tolosako Take saskibalo taldearen aurka.



Aloñako jokalaria jaurtiketa egitera. | IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Ondo lehiatu baina galdu Aloñak igoera faseko lehena

Uneoro aurretik, 23 eta 28 irabazi zuen Zubikoan Irungo Gaztiak taldeak

JULEN IRIONDO | OÑATI

Ligan ere lehena eta igoera fasean nagusitzeko favorito, irundarrek min handia egin zioten Izarraitz Aloña Mendiri pibotearekin lehen minutuetan, eta zazpi goleko zuloa egin zuten 4 eta 11koarekin.

Denbora askoan golik egin gabe egon eta gero, gerturatu

ziren apur bat oñatiarrak, baina, oro har, zailtasunak izan zituzten jaurtiketa erasoak lortzeko.

Atsedendian 8 eta 13 atzetik, bigarren zatiari indartsu ekin zioten etxekoek; bizi jokatu, gol bakarrera gerturatu ziren: 13 eta 14. Urduri jartzen hasiak ziren kanpokoak, eta bi jokalaria gutxia-

gorekin zirela Aitor Billarren barneraldi baten epaileek faltarik adierazi ez eta min hartu zuen gainera oñatiarrak. Eten egin zen etxekoen erreakzioa. Axier Urrutiak -8 gol- hartu zuen orduan erantzukizuna, baina Aloñak, 19 eta 21 ere gerturatu arren, ezin izan zuen irabazi.

RAFA ZULUETA
ENTRENATZAILEA

"Dena emanaz gero, ez da arazoa galtzea, besteak hobeak baldin badira"

Pozik zegoen taldearekin.

Partiduarekin gustura?

Bai, oso.

Bagenekien oso partidu zaila zela; eta, gainera, jendearen-dako lehenengo aldi zen horrelako fase batean. Nik eskatu diet jokalariei nerbioak etxean uzteko eta disfrutatzeko. Dena emanaz gero ez dago arazorik galduta, besteak hobeak izan badira; eta atzo hori gertatu zen.

Porrot honek aldatzen al ditu zuen planteamendua eta espektatibak igoera fasera begira?

Ez, ez. Irundarrek ez dut uste partidurik galduko duenik lehen fase honetan. Aurrez kalkuluak egiten hasiz gero, partidu hau galdutzat ematekoa zen.

Orain, Deustuko Unibertsitatea?

Irundarrak kenduta, beste talde guztiak antzerakoak garelakoan nago.



ESKUBALOIA

Ford Mugarrik 25 eta 34 irabazi Egiaren kiroldegian

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Sailkapenean nahikoa pareko ziren bi taldeak neurketa hasi baino lehen, eta partiduaren zati handienean ere ez zen gehiegizko alderik nabaritu batzuen eta besteen artean.

Alde politak hartzen zituzten tarteka arrasatearrek, baina berriz ere hurbiltzen ziren Egiakoak. Ford Mugarrik pazientziaritu zen erasoan, baloia mugituz zuloak aurkitu arte. Bospasei jokalarik lauzpabost gol sartu zituztela eta, pozik zen partidu amaieran Pablo Gartzia entrena-tzailea.

Atsedendian 15 eta 16 zegoen partidua, eta 23 eta 24 ere izan ziren, baina bigarren zatian barrena defentsa are gehiago doitu eta orduan lortu zuen Ford Mugarrik markagailuan zuloa egitea.

Datorren astean Romorekin etxean bukatuko dute liga. Bizkaitarrak azken postua saihesteko lehiari ari dira.

Soraluce BKEk galdu

Bergararrek gol bategatik, 27 eta 28, galdu zuten Erandioren kontra Labegarietan.



PILOTA

IMANOL SORIANO

Bat irabazi, bestea galdu

Udaberri txapelketako lehen jardunaldia jokatu dute asteburuan, besteak beste, Arrasateko pilotariek. Alebinetan ezin izan zuten Goierriko ordezkariak. Elkorobarrutiak eta Iraolak 18 eta 3 galdu zuten. Senior mailan, berriz, lau koadro eta erdian buruz buru jokatu zuen Aitzol Lazkanok, eta honek bai, irabazi egin zion Goierriko ordezkariari. 22 eta 19 amaitu zen partidua.

ERRUGBIA

Uribealdearen kontra 15 eta 39 Arrasatek

Galdu egin zuten etxean Igor Isasiren mutilek, bere garaian atzeratutako partidua. Lehia osoan atzetik joan ziren etxekoak. Dolarak eta Iñigok egin zituzten ARTren entseguak. Hau jokatuta, partidu bakarra falta dute.



IMANOL SORIANO



SPINNING

IMANOL SORIANO

Dantzalekuko musikarekin kiroldegian

120 lagunek hartu zuten parte zapatu arratsaldean Oñatiko Zubikoa kiroldegian egindako spinning maratoian. Hiru orduz -40 minutuko lau saiotan, bost minutuko atsedenekin- pedalei eragiten egon ostean, ezagun ziren neke aurpegiak parte-hartzaileen artean. Herrikoiez gain, bailaratik iritsitakoak ere izan ziren. Irakasle lanetan ere, Oñatin eta inguruko herrietan eskolak ematen ibiltzen direnak aritu ziren.

Kanpoko kirol eskaintzak barrukoak baino arrakasta handiagoa izan du

- ▶ Kirol mota ugari probatzeko aukera egon da asteburuan Bergaran eta Eskoriatzan
- ▶ Kirolaren Nazioarteko Egunean batean, eta Osasun Astearen hasieran bestean

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Kirola egiteko mezua zabaldu gura izan dute Bergaran eta Eskoriatzan asteburuan egindako kirol jarduerekin. Kirolaren Nazioarteko Eguna zelako kirol eskaintza zabala eskaini zuten Bergaran. Eskoriatzan, berriz, bigarren antolatu duten Osasun Asteari hasiera emateko antolatu zituzten kirol ekintza ezberdinak.

Flashmob

Herri batean eta bestean goizeko eta arratsaldeko jarduerak antolatu zituzten; batzuk kanpoan egiteko modukoak eta beste batzuk barruko instalazioetan egitekoak. Eguraldiagatik, baina, kanpoko ekintzek barrukoak baino arrakasta handiagoa izan zuten.

Bergaran, esaterako, Labegaraietako gunean jolasak prestatu zituzten. Hara joateko, baina, hiru irteera ezberdin antolatu zituzten Agorrosindik: oinez, San Martzialeko buelta eginez; bizikletan eta patinetan Elorregiraino joan eta bueltan etorri, Ttipi Ttapa bideak inauguratuz. Oinezko taldean joan zen jende gutxi eta beste bietako parte hartzaileen artean, guraso eta ume asko. 11:30ak inguruan elkartu ziren denak Labegaraietan eta han, hockeyan jokatu, soka saltoan egin edo hand bike-ak probatzeko aukera izan zuten, herriko fruta denda batzuk emandako produktuekin egindako hamarretako osasungarria egiteaz gain. Azkenik, 153 dantzari batu zituzten Agorrosinen kirolaren aldeko flashmob-a egiteko.

Kirolgune barruan antolatutako BKool modalitatearen probaketak (4 lagun), zumbak (14 lagun) eta areto bizikletak (13 lagun) ez zuten arrakasta handirik izan. "Kirolgune sarrera ere doan izan da, baina eguraldia kanporako planak egiteko modukoa izan da, barruko eskaintzen kalterako", azaldu du Unai Asurmendik, Bergarako kirol teknikariak.

Egubakoitzera arte

Eskoriatzan, bestalde, dozena bat lagun elkartu ziren goizean mendiko bizikleta irteera egiteko. Arratsalderako antolatuta zeuden ekintzen artean, berriz, slacine-ak ikusmina piztu zuen gazteteon artean eta badmintonean eta dantzan aritzeko ere elkartu zen jendea. Egubakoitza bitartean, hala ere, kirola eta osasunari buruzko hitzaldi eta ikastaro ezberdinak egongo dira.



Labegaraietako bidegorrian patinatzaileak, Bergaran. | JOSETXO ARANTZABAL



Patin gaineko hockeyan. | J.A.



Eskoriatzako plazan elkartu ziren goizean bizikleta zaleak. | JOSETXO ARANTZABAL



Kale-defentsari buruzko tailerra zapatuan Eskoriatzako pilotalekuan. | I.S.



BKool-a zer den erakutsi dute Bergaran | O.E.



Zumba dantzaten hasi aurretik, Agorrosinen. | J.A.



Badmintonean jokatzen Eskoriatzako kiroldegian. | JOSETXO ARANTZABAL



Eskoriatzako gazteteoak slackline-a probatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Dollygan's eta Albok taldeetako jokalariek sariak jaso ostean elkarrekin atera zuten argazkia, giro paregabeen. | JOKIN BEREZIARTUA

Oñatiko Herriko Futbol Txapelketaren azken festan, emozioa eta giro ederra

- ▶ Dollygan's da ligako txapeldun berria, Albok taldea justu-justu menderatu ostean (2-1)
- ▶ Kopako finalean Kalañatasaray izan zen nagusi, Bundeswehr erraz menderatuta (4-0)

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Amaitu da Oñatiko Herriko Futbol Txapelketa, zapatu arratsaldean jokatu ziren azken partiduak. Lehen partidua ligako hirugarren eta laugarren postuak zehazteko jokaturakoa izan zen; Joxelyk amaitu zuen hirugarren, Kili Kolo 2-0 menderatu ostean.

Partidu hori amaitu eta berehala hasi zen kopako finala, Kalañatasaray eta Bundeswehr taldeen artean. Lehen zatia lehiatua izan zen eta atsedenaldira husnako berdinketarekin heldu ziren bi taldeak. Bigarren zatian, baina, jaun eta jabe izan zen Kalañatasaray. Bundeswehr-ekoen nekea izan zen kopako finala erabaki zuen aldagai nagusia; ordezkatzeko bi edo hiru jokalarik bakarrik izan zituzten eta aurkariek, ordea, gura beste aldatu ahal izan zuten. Finala amaitu ostean, kopako irabazleek eurek aitortu zuten bigarren zatian sartu ziren jokalarien freskotasunak asko lagundu ziela. Lau gol sartu zituzten bigarren zatian.

Zelai barruan lagunik ez

Ligako final handia 18:00etan hasi zen. Denboraldi osoan zehar maila onena erakutsi duten Dollygan's eta Albok nor baino nor, esperientzia gaztetasunaren aurka. Amaieran, esperientzia eta eraginkortasuna izan ziren nagusi gaztetasunaren eta bizkortasunaren aurrean. Hasieratik igarri zen, futbol federatua izan ez arren, asko zegoela jokoan. Nahiz eta zelaitik kanpo lagunak izan, barruan tontokerietarako

tarterik ez zela egongo. Epaileari zein marrazainei protestak, jokalarien arteko eztabaidak eta ikusleen presioa; beteranoena, baina benetako futbola.

Bigarren zatia hasi eta gutxira heldu zen finaleko lehen gola;

Dollygan's taldeko Jon Sanchezek ez zuen atezainaren aurrean barkatu. Albok-ekoak saiatu ziren berdinketa lortzen baina kontraeraso baten Roberto Idigorasek egin zuen bigarrena, atezainaren aurrean baloia maisuki loratuz.

2-lekoa denboraz egin zuten aurkariek eta finala berdintzeko izan zituzten zenbait aukera, baina Axibar Urteaga atezainak gelditu ederrak egin zituen. Hura izendatu zuten finaleko jokalaririk onena, merezimendu osoz.



Ligako finalean polemikarik ez zen falta izan, batez ere partiduko azken minutuetan. | IMANOL SORIANO



Kopako finalisten talde argazkia, Kalañatasaray eta Bundeswehr. | ANTON SIERRA



Dollygan's-en lehen gola. | I.S.



Kopak, banatu aurretik. | J.B.

GARAIKURRAK

- Ligako txapeldunak:** Dollygan's.
- Ligako azpitxapeldunak:** Albok.
- Ligako hirugarrenak:** Joxely.
- Ligako laugarrenak:** Kili Kolo.
- Ligako finaleko jokalaririk onena:** Axibar Urteaga (Dollygan's).
- Kopako txapeldunak:** Kalañatasaray.
- Kopako bigarrenak:** Bundeswehr.
- Kopako finaleko jokalaririk onena:** Jagoba Martin (Kalañatasaray).
- Golegile nagusia:** Jokin Biain (Kili Kolo).
- Atezaina:** Unai Arzamendi (Nandrolona).
- Kiroltasuna:** Igor Gomez (Zorro Bero).

Txus Iglesias | Korrikalaria

"Dirua batzen laguntzea eta lasterketaz gozatzea da helburua, lehiaketa baino gehiago festa da-eta"

- ▶ Beste hiru lagunekin batera arituko da Gironan izango den Trailwalker lasterketan
- ▶ Intermon Oxfam gobernuz kanpoko erakundearentzat 4.576 euro batzea lortu dute

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Bergarako Depor tabernaren jabe da Txus Iglesias. Joan den iraila ezkerro, ordea, beste ekimen batean ere murgilduta dabil. Herriko Juantxo Aranesekin eta Jon Ander Garitanorekin eta Antzuolako Gorka Mansorekin batera Intermon Oxfam gobernuz kanpoko erakundeak apirilaren 26rako Gironan antolatu duen Trailwalker lasterketan hartuko du parte. IGAM taldea sortu dute horretarako, eta herritarren laguntzaz 4.576 euro lortu dituzte.

Nola izan zenuten lasterketa honen berri?

Joan den urtean, tabernan, kirol egunkari batean, Gironan lasterketa hori izango zela ikusi nuen eta Jon Ander konbentzitu nuen. Beste biak ere batu ziren. Beranduegi zen urte hartarako prestatzeko, eta, ondo antolatu, eta aurtengoan parte hartzea erabaki genuen.

Intermon Oxfam erakunde ezagutzen zenuten proban aritzea erabaki baino lehenago?

Nik telebistan inoiz haien iragarri bat ikusi izana gogoratzen dut, baina ez dut inoiz izan informazio askorik haietatik. Benetan erakarri gintuena proba bera izan zen. Bi erronka zituen guretzat: batetik, 100 kilometroko lasterketa batean korrika egitea, eta, bestetik, horretarako beharrezkoak ziren 1.500 euroak batzea.

Nolakoa izango da proba? Zein izango da ibilbidea?

Talde bakoitzak 32 ordu izango ditu Olot eta Sant Feliu de Guixols artean dauden 100 kilometroak egiteko. 400 metroko desnibel positiboa eta 900 metro inguruko desnibel negatiboa izango ditu. Via Verde Estrecha deitzen diote eta bidegorri moduko bat da, baina asfalto gutxiarekin.

Joan aurretik entrenamendu programa bereziren bat eskatu dizu lasterketak?

Donostia-Behobian eta maratoietan korrika egindakoa naiz, baina honelako moduko probarik ez dut egin orain artean. Horregatik, entrenamendu programa bat zehaztu behar izan dugu. Taldea osatuta, Kepa Larrearengana jo genuen eta hark markatutako programa jarraitzen ari gara ordutik hona.

Zein helburu finkatu duzue lasterketari begira?

Gure helburua da dirua batzen laguntzea eta lasterketaz gozatzea, lasterketa bat baino gehiago festa bat da-eta. Partaide askok proba bi egunean egingo dute, baina guk guztia egun batean

egin nahiko genuke. Hamasei ordu inguruan bukatzeko gai garelakoan gaude. Hala ere, ez dugu ahaztu behar gure helburua disfrutatzea dela eta ez leher eginda bukatzea.

Elkarrekin, edo helburu berarekin, lasterka arituko zareten lehenengo aldia izango da hau?

Talde bezala inoiz lehiatu ez garen arren, maratoiak egin izan ditugu elkarrekin eta, sarritan, asteburuetan ere elkartu ohi gara entrenatzeko.

Alberto Samaniego eta Aitor Garitano izango dituzue laguntzaile ibilbidean zehar. Zertaz arduratuko dira?

Lasterketan parte hartzeko baldintzetako bat sei kide izatea da. Lau lagunek egingo dugu korrika eta beste bi gure atzetik joango dira auto batean. Ezer falta ez zaigula ziurtatzeko daude. Denetik pixka bat egingo dute momenturo behar dugun guztia eskura izan dezagun: hesiak ondo jarri, gutako bati zapatilak apurtu bazaizkio berriak ekarri, etab. Lan hori Alberto eta Aitorrek egingo dute, horretarako asko balio dute-eta.

Dirua batzeko kanpainarekin 4.576 euro batzea lortu duzue. Espero zenuten hainbeste lortzea?

Lasterketan ateratzeko beharrezkoak diren 1.500 euroak lortzea zaila izango zela uste genuen hasiera batean, eta kamisetak eta txartelak saltzen hasi ginen. Erosle guztien arten zozketa egin genuen gero. Horretan, Lamaino Etxeberri landa-turismoari, Larrañaga autoeskolari eta Zumelaga jatetxeari eskerrak eman beharrean gara, sariekin lagun-



Txus Iglesias, Bergarako Xabier Munibe plazan. | JULEN APERRIBAI

du digute-eta. Orokorrean, herriaren parte-hartzea ezin hobea izan da. Horren erakusle da hasieran behar genuen diru kantitatea hirukoiztu egin dugula.

Honekin amaitutzat ematen duzue kanpaina?

Inork laguntzen segi nahi badu, Trailwalker-en webgunean sartu eta gure taldeari nahi duen kantitatea eman diezaioke, baina guk ez dugu kamisetak saltzen jarraituko. Bergarako herriari ezin diogu ezer gehiagorik eskatu, nahiko laguntza izan dugu.

Partaide guztien artean zenbat diru lortzea espero da?

Talde bakoitzak 2.500 euro inguru batzen ditu eta 350 talde gara. Oraingoan, 512.000 euro eskuratu ditugu. Kantitate horren bueltan ibiliko da, nire ustez. Hala ere, bada kanpaina amaituta ere dirua ematen jarraitzen duen jendea.

Erakunde publikoren baten laguntza ekonomikorik izan duzue?

Kanpainatik atera dugu diru kopuru hau. Ez dugu inoren atea jo, baina ez badute guregana jo, ez da gure berri ez dutelako izan. Hala ere, egungo krisiarekin ez da erraza diru publikoa lortzea. **Herritarrek Gironara bertara zuek animatzera joateko zerbait antolatzeko asmorik badago?**

Ez dugu autobusik edo antzekorik antolatzea pentsatzen. 800 kilometro autobusean egitea gehiegizkoa iruditzen zaigu, are gehiago gero lasterketak dituen 100 kilometroak jarraitu behar badituzte. Hala ere, garai horretan Gironan oporretan egongo dela esan digute hainbatek. Hortaz, norbait azalduko zaigu bertara sorpresaz...

"Herriari ezin diogu ezer gehiagorik eskatu, nahiko laguntza izan dugu"

"Probak bi erronka zituen: 100 kilometro korrika egitea eta 1.500 euro batzea"

"Modu honetako probaren batean parte hartzen dudak lehen aldia da"

Dirua munduko 50 herrialdetara

Ekimen horretan bergarren parte-hartzea ezinbestekoa izan da. Ternua erropa markak babestutako kolore askotariko kamisetak saldu dituzte eta oso gustura daude jasotako erantzunarekin. Lortutako 4.576 euroak Intermon Oxfam gobernuz kanpoko erakundeak jasoko ditu. Lasterketa 2011n sortu zen eta aurreko hiru urteetan 1.873.000 euro bildu ziren. Bertan lortutako dirua Afrika, Amerika eta Asiako 50 herrialdetara bideratzen da.



Lau taldekideak, kamiseta gorria jantzita. | T.I.

Arantza Landaluze | Pediatría erizaina, Aretxabaletan

"Txertoen kontrako diskurtsoak kaltegarriak eta arriskutsuak dira"

- ▶ Diskurtso errazak direla dio erizainak, eta ez dutela arriskuez ohartarazten
- ▶ Polioa, kukutxeztula, difteria... txertoekin saihestu daitezkeenak dira

LARRAITZ ZEBERIO | ARETXABALETA
Txertoak zer diren, zein hobekuntza ekarri duten, eta txertorik ez jartzearen ondorioak zeintzuk diren izan dugu hizpide, besteak beste, Aretxabaletako pediatria erizainarekin. Hitzaldia ere egin du aurreko astean Aretxabaletan.

Txertoak bai ala ez?

Ez dugu gai honetan zalantzarik izan behar. Txertoak bai, eta inongo zalantzarik gabe. Gure gizarteak argi izan behar du hori. Onurak handiak dira, eta arrisku asko saihesten ditugu.

Zer lortzen dugu txertoen bitartez?

Hitz bakarrean esanda; babesa. Prebenitu daitezkeen gaixotasun immunologiko asko dago, eta txertatuz gero ez diegu lekuri uzten gure gizartean. Kukutxeztula, polioa, C meningitisa, hepa-

titisa, difteria, tetanosa... Gizarte osoarendako da garrantzitsua guztiok txertoak hartzea.

Ze arrisku du ez txertatzeak?

Gaixotasun horietako batez gaxotzea, eta birus horiei garatzeko bidea ematea.

Badago diskurtso bat txertatzearen aurkakoa. Zer iritzi duzu?

Badago bai, eta oso kaltegarria izateaz gain arriskutsua ere bada. Zientifikoki frogatuta dago gaixotasun askok atzera egin dutela txertatze-kanpainei esker. Ia desagertuta daude gure gizartean. Txertatze-egutegi bat dugu ezarrita, eta urteetako lanaren ondorioz gaixotasun asko desagertuta edo desagertzeaz daude. Datuak daude hori horrela dela egiaztatzen dutenak.

Kalte handia egin du gurean diskurtso horrek?

Bai. Oso diskurtso erraza da, eta



Arantza Landaluze. | MIRARI ALTUBE

"Ez dugu zalantzarik izan behar; txertoekin babestuta gaude"

beldur handia eragiten du. Negozio bat dela, txertoak ez direla beharrezkoak... ez dakit nork zabaldu duen debate hori, baina ez da batere egokia osasun publikoarentzako.

Indarrean dugun txertoen egutegia egokia dela uste duzu?

Oso garrantzitsua da jarraipen eguneratua egitea. Txertatuta dauden umeak ez daude arriskuan. Uneotan asko bidaiatzen dugu. Kanpotik ere jende asko dator. Horrek bidea errazten die birusei eta txertatuta ez dauden umeak gaixotzeko arriskua handia da. Polioa, kukutxeztula, difteria... erraz iristen dira gurera. Guk uste baina gertuago ditugu. Txertatuta bagaude arriskutik kanpo gaude. Seme-alabak txertatzen ez dituzten gurasoek argi izan behar dute arrisku hori egon badagoela.

Orokorrean, txertatzen ditugu haurrek?

Bai, baina konturatzen ari gara txertoen aurkako iritzi korrante horien ondorioz zenbait gurasok zalantzak dituztela edo uko egiten diotela umeak txertatzeari. Oso erraz zabaltzen dute diskurtso hori, inongo ondorioz gabe. Ez txertatzearen arriskuez ere ez dute hitzik esaten. Diote ez dela ezer gertatzen, baina guk bada-kigu gertatu, gertatzen dela.

Umeendako produktu arriskutsuen katalogoa

L.Z. | ARRASATE

Haurren Segurtasunerako Europako Aliantzak *Haur produktuen segurtasun gida* kaleratu du. Gidak eguneroan erabili ohi ditugun eta arrisku iturri diren produktuen zerrenda jasotzen du. Esate baterako, European urtean 14 urtetik beherako 19.000 ume hartzen dute min litera-ohetik tarteko.

Argi dago umeek eurei zuzendutako produktuekin ere har dezaketela min, eta askotan okerreko erabilerak eraginda gertatzen da. Gidaren helburua da gurasoak eta hezitzaileak arrisku horietaz ohartaraztea, eta produktu horien erabilpen egokiaz informatzea.

Litera-ohetik, bizikletak, sehaskak, arropa aldatzeko altzariak, txupeteak, autoetako aukiak... produktuen zerrenda luzea da. Gida gaztelerara itzuli berri dute.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

JAKINGAI

Jarduera fisiko osasuntsuen bila

Xabin Arriola

TAFYDeko irakasle taldearen izenean

Jarduera fisikoaz hitz egiten dugunean askotariko ezauzgarriak dituzten ekintzen inguruan aritzen gara. Osasunari begira guztiek ez dituzte ezauzgarri berdinak garatzen. Guztiak osasuntsuak diren ere zalantzan jar daitezke.

Batzuekin argi dago; beste batzuk, aldiz, arriskutsuagoak dira. Batzuek ongizate pertsonal handia ematen digute; beste batzuekin, ordea, sufritu eta estresa jasan dezakegu. Hau guztia kontuan hartuta hona gure galdera: zein jarduera fisiko dira benetan osasungarriak?

Erantzuna emateko ezinbestekotzat jotzen dugu jarduera bakoitzak dituen onurak eta arriskuak ezagutzea. Ekintza bat aukeratu eta praktikatzekoan, beraz, arrisku txikienarekin onurarik handiena emango digun hori hartu beharko genuke.

Arrisku-onura erlazioa hainbat faktoreren konbinaziotik abiatuta ematen da; alde batetik, jarduera mota; bestetik, berau burutzeko modua; eta azkenik, praktikatu behar duenaren ezauzgarriak. Dena ez da guztiontzat onena, eta bakoitzak beretzat egokiena dena aukeratu beharko luke. Goazen, bada, hiru faktore horiek aztertzea.

Jarduera mota kontuan hartzen badugu bi multzo bereiziko genituzke: ziklikoak edo mugimendu bera behin eta berriz errepikatzen jarduerak, eta aziklikoak edo mugimendu desberdinez osatutakoak —korrika, jautzia, kolpaketa...—. Ziklikoak, berez, seguruagoak dira bertan jarduterakoan esfortzuaren kontrola bakoitzak erregulatu dezakeelako. Hemen sartuko lirateke paseoa, korrika egitea, txirrindularitza eta igeriketa. Aziklikoetan, ordea, kanpoko faktoreek ekintzaren erritmoa marka dezakete, eta gorputzarentzat gogorragoak gerta daitezke. Talde horretan sartzen

dira futbola, pala, tenisa edo squasha, esaterako. Gomendio gisa aukera ezazu gehien kome-ni zaizuna.

Jarduera burutzeko modua da, agian, gehien eragin dezakeen faktorea jarduera bat osasungarri/arriskutsu bihurtzeko orduan. Ekintzari ematen zaion filosofia —aisialdia edo errendimendua—, astean zehar burututako praktika-karen maiztasuna, saio bakoitzaren iraupena eta bertan gorputzari ezartzen zaion eritmoa kontrolatu beharreko aldagaiak dira. Jarduera fisikoa obsesio bihurtzen denean eta gorputzari larregi eskatzen diogunean osasuna galtzen hasten gara.

Jarduera egiten duenaren adina, prestakuntza fisikoa eta zaletasuna dira kontuan hartu beharreko azkeneko faktore garrantzitsua. Batez ere adinean gora joan ahala, jarduera zikliko eta lasaiagoak aukeratu beharko genituzke. Ez dezagun ahaztu errendimendua ezin dela guztion helburua izan.



Bizikleta eta mendia, batera egin daitezkeen bi jarduera osasuntsu. | ARIZMENDI

Jarduera baten planifikazioa

Jarduera mota bakoitza osasungarri izan dadin planifikazioa gomendatzen dizuegu. Jarduera aerobikoa bada —oinez, korrika, igerian...— astean 3-5 egunetan eta 20-60 minutuko saioak. Bihotz maiztasunak %60-85koa behar du izan. Jarduera gihartzeko bada —pisuak, body pump...— astean 2-3 egunetan egin baina karga egokia aukeratu. 10-15 ariketa egin eta 12 errepikapeneko 2-3 serie. Malgutasuna lantzeko jarduera bada 4-6 egunetan egin. Giharraren luzaketa 10-30 minutuz mantendu behar da, eta ariketa bakoitza 3-4 aldiz errepikatu.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

KULTURA



Goizean haurren abesbatzek egin zuten kalejira; zirkoa osatu zuten. | IMANOL SORIANO



Etxaluzen hasi eta kalejiran heldu ziren gaztetxoak Foruen plazaraino. | IMANOL SORIANO



Oñati abesbatza Portu plazatxoan, Loli Ordokik zuzenduta. | O.E.

Egun berean eta kalean abestu dute Oñatiko abesbatzek

- ▶ Ganbara Txikiren hamargarren urteurrenaren barruan izan da
- ▶ Herritar asko ibili dira kalejiran eta kantuan abesbatzekin batera

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Kantatzen ez duenak zorionik ez duela dio abesti batek. Hori horrela bada, Oñatin ez dago ardurarik. Herri zorionsua dela esateko moduan gaude.

Oñatiko abesbatza guztiak kalera atera ziren zapatuan, kantuan egitera. Herriko plaza-txo, kale, kantoi eta parkeetan abestu zuten. Batzuetan bakarrik, eta besteetan ondoan entzuten zeuden herritarrekin batera. Abesteko gogoia kutsatu egin zitzaielako entzuten zeuden herritarrei ere, eta ondokoa kantuan entzunda, kantua ezaguna zenean areago (Mikel Laboaren *Txoria*

txori, Imanol Lartzabalen *Mendian gora* edo Benito Lertxundiren *Nere herriko neskatza maite*, esaterako), berdina egiten hasi ziren bat baino gehiago, kantatzen, alegia.

Kalejiran

Herriko abesbatzen Kantua Kalean jaialdirako antolatu zituzten kaleko emanaldi horiek. Ganbara Txikiren hamargarren urteurreneko ospakizunetako bat izan da, eta lehen jaialdiaren formatu berdinean egin dute, hau da, Oñatiko haur eta helduen abesbatza guztiak kantuan jarriz egun berean eta kalean.

Guztira 11 abesbatza daude Oñatin, eta hiru zati ezberdinetan antolatu zuten eguna. Hala, goizean, haurren abesbatzek abestu zuten: Ikastetxeak Kan-

tariko taldeak, musika eskolako abesbatzak, Ganbara Txikitxok eta Ganbara Txikik.

Zirkoaren etorrera irudikatu zuten, eta zirkoan ikusten diren elementuen mozorro koloretsuak soinean jantzita abestu zuten: lehoi, pailazo, akrobata eta domadore jantzita, esate baterako. Eta modu horretan, Etxaluzen hasi eta kale Barrian, Atzeko kalean, Kalegoienan, Errementari plazan eta Foruen plazan egin zituzten geldiu-neak.

Zirkoa

Goizean kalean eta arratsaldean gaztelekuan elkartu ziren zirkoa

osatu zuten gaztetxoak: magoak, trapezistak, hartza... Antzeztu eta abestu egin zuten han, zirkoa ikustera joan ziren herritar askoren aurrean. Izan ere, umeendako antolatu izan diren beste ekintza batzuetan gertatu den bezala, zapatu arratsaldean ere goraino bete zen gaztelekua. Ordubeteko ikuskizuna eskaini zuten umeek.

Ordu laurden

Egunaren hirugarren zatian helduen abesbatzek hartu zuten parte: Ganbara abesbatzak, Oñati abesbatzak, parrokiako abesbatzak eta erretiratuen elkar-teko abesbatzak.

Hauek ere Etxaluzen hasi zuten kalejira, 18:30ean, eta bost geldiu-ne egin zituzten: Etxaluzen, Guria parean, Portun, Ona pareko plazatxoan eta Foruen plazan. Geldialdi horietan, abesbatzek, txandaka, ordu laurdeneko saioa eskaini zuten, Aitor Biain, Loli Ordoki eta Iñaxio Ibarrendoren zuzendaritzapean.

Ekitaldia plazan bukatu zuten, abesbatza denek elkarrekin abestuz: *Ixil-ixilik*, *Xalbadorren heriotzean* eta Iñaxio Ibarrendoren *Oñati* zortzikoa abestu zituzten.

DATA

12

PARTE-HARTZAILE

Herriko 11 abesbatzek eta musika eskolako trikitilariak hartu zuten parte.

Mozarten eta Arriagaren doinuak Musikaldiaren estreinako asteburuan

Bertso eta abesbatza emanaldiak ere izan dira

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Saio hirukoitzarekin eman diote hasiera Arrasaten X. Musikaldiari. Egubakoitzean, Bi Arreba ikuskizuna eskaini zuten Kulturateko areto nagusian Xabier Lizaso pianojoleak eta Andoni Egaña bertsolariak.

Zapatuan berriz, Arriagaren eta Mozarten doinuak entzuteko aukera izan zen Orquesta Ricercaren eskutik. Talde bizkaitarra Susana Zabaco sopranoarekin batera aritu zen San Juan Bataiatzailearen parrokan.



Orquesta Ricercaren zapatuan eman zuten emanaldia. | IMANOL SORIANO

Konpositore gazteak

Zapatuko emanaldia "beraien obra nagusiak gaztetasunean konposatu zituzten bi konpositoreei" eskaini zien Orquesta Ricercaren, bere zuzendari Alain Sanchok azaldu zuenez.

Atzo iluntzean, berriz, Landarbaso abesbatza izan zen parro-

kian emanaldia eskaini zuena. Errenteriako abesbatzak azken mendeko zenbait pieza ezagun kantatu zituen.

Gregoriar melodiak entzun ziren domekako mezan

Iruñeatik etorritako Schola Gregoriana Gaudeamus taldeko abeslariak domeka eguerdiko meza girotu zuten. Elizkizuneko abesti guztiak era gregorianoan abestu, eta behin meza bukatuta, 45 minutuko emanaldia eskaini zuten San Juan Bataiatzailearen parrokan.

Horazio Argarate parrokoak esan zigunez, "abesteko oso zailak diren piezak abestu zituzten, Erdi Aroko monastegietan kantatzen zirenak modukoak". Apaizak gaineratu zuenez, "kantu gregoriano hauek ototzerako beharrezkoa den lasaitasuna" eskaintzen dute.



Abeslariak domeka eguerdiko mezan. | J.A.



JOSETXO ARANTZABAL

Mikel Markez Zabalotegin

Bakarleri oretarrak *Indar bat dabil hor* lana aurkeztu zuen atzo arratsaldean Bergarako Zabalotegi aretoan eman zuten kontzertuan. Duela bi urte jo zuen Debagoiengan azkeneko Mikel Markezek, eta itxaronaldi horri amaiera eman zion atzokoan. Bere bakarkako hamargarren laneko abestiez aparte, azkeneko hogeitaz jorratutako kantu ezagunak ere taularatu zituen.

Aspaldiko indarra lagun, ez zuen huts egin Antixenan Discipulos de Dionisosek

Las Tuerkasek, berriz, 'Rompiendo Kadenas' lana aurkezteko aprobeztatu zuen zapatuko kontzertua

M.A. | OÑATI

Esperotako kontzertua eskaini zuen herenegun Discipulos de Dionisosek. Laukote donostiarrak, azken bi hamarkadetan ezagutzera eman dituen abestien errepaso egin zuen, ordu betera iritsi ez zen kontzertuan.

Izardiz bustitako emanaldia izan zen zapatukoa. Ikusleek erantzun beroa eman zioten DDD-k aurkeztutako kantutegiari eta, kontzertu hasieratik amaierara, aspertzeko tarte txikia izan zen.

Comer, Beber, Amar; Soldados del Orgasmo; Vagina Electrica; edo *Latigo Rojo* moduko betiko abestiak entzun ahal izan ziren Antixenan.

Las Tuerkas

Discipulosen aurretik Las Tuerkas emakumezkoen punk taldea igo zen Antixenako oholtzara. Hirukoteak *Rompiendo Kadenas* bere estreinako lana aurkezteko aprobeztatu zuen zapatu gauean egin zen jaialdia.



Discipulos de Dionisos zapatu gauean Antixenako gaztetxean. | IMANOL SORIANO



Golden Apple Quartet, Espaloian. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Gourmet menua Espaloian

JAGOBA DOMINGO | ELGETA

Zilarreko ezteiak beteta, ikuski-zun berriarekin lehorreratu zen Golden Apple Quartet Elgetako Espaloian. Elgetako antzokia musikaz eta umorez betetzeko asmoz heldu zen laukotea, eta egundoko errezitaldia eskaini zuten. Musika, antzerki eta ikuskizunaren tempoa maisuki kontrolatu zuen Loiola Garmendiak gidaturiko taldeak; eta hasieratik lortu zuten publikoarekin *feedback* itzela; horretan ere maisuak dira donostiarrak.

'Erase una vez...Los Golden'

Agertokia hutsik; argi gutxi eta isiltasuna. Horrela hasi zen saioa;

FITXA	
MUSIKA ETA ANTZERKIA	
GOLDEN APPLE QUARTET, ERASE UNA VEZ...LOS GOLDEN	
Estilo: Denetarikoa.	
Non: Espaloia, Elgeta.	
Eguna: Zapatua, Apirilak 5.	
Iraupena: la bi ordu.	

hala ere, laukoteak *Erase una vez...Los Golden* ikuskizunari hasiera eman bezain laster, Espaloiko ikusleen aurpegietan irribarrea marraztu zuten, eta bi orduz horrela jarraitu zuten.

Gau borobila

Ipuin formatuan, 25 urteen errepasoa egin zuen laukoteak, eta taldearen bidelagun bihurtu zituen ikusleak. Lagun baten ezkontzako zeremonian hasi, Jose Luis Morenoren telebista saioan abestu, munduari buelta eman... Taldekideen arteko arazoaren testigu ere izan ziren Espaloira joan zirenak.

Gospela, boleroak, pop kantua...denetik eskaini zuen laukoteak; eta amaitzeko, Espaloia-ri oparia egin zioten. Bis modura, Mikel Laboaren *Oi Pello Pello* eskaini zieten Espaloiko langileei, gutxienez beste hamar urtez bizi-rik jarraitzeko.

Artea eta emakumea uztartu nahi ditu Ekinen egitasmo berriak

Arrasateko emakume artistekin proiektu berritzailea jarri nahi du martxan Ekinen

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Emakumea eta artea batera jarriko dituen proiektua bultzatu nahi du Ekin Emakumeak taldeak. Asmo horrekin, egitasmoaren lehen harria jarri duen bilera egin zuten egubakoitzean Ekinen Pablo Uranga kalean daukan lokalean.

Taldeko Leire Estevezek azaldu zuenez, "artearen bitartez, emakumea gai zabal bezala islatu nahi du proiektuak". Horregatik, "arte eta emakumea uztartuko dituen egitasmoa bultzatu" nahi dutela dio.

Lehenengo bilera honetan ez zen egitasmoaren oinarririk finkatu oraindik, baina emakumea eta artea lotuko dituen proiektuko lantaldea martxan jarri zuten. Miren Barrenetxea

artista gazteak esan zuenez, orain herriko beste artista batzuen partaidetza bilatu nahi dute. Asmo horrekin, adierazpen artistiko desberdinetan diharduten artista emakumeengana hurbildu nahi dute ekimen honen bultzatzaileek. "Berdin dio musika, antzerkia, pintura, eskultura edo bestelako edozein disziplinatan ibili; guztien lanak batu nahi ditugu", diote.

Bilera gehiago

Lehenengo bilera honen ostean, batzar gehiago egingo dituzte datozen asteetan. Ekimeneari interesa dutenek 943798370 zenbakira deituta edo *ekin.emakumeak@telefonica.net* helbidera idatzita jaso dezakete nahi duten informazioa.



Ekinen lagunak, egubakoitzean egindako bileran. | IM

Bertso eskolen topaketak, egubakoitzean Aretxabaletan

M.A | ARETXABALETA

Debagoieneko bertsozaleek hitzordu garrantzitsua izango dute datorren egubakoitzean Aretxabaletan. Bailarako bertso eskoletako ikasleek topaketak egingo dituzte; egitarau zabala prestatu dute.

Haur eta helduek, hitzekin eta errimekin duten trebetasuna erakutsiko dute txanda desberdinetan. Arratsaldeko 17:30etik aurrera, bertsolari gazteenen doinuak entzun ahal izango dira Murualde elkartearen.

Hasierako agurrak eta hitz tabuen ariketa Oñatiko haurren egitekoa izango dira. Beraien ostean, Arrasateko bertsolari gaztetxoaren emanaldia izango da; eta gero, Oñati eta Aretxabaletako ikasleek bapatean jardungo dute. Saioari amaiera emateko, Aretxabaleta eta Eskoriatzako bertsolarien emanaldia izango da, eta Bergarako gaztetxoek agurra botako dute. Aipatu, antolatzaileek emanal-

di bakoitzari bospasei minutuko luzeera eman diotela, eta saioa, beraz, 19:00etarako amaitzea aurreikusten dutela.

Helduak kalejiran

Behin haurren emanaldia bukatuta, helduen txanda iritsiko da. Debagoieneko bertso eskoletako lagunak bertso olinpiadarekin ekingo diote topaketari; eta behin elkar ezagutu eta harremanak egin ostean, kalejira-poteoa egingo dute.

Horren ostean, Murualde elkartera itzuliko dira denak; eta bertan, bertso saioa egingo dute. Antolakuntzatik diotenez, baina, bertso saio bat baino gehiago izango dira egubakoitzeko topaketak. Debagoieneko bertso eskolek etorkizuneko plan eta proiektuez hitz egiteko asmoa daukate. Diotenez, eskola desberdinen esperientziak partekatu nahi dituzte, guztien jarduna norabide berdinean jartzeko asmoz.



Anai Arrebak taldea Espaloiko agertokian. | IMANOL SORIANO

Jende ugari Zea Mays eta Anai Arrebak ikusteko


Ikusleek ondo erantzun zioten egubakoitz gaueko deialdiari. Espaloia ia beteta zela, Anai Arrebak pasaitarrak izan ziren emanaldia zabaldu zutenak. Azken urteetan jarritako bideari eutsiz, teklatuaren presentzia gero eta nabariagoa da jorrazten dituzten doinu elektronikoetan. Ikusleek eskatuta, bisak eman zituzten; eta aipatu, kontzertua ixteko, Dragoi Bolako abestia jo zutela, marrazki

bizidun horien nostalgikoen gozamenerako.

Zea Maysek hartu zuen lekukoa. Bilbotarrek *Da* diska berriko abestiekin ekin zioten emanaldiari. Hiruburuetatik egin duten biraren ostean, ikusmin handia zegoen kontzerturako, eta Zea Maysekoek ez zuten hutsik egin. Beraien kantu ezagunak jo zituzten, eta bukatzeko bost bis eskaini zituzten.

Goiena Klubeko apirileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



E-reader

SONY E-reader irakurgailu elektronikoa

Parte hartzeko sariaren izena:
E-reader

Arrasateko hipermerkatua



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketagai

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
oñatiko kobak



GPS-a

Navman F360 GPSa

Parte hartzeko sariaren izena: GPS

Arrasateko hipermerkatua



Otarra

Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra

Parte hartzeko sariaren izena: Harreman

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

GURE MUSIKA TALDEAK

ANDER
ETXANIZ

Ander Etxaniz gitarra eskuetan. | MARIA GALLARDO

"Beste instrumentu batzuei heldu diedan arren, baxuarekin erlazio berezia dut"

- ▶ Gas eta Hartzak-eko baxu-jotzaileak gitarra hartu du orainoan
- ▶ Oñati Bizirik bildumako hirugarren zenbakian 'Ilara' kantua kaleratu du

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Oñati Bizirik bildumaren hirugarren zenbakian, Ander Etxaniz oñatiarrak bere bakarkako lanaren lehenengo pilula erakutsi du; *Ilara*. Gas eta Hartzak taldeetan ibilitako musikari gazteak baxua gitarratik aldatu eta kantu indartsu zein zirrargarria idatzi du, eta, orain Grezian Arte Ederretako ikasketak egiten dabilen arren, gitarra ondoan duela erantzun digu.

Bakarlari eta gitarra eskuetan, aldaketa nabarmena, ezta?

Beti ibili izan naiz instrumentu

desberdinen artean, nahiz eta hasiera batean baxuarekin hasi nintzen. Izan ere, instrumentu horrekin erlazio berezia dut, zer den ez dakidana. Horrez gain, beste instrumentu batzuei heldu izan diet, tartean gitarrari. Uste dut instrumentu bakoitza kasuari egokitzen zaiola.

Taldetik bakarlariarako aldaketa, aldiz, ezin dut azaldu. Erabaki batzuen aurrean pentsatzen jarrita, batzuetan ez da gauza argirik ateratzen. Simpleki, hau dena baten intuizioari edo estimulu horiei jarraitzean datzala

iruditzen zait. Batzuetan, aldaketak ustekabeen etortzen dira. **Taldean edo bakarlari lan egitea oso bestelakoa da; bada, zer duzu gogokoan?**

Ez dut bata edo bestea hobesten. Bakoitzak antolamendu ezberdina du. Zerbaitekin bakarka ibilita, bakarrik dago bat, jakina. Nor bere burua baino ez dago. Erabaki guztiak esku artean ibili behar dira, zein hautatuko. Hori taldean aldatu egiten da, jende gehiagoren artean lan daitetzeke, ideia ugari sortzen dira... oso bestelakoa da. Talde lana oso

interesgarria da, eta beste kide guztiarekin jotzean sortzen den erlazioa oso berezia. Zentzu horretan, bakarlariaren kasua margoztearekin identifikatu ahal dut. **Oñati Bizirik bildumarako grabatu duzu lehenengo kantua; zelako esperientzia izan zen?**

Esperientzia itzela izan zen, oso ondo pasatu nuen grabaketan. Oso prestatuta joan ez nintzen arren, grabaketan sartu nintzenez airoso ibili nintzen.

Kantu indartsua den arren, pasarte lasaia dituz; rock amerikarra oinarri duzue?

Bai, neurri baten, bai. Nahiz eta oinarri bakarra ez den.

Pink Floyd, Rory Gallagher eta Arizona Baby taldeen oihartzuna antzeman daiteke. Gas eta Hartzak taldeekin, berriz, influentziak bestelakoak dira?

Iruditzen zait egiten ari naizen hori, dena delakoa, eragin izan didanaren zakutik aterea dela. Influentziak zenbatezinak dira. Horrek ez du country abeslari bat rock talde batetik bereizten. Ezin pentsa nezake eraginaren aukeraketa bat egitean, nahiz eta talde bakoitzean parametroak aldatzen diren. Musika asko entzunak gara,

eta hori guztiori hor da beti.

Zure ustez, musikak ala hitzek dute garrantzi handiagoa?

Akorde bat handik, hitz batzuk hemendik, eta hor da kantua. Aurretik ez zen zerbaitengan erreakzio bezalako bat sortzen da, bat-batean denak forma hartzen du, osatu egiten da. Eta bategite horretatik abestia sortzen da. Bakarka, bietako batek ere ez du abesti on bat egiten. Hitzik gabeko musika, musika da. Musikarik gabeko hitzak, poesia, dena delakoa. Bat eginik datozenean, biek egin behar diote ekarria abestiari.

Kantu gehiago gordeta dituzue?

Bai, badira beste apurren batzuk, baina, oraingoz, epe laburrera, ez dut grabatzeko asmorik.

Orain Grezian zauden arren, han jotzeko aukerarik badaukazue?

Grezian elkartu izan naiz lagunekin jotzeko, betiere. Dena dela, hemen beste martxa bat daramat. Bueltarako planik egin ez dudana arren, pentsatzen dut, gutxi gorabehera, aurretiko erritmora itzuliko naizela.

Musikaria eta Arte Ederretako ikaslea; zer ematen dizu bakoitzak?

Beti esan ohi dut niretzat artea bat dela. Nahiz eta diziplina bakoitzak baliabide edota prozesu desberdinak dituen, nahiz eta ezin daitekeen lengoia batetik bestera era zuzen eta zehatzean itzuli, dena bakartzat dut. Kantu bat idaztea ez dago koadro bat margotetik oso urrun, baina gauza guztiz desberdinak dira. Hein horretan, bietan ere printzipio bera aplikatzen saiatzen naiz.

"Niretzat artea bat da; musika eta arte ederrak batzen ditu"

ETXKO SUKALDERAINO

Amaia Albes | Diseinatzailea

- ▶ Neurria eta enkarguz egiten ditu arropak Amaia Albes arrasatearrak
- ▶ Badaramatza urte batzuk bere diseinu-entresa aurrera eramaten

"Zer egingo nukeen berriz? Nire negozioa muntatu"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ekintzailea eta diseinatzailea da Amaia Albes arrasatearra. Moda eta diseinua ditu bokazio, eta bere kontura ireki zuen negozioa. Mankomunitateak Arrasaten ekintzaileendako dituen lokalitate baten dauka tailerra. Bere ezaugarria da soineko eta arropa guztiak neurria eta enkarguz egiten dituela.

Zelakoa da Amaia Albes?

Pertsona zabala, perfektionista eta, jendeak esaten didanez, beti irribarrez, poz itxura duena.

Ze harreman daukazu sukaldearekin?

Oso txarra, kozinatzea ez zaidalako ezertxo ere gustatzen. Oso sukaldari txarra naiz; egin behar badut, egiten dut, baina mutil-laguna da biotatik sukaldaria. Jatun gisa, orain, hobea; lehen, mizkin samarra nintzen.

Zein da zure espezialitatea?

Postreak, oso gozozalea naizelako.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena, eta non?

Kostaldekoko lekuren batera, arrain freskoa plantxan edo txingarretan erreta jatera.

Eta etsairik handiena, zertara?

Gustatuko ez litzaiokeen zerbaitera.

Gustura zeinekin jesarriko zinateke mahaiaren bueltan?

Mutil-lagunarekin. Pertsonaia ezagunen batekin ahal izango banu, Balentziagarekin, behar bada.

Zergatik diseinatzaile?

Txikitatik gustatu izan zaidan zerbait delako.

Zelakoa da modaren eta diseinua-ren mundua, kanpotik ikusten denaz aparte?

Gogorra, zaila eta lan ordu asko eskatzen dituena. Lehiakorra ere bada, baina zeri begiraten diozun arabera; adibidez, Txinatik ekartzen den arropak kostu txikia duela jakinek da; bestalde, arropa asko badago, baina neurria egindakoa, ez... Ze baloratzen duen norberak...

Zein miresten duzu modan?

Gori de Palma; azkenaldian geldi samar dabil, baina bere estiloa asko gustatu izan zait betidanik.

Zertan zabilta orain lanean?

Ezkontzak, ezkontzak eta ezkontzak! Horietarako arropak egiten nabil.

Moda-diseinatzaile izango ez bazina, zer izango zinateke?

Diseinuarekin zerikusia izango lukeen beste zerbait; etxe barruko diseinatzaile, behar bada.

Zer da zuretako ezinbesteko bizi-modu horretan?

Sormena eta esku ona izan behar dira.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute...

Bi eskatuko ditut: denbora libre luzeagoa izatea eta bidaiatzeko asti luzeagoa izatea.

Damu zara...

Ez da damua, daukadan pena bat baizik: Erasmus programa-



Amaia Albes, bere tailerrean. | L.K.

"Animaliendako arropak egitea eskatu zidaten, eta egin egin nituen"

rako izena eman nuen, Milaneza joateko, eta ez zen aukerarik izan.

Berriz egingo zenukeen zerbait?

Nire negozioa muntatu.

Zerk beldurtzen zaitu?

Armiarmek izugarritzko beldurra ematen didate.

Lanetik irten, etxera iritsi, sofan eseri eta...

Sofan jesartzerik banu... Normalean, sofan esertzen naizenean domeka bazkalostean izaten da. Une horietan film bat ikustea gustatzen zait.

Nora egingo zenuke ospa gustura?

Uharteren batera, edo Jamaikara, adibidez.

Anekdotaren bat...?

Animaliendako arropak egitea eskatu izan didatenekoa. Egin nituen, baina orain ez nituzke egingo, mesede gisa ez balitz, behintzat. Ez dut animaliendako diseinatzaile gisa espezializatu nahi!

Ze aholku konpartituko zenuke?

Bizi ezazu egun bakoitza azkenekoa balitz bezala.



Lehen platera: Abakando (bogavante)-entsalada.

Bigarrena: Solomilloa.

Postrea: Amaren gazta-tarta.

Edatekoa: Lambrusco ardoa.

PATRIZIAREN GUTZIA



Patrizia Vitelli

ARRAUTZA HAUTSIAK GULEKIN

Bere onean dagoen inork ezin die ezezkorik eman arrautza hautsi eder batzuei. Inortxok ere ez. Gorringoak bigundutako patatak, piperbeltz puntuarekin... eta horri gehitzea erabakitzen dugun guztia.

Aurreko batean afaltzeko soberan nuen urdaiazpiko apurrarekin egin nituen, krocketak egiteko erabiltzen dugun urdaiazpikoarekin, eta etxean nituen gulekin. Urdaiazpikoarekin beharrez txorizoarekin egindakoez ere zoratu egiten naute.

Eta plater horri laguntzeko niretzat luxu hutsa den edaria proposatu behar dizuet: Ferra Adriaren Inedit garagardea.

Zenbaitetan, gosaltzeko

Arrautza hautsiak oliba-olio ugarian (edo beste olio mota

Fitxa

▶ Denbora: 20 minutu.

▶ Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK

▶ 3 arrautza.

▶ 3 patata ertain.

▶ Tipula bat.

▶ Gula pakete bat.

▶ Berakatz buru bat.

▶ Piperbeltz gorri bat.

▶ Oliba.

▶ Urdaiazpikoa, bi xerra.

batean) frijitutako arrautzei ematen zaien izena da. Kasu gehienetan, errezeta prestatzerakoan gorrin goa likido utzi behar da, eta frijitutako patatekin lagundu. Bertsio modernoek frijitutako patatak barik,

Prestaketa

1. Patatak dado eran txikitu, eta olio ugarian egin, bigun-bigun egin arte.

2. Beste zartagin batean takotxotan txikitutako tipula erdi egosiko dugu, azukre apurtxo batekin, zertxobait karameliza dadin.

3. Patatak zein tipula gertu dardenean, sutatik kendu eta gorde egingo ditugu.

4. Patatak frijitzeko erabili dugun olioarekin, hiru arrautzak frijitu ditugu. Gero, olio kendu zartaginean, eta patatak, tipula eta tiratan moztutako urdaiazpikoa gehituko diogu guztiari. Egurrezko koilara batekin hautsiko ditugu arrautzak, zuringoan kolpetxoak emanda; eta baita pare bat buelta emando ere. Guztiari piperbeltza bota, eta su-gozoan utziko ditugu, gulak egiten ditugun bitartean.

5. Berakatz burua xerratan zatitu eta piperbeltz gorriarekin batera salteatu behar da, zartaginean. Berakatz gorritzen denean gulak gehituko ditugu, eta, hori guztia ondo nahas dadin, pare bat buelta emango dizkiogu. Eta guztia ondo eginda dagoenean, gulak ateratzeko kazolatxo batean aurkeztuko dugu platera.



Gulen kazolatxoan aurkez daiteke arrautza hautsien platera. | THE COOK ROCKER

chips-ak erabiltzen dituzte. Eta horri guztiari haragi motaren bat edo hestebeteren bat gehitzen zaio: urdaiazpikoa, hirugiharra, txorizoa, txistorra, saltxitxak... Hori guztia plater berean ateratzen da; arrautzekin, jakina.

Eta bai ala bai, bero dagoela atera beharreko platera da honako hau. Zenbait lekutan, gosaltzeko ateratzen dute.

Bestalde, arrautza hautsi barik, arrautzok nahaski eran prestatuta ere egin daiteke errezeta.



Diru asko mugitzen du futbolak telebistan egun. | FLICKR

Prisa eta Mediapro elkartuta, Interneteko kirol emanaldien aurka

Rojadirecta webguneak eskaintzen dituen futbol partidak, jo-puntuan

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Kirol emanaldien eta, bereziki, futbol partiduen gaineko esku-bideek polemika pizten jarraitzen dute. Izan ere, Prisa eta Mediapro komunikazio taldeek bat egin dute sarean kirol emanaldiak dohainik eskaintzen dituen *Rojadirecta* webgunearen aurka egiteko. Orri honek eta bere Android-eko aplikazioak geroz eta erabiltzaile gehiago dituzte. Horrelako webguneetan nahikoa da Interneterako sarbidea izatea telebistan ordaindu beharko lirakeen ekitaldiak ikusteko.

Web orri horiek erabiltzen dituzten pertsonen kopurua Real Madrid eta Bartzelona taldeek jokatuak partiduan nabarmen igoko zen beldurra zuten komunikazio talde nagusiek. Hortik etorri zen norgehiagoka sarean

jarraitzeko aukera ematen zuten webguneen aurka izan zen eraso. Horren ondorioz, sareko 1.000 zerbitzari inguru blokeatu edo itxi egin ziren, erabiltzaile asko hain esperotako partidua jarraitzeko aukerarik gabe utziz.

Muga jartzeko beharra

Aurrerantzean ere webguneari nolabaiteko muga jarri asmoz, eduki digitalen eskubideez arduratzen den Iproad edo enpresa teknologikoa kontratatzea erabaki dute Prisa eta Mediaprok.

Iproad *Rojadirecta* erasotzeko gai izango litzateke zabalduko informazioaren arabera. "Pirateriaren aurka egin eta egile eskubideak babesteko" nahikoa baliabide badituztela diote beraien webgunean. Hala ere, inolako erasoren atzean daudela dioen

informazioa "okerra" dela argi utzi nahi izan du enpresak hainbat medioetara bidalitako gutun baten bidez. Gutunak dioenez enpresa honek "ez du inoiz eraso informatikorik aurrera eraman bere helburuak lortzeko, ezta horrelakorik egiteko agindurik jaso ere".

Futbol ligaren oniritzia

Espaniako futbol liga profesionalak (LFP) 2013ko azaroaren 23an kaleratutako artikuluan batean doako kirol emanaldiak eskaintzen dituen webguneen eskubide hori kentzea babesten zuen. Kontratu daitezkeen enpresekin "ez da soilik seinalea moztea lortu nahi, baita sarean futbol partidak eskaini eta disfrutatzen dituzten guzti horien akzioak legalki salatzea ere", zioen artikulua.

Facebookek jaitsiera nabarmena izan du burtsan, Oculus erosita

J.A. | ARRASATE

Apostu serioa egin zuen Facebookek Oculus Rift errealitate birtuala ikustea ahalbidetzen duen gailua erosterakoan. 400 milioi euro erabili zituen Mark Zuckerberg-en konpainiak tresna berritzaile honen eskubideak bere egiteko eta beste 23,1 milioi akzioak erosteko.

Facebookentzat diru iturri eder bat izan zitekeenak, ordea, ez du teknologiaren merkatuan sarrera ona izan. Izan ere, erostekak koste gehigarri bat izan du merkatuaren erreakzio negatibo baten eraginez. Erreakzio horrek enpresa ezagunaren akzientzia jaitsiera nabarmena ekarri du. 400 milioi euro galzera iritsi daitezke Facebook, akzioen jaitsieraz gain. Aldi berean, sare sozialaren tituluen kotizazioak behera egin du.

Konfiantza falta

Burtsan Facebookek izan duen galeraren arrazoia inbertitzaileek errealitate birtualarekiko duten konfiantza falta izan liteke. Oculus Rift-ak bideojokoen alorrean errealitatean baino leku gehiago duela dirudi oraingoz. Zuckerberg-ek berak akor-

dioaren berri eman zuenean lan egiteko eta aisialdiaz gozatzeko moduan aldaketa ekarriko zuela esan zuen, nahiz eta merkatuak berdin ez ikusi.

Oculus VR, beste aldean

Akordioaren beste aldean dago Oculus VR, produktua diseinatu duen enpresa. Honen akzioak nabarmen igo dira Facebook-en erosketak publiko egin zenetik. Gailua oraindik garatze fasean dago eta uda aldera publikoaren esku gotea espero da.

Gizakiak ikusten duena imitatzen du Oculus Rift-ek. Eskiatzeko erabili ohi diren betaurrekoen modukoa da, aurrean zazpi hazbeteko LCD pantaila bat duelarik. Errealitate birtuala bideojokoen mundua baztertu gabe, bizitzako beste alorrean sartu nahi da tresna berri honekin. Oculus VR-ko Michael Abrash-en arabera, "errealitate birtualari ezin zaio duen potentzial guztia atara, enpresa batek diru kantitate garrantzitsu bat inbertitu arte". Facebooken erosketarekin, "kezka hori desagertzen dela" deritza Abrash-ek. Uda aldean merkaturatzea espero da.



Oculus aparatuaren irudi bat. | BAGOGAMES

Windows XP sistema eragilearen amaiera gero eta hurbilago dago

J.A. | ARRASATE

Microsoftek ez du Windows XP sistema eragilea teknikoki sostengatuko apirilaren 8tik aurrera. Egun horretatik aurrera, sistema hau duten ordenagailuak ez dira eguneratuko. Hala, segurtasun arazo gehiago izateko arriskua edukiko dute.

Iberiar penintsulako Microsoften arduraduna den Fernando Calvok EFE agentziari esandakoaren arabera, "XP-a duten ordenagailuek ez diote bat-batean funtzionatzeari utziko, baina birusak eta segurtasun arazoak izateko arriskua handiagoa izango dute". Erabiltzaileei urte guzti hauetan "oso ona eta funtzio-

nala" dela erakutsi duen sistemari eskaintako fideltasuna" ere eskertu zien.

Oraingo salduena

Enpresa ezagunaren sistema eragile arrakastatsuenetako bat da Windows XP. 2001ean sartu zen merkatuan eta espainiar estatuan oraindik ere 4 milioi ordenagailutan instalatuta jarraitzen du.

Microsoftek merkatuan izan dituen sistema eragile salduena da. Datu ofizialik egon ez arren, 60 milioi lizentzia inguru saldu zirela kalkulatzen da. Erabiltzaile askok ekipamendu informatikoa berritu edo sistema berriago bat instalatu beharko dute.

Ibiliz mugikorren idazteko patentea, Apple-n eskutik

J.A. | ARRASATE

Erabiltzaileei oinez ari diren bitartean aurrean dutena ikustea ahalbidetuko dien patentea erregistratu du Applek. Horretarako, pantaila mugikorren duen kamera konektatuta egongo da uneoro eta kameraren aurrean dagoena idazten ari denak ikusi ahal izango du. Apple-n arabera, "ohikoa" da kalean oztupoak saihestu behar izatea mugikorra erabiltzeagatik, "erabiltzaileek zaila izaten baitute pantailaren eta inguratzen dituen artean atentzioa mantentzea".

Googlek milioi bat euroko isuna ordaindu du Italian, herritarren pribatutasuna ez errespetatzeagatik

Baimenik gabe Italiako kaleetan grabatzeagatik milioi bat euroko isuna ordaindu beharko du Googlek. Kaleko irudiak grabatzen ibiltzen diren StreetView izeneko autoak irudi eta datu pribatuak jaso zituen isunaren arabera. 2010ean gertatu zen hau. Antza, Italiako autoritateek autoak identifikatzeko eskatu zioten enpresa estatubatuarari. Esandakoa egin arren, isuna ordaindu behar izango du. Alemanian ere izan zituen arazoak Googlek pribatutasunarekin, mezu elektronikoak atzemateagatik.

Amazonen Fire TV aurkeztu du, Internet bidez telebista aisialdirako gune bihurtu asmoz

Telebistaz gain, 200.000 pelikula, serieak edota kontsola bezala erabiltzeko aukera ematen du urrutiko agintea duen kaxa honek. Internetera kable edo Wifi bidez konektatzeko aukera ematen du eta 1080p HD kalitatean ikus-entzunezko edukiak eskaintzen dituzten hainbat plataforma ere erabili daitezke. Dagoeneko merkatuan ditugun Apple TV eta Roku 3 bezalako gailuei konpetentzia egiteko asmoz dator. Pasa den asteazkenean iritsi zen dendetara Estatu Batuetan, 99 dolarreko prezioan.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Fusioa gauzatu da azkenean

T elecincin kateak 2009an irentsi zuen Cuatro, eta hasieratik Priskas sortutako telebista katean zenbait aldaketa egin zituen arren, duela aste bete hasi naiz Vasileren itzal luzearen benetako aztarnaren arrastoak igartzten. Egia da Hilario Pinok bere ileorde berria Cuatro katean estreinatatu zuela eta Raquel Sanchez Silva eta Mercèdes Mila aurkezleek bi kateetan egiten dutelana, baina Mamachichoen katearen benetako izaera *Dreamland* telesailari esker iritsi da filialera.

Ia urtebetez UPA eta Glee artean dagoen telesail hori iragarri ostean, aurreko astean estreinatatu zen azkenean *Dreamland* telesaila, eta egia esan, Nicki Minaj-en bideoklip bat zirudien. Dantza ikusgarriak, doinu itsaskorrek, Miguel Angelek egindako eskulturak ziruditen gorputz ugari eta titi bat edo beste, baina hortik aurrera... beste ezer ez!

Estreinaldiak izandako audientzia datu penagarrien ostean, aktoreak hasi dira egun aldaketa bat eskatzen, baina zoritxarrez, gimnasio gorputzez osatutako harategi parrandazale honek egun berri bat ez ezik aldaketa gehiago behar ditu.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 7



'Kantua kalean'

Oñatiko abesbatzek *Kantua Kalean* jaialdia egin dute eta Aitor Biain zuzendaria etorriko da saiora. | 20:00

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Anitzasunean bizi
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Tertulia
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Sagarrondotik
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Harmailatik

MARTITZENA, 8



Azkoaga auzoa

Aramaioko Azkoaga auzoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu Mireia Bikuñarekin. | 20:00

12:00 Ikusi irratia
12:55 Tripa-zorri
13:25 Amaia DJ
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Anitzasunean bizi
17:30 Sagarrondotik
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Pedalka
19:30 Kantari
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Harira
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Harira

EGUAZTENA, 9



Olaburu zentroa

Oñatin enpresa berriendako eta ekin-tzaileendako ireki dituzten lokaletan izango gara. | 20:00

12:00 Tripa-zorri
12:30 Klaketa
13:15 Ikusmira
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harira
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kantari
17:30 Klaketa
18:15 Ikusmira
18:30 Berriak
19:00 Harira
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:20 Pedalka

EGUENA, 10



'Amaia DJ'

Gaztetxoek eskatutako kantuen bideoklip-ekin osatutako saioa eskainiko dizuegu eguean. | 19:30

12:00 Anitzasunean bizi
12:30 Sagarrondotik
13:25 Bertso saioa
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Pedalka
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ur eta lur
17:30 Tertulia
18:30 Berriak
19:00 Pedalka
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gurean gaur
23:50 Debagoiena zuzenean
00:00 Gurean gaur
00:20 Amaia DJ

EGUBAKOITZA, 11



Sukaldaritza

Oraingoan ere elikadurarekin eta sukaldarekin lotutako kontuak ekarriko ditu Julen Iriondok. | 20:00

12:00 Ikusmira
12:15 Sagarrondotik
13:10 Bertso saioa
13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Klaketa
17:45 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Tertulia
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Tertulia
23:30 Berriak
00:00 Gurean gaur
00:20 Tertulia

ARRASATE IRRATIA

Gazte bulegoko informazioa emango dizuegu martitzenean

Igo autobusera! irratsaioa gaurtik aurrera bueltan da egindako etenalditxoaren ostean. 107.7ko uhinetan goizeko 10:00etan izaten da hori, eta adibidez, bihar, martitzena, Gazte bulegoko Dorleta Kortazar izango dugu Arrasate Irratian gazte informazioa eskaintzen.

'Inoren Ero Ni' taldeak emango duen kontzerturako sarrerak

Arrasateko gaztetxean izango da eguean *Inoren Ero Ni* taldea, *Kooltur Ostegunak* egitasmoaren barruan. Bertara joateko sarrerak zozketatuko ditugu irratian eta zozketan parte hartzeko 943 25 05 05era deitu edo irratia@goiena.com helbidera idatzi beharko duzue.

Haur bibliotekako Axun Agiriano izango dugu gaur, astelehena

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da hilaren 23an eta gaur, astelehena, Arrasateko haur bibliotekako Axun Agiriano izango dugu *Igo autobusera!* irratsaioan, 107.7ko uhinetan. Agirianok kontatuko dizkigu aurten egun horren harira antolatutuzten ekintzak eta horien berri emango digu.

TELE-ALBISTEAK

Eibarko jokalaritza den Aitor Arregi Bergararra izango da gaur, astelehena, 'Harmailatik'-en

Ibarreko taldeen futbol, eskubaloia eta saskibaloia partiduak ere, berbagai

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Eibarko futbol taldeen jokatzeko duen Aitor Arregi (Bergara, 1990) elkarrizketatuko du gaur, astelehena, *Harmailatik* saioan Xabi Urzelai aurkezleak, 19:30ean. Arregi denboraldiaren nondik norakoak kontatuko dizkigu, beraz, Goiena telebistan.

Asteburuko kirol kontuak

Asteburuko kirol kontuak ere ikusgai izango ditugu saioan eta errepasoa egingo diegu, besteak beste, ondorengo partiduei.

Futboleko, Antzuolako Touring hartu zuen etxean zapatuan eta han gertatutakoak ikusi ahal izango ditugu. Eskubaloian, Oñatiko Izarraitz Aloña taldearen partidua jaso dugu; igoera faseko lehenengo partidua izan zuen



Aitor Arregi, Eibarko taldean jokatzeko duen futbolari bergararra. | GOIENA

Irungo taldearen aurka zapatuan. Saskibaloian, berriz, MUK etxean hartu zuen La Peña Basquet taldea eta hori ere jasoko dugu. Eta

Oñatiko beterranoren torneoko gertatutakoak ere ikusi ahal izango dituzue, besteak beste, gaurko *Harmailatik* saioan.

Ramon Ajuria Aramaioko alkatea izango da martitzenean 'Harira'-n

Udalaren aurtengo inbertsioei, aurrekontuei eta biomasa proiektuari buruz hitz egingo du

A.T. | ARAMAIO

Bihar, martitzena, Goiena telebistako *Harira* saioan izango da Ramon Ajuria Aramaioko alkatea, Eneko Azkarate aurkezleak gidatutako saioan 22:00etatik aurrera.

Aramaion puri-purian dauden kontuen gaineko azalpenak emango ditu alkateak, hala nola, biomasa proiektua, aurrekontuak, A-2620 errepidea itxita egon izanak eragindako kalte-ordainen auzia eta aurtengo Udalaren inbertsio nagusiak.

Bidalitza alkateari

Herritarrek ere izango dute aukera alkateari galderak egiteko eta alkateak saioan emanango die gainera erantzuna. Galderak bidaltzeko modu hauek



Ramon Ajuria. | GOIENA

dituzue: harira@goiena.com -era idatzita, Twitter bidez [#harira](https://twitter.com/harira) traola erabilia edo Whatsapp ala Telegram mezua 688 69 00 17 telefonora bidalita. Animatu eta bidali zuen galderak alkateari.


ZORION AGURRAK




ESKORIATZA
Beñat Arana Romero
Apirilaren 13an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Milaka marrubiko musutxu, etxeko txikitxuarendako. Asko maite zaitugu.




BERGARA
Nora Larrea Gantxegi
Apirilaren 11n, 7 urte. Zorionak, Nora! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Anerren eta Unaxen partetik. Asko maite zaitugu, pottoka!




BERGARA
Ane Gartzia Perez
Apirilaren 11n, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, poxpolin! Egund polita pasatu eta patxo potolo bat familia guztiaren eta bereziki Jurgiren, Eleneren, Eriken eta Noraren partetik.




OÑATI
Oier Larrañaga Etxebarria Arteun
Apirilaren 10ean, 6 urte. Zorionak, Oier! Jaso danon partetik sei tirakada fuerte. Ondo pasatu zure egunian. Patxo handi bat familia danaren partetik.



ARRASATE
Irene Iturbe Ceme
Apirilaren 9an, 2 urte. Zorionak, bihotza. Gure eguneroko eguzkia zara. Aitaxok eta amatxok asko maite zaitugu. Musu handi bat.



OÑATI
Eider eta Maren Calzada Guridi
Apirilaren 9an, 4 urte. Gure loretxuek lau urte...ze handiak! Zorionak eta patxo pila bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Naia Berraondo Mateos
Apirilaren 8an, 7 urte. Zorionak, neska handi! Muxu handi-handi bat aitaoren eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu, *guapisima!*



BERGARA
Julen Zabala Madariaga
Apirilaren 7an, 8 urte. Zorionak, Julen! Oso ondo pasatu zure egunian eta jaso Bolutik belarritatik tirakada handi bat. Muxu pila bat Iratiren, Gotzonen, Igorren, Mirenen, tioren eta tiaren partetik.



BERGARA
Garazi Arana Mendizabal
Apirilaren 7an, 5 urte. Zorionak, Garazi! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat danon partetik!




ANTZUOLA
Inar Cabo Mundiñano
Apirilaren 5ean, 8 urte. Zorionak gure astronomo politari! Izarrek dir-dir egin dizute zure egunian. Muxu handi bat Ekhiaren, amatxoren eta aitaoren partetik.




ARRASATE
Ibai Alberdi Segovia
Apirilaren 5ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko eskua bete duzu. Ondo pasatu eguna familiaren eta, batez ere, Naroaren partetik.




OÑATI
Maddi Blazquez
Apirilaren 4an, 7 urte. Zorionak, *guapetona!* Zazpi muxu potolo zure egunian etxeko denon partetik eta ondo pasatu!



OÑATI
Aitziber Gorostiza
Apirilaren 4an, 39 urte. Zorionak, *guapixima!* Ondo pasatu zure eguna eta patxo pila-pila bat! Aurten be ilargira begira! Kar, kar, kar...



ARETXABALETA
Anje Herrasti Errarte
Apirilaren 4an, urtebete. Zorionak, maitxia, eta oso ondo ospatu zure egune! Patxo potolo-potolo bat familia osuaren partetik!



ARRASATE
Paula Marcos Gonzalez
Apirilaren 4an, 14 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat Maddiren, Ainesen eta etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Oihana Ezkurra
Apirilaren 4an, urtebetetzea. Urte berri-berria, jadanik hasi zara entzuten gabeko negarra eta eguneko irria eta zu inoiz baino gazteago zaude. Zorionak. Patxo handi bat. Liher, Zeke eta Itziar.



BERGARA
Ioar Gonzalez Fernandez
Apirilaren 3an, 4 urte. Zorionak, ioar! Lau urte jada! Zelako handi egin zaren! Muxu bat etxeko danon partetik.




ARRASATE
Urko Muñoz Morales
Apirilaren 3an, 3 urte. Zorionak, Urko! Oso pasatu zure urtebetetze egunian eta musu potolo bat etxeko eta, batez ere, zure lehengusuen partetik.



ARRASATE
June eta Lide Villar Lumberras
Junek apirilaren 2an, 13 urte eta Lidek apirilaren 3an, 10 urte. Zorionak, bikote! Patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
Paul Lazkano Ezpeleta
Apirilaren 2an, 6 urte. Zorionak, Paul! Azkenian ailegatu da eguna! Luze ein jatzu, e? Ondo-ondo pasatu zure egunian, txapeldun eta aupa Erreal! Patxo pila etxeko danon partetik.




ARRASATE
Lucia Luazaristi
Apirilaren 2an, urtebete. Zorionak, bitxito, zure lehenengo urtebetetzean! Ea praktikatu dugun bezala putz egiten diozun kandelari! Mamik eta aita asko maite zaitugu!



OÑATI
Eneko Azkargorta Marquez
Martxoaren 31n, 4 urte. Oñatiko mutikotxoik politenak lau urte beteten ditxu! Zorionak eta egun oso-oso ona pasatu! Etxeko danon partetik, patxo handi bat!



ARRASATE
Unax Gonzalez Garcia
Apirilaren 1ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu eta besarkada erraldoi bat, aitona-amonen, osaba-izeben, lehengusu-lehengusinen eta aitaoren eta amatxoren partetik. Mundiala zara, eta horrela jarraitu.



DEBAGOIENA
Oier Fernandez Valor
Apirilaren 1ean, 3 urte. Zorionak, Oiertxo! Jada hiru urte; ze handi egin zaren, txapelduna. Ondo-ondo pasatu eguna, politte. Muxukote potolo bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
Oihane Martin Olaskoaga
Martxoaren 31n, 5 urte. Zorionak, Oihane! Bost urte handi! Ondo pasatu eguna.



DEBAGOIENA
Arene Tierno Moreno
Martxoaren 30ean, urtebete. Urtebete zure alaitasunaz gozaten. Zorionak, laztana! Muxu handi bat, aitaoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Danel Ezpeleta Larrañaga
Martxoaren 30ean, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna eta aupa Erreal!



OÑATI
Danel Guridi Olalde
Martxoaren 29an, 3 urte. Zorionak, pirata! Gaur hiru urte... Ze handiak! Ondo pasatu zure eguna. Muxu pila bat aitaoren, amatxoren eta Nahiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkartzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Uxue Auzmendi Berezibar

Arrasate 3,630 Kilo. Martxoaren 30a. Gurasoak: Itsaso eta Aritz. Argazkian, Uxue txikia, lasai-lasai lotan.



Aner Gracia Ezkurra

Arrasate 4,040 Kilo. Martxoaren 28a. Gurasoak: Oihana eta Liher. Argazkian, Aner txikia gurasoekin.



Haizea Irazabal Mazorriaga

Elorrio 3,490 Kilo. Martxoaren 30a. Gurasoak: Josune eta Igor. Argazkian, Haizea jaioberria amaren besoetan.



Martxel Silvar Larrañaga

Bergara 4,050 Kilo. Martxoaren 28a. Gurasoak: Andrea eta Iban. Argazkian, Martxel txikia amama Lourdesen besoetan.



Kaiet Galan Perez

Aretxabaleta 3,700 Kilo. Apirilaren 2a. Gurasoak: Raquel eta F. Javier. Argazkian, Kaiet gurasoekin.



Aimar Lopez Telleria

Oñati 3,720 Kilo. Apirilaren 3a. Gurasoak: Agurne eta Jon. Argazkian, Aimar txikia sehaskan lo.



Mikel Soria Garcia

Antzuola 4,160 Kilo. Martxoaren 30a. Gurasoak: Agurtzane eta Javier. Argazkian, Mikel jaioberria aitaren besoetan.



Sara Zabaloa Azevedo

Arrasate 3,400 Kilo. Apirilaren 3a. Gurasoak: Maitane eta Leonel. Argazkian, Sara txikia lasai-lasai.



Maite Etxaniz Santiago

Bergara 3,700 Kilo. Apirilaren 1a. Gurasoak: Olga eta Haritz. Argazkian, Maite jaioberria aitaren besoetan.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

zorionak!

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30



* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Sorta	Gizarajo	Koska
	Gipuzkoako udalerria	* Aramaioko elizatea	Udare
Printze indiarak	Dioxido sizilikoa		
... egin, gogaitu	Kontzilio		
Errusiar legebiltzar	Bost		
		Bokal errepikatua	
		Moduak	
Futbol tanto		Galdetzaille bat	
Zalaparta		Presio unitate	Jardun
Nafarroako mendia			Röntgen
Kontserbadore			Bokal biribila

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

I	O	K	A	R	E	Z	L	V
R	■	A	G	V	Z	T	I	■
A	I	R	B	A	R	A	V	X
■	R	E	Z	E	T	O	G	■
A	A	■	T	E	I	B	O	S
O	D	O	N	I	S	■	G	■
K	V	R	A	V	R	■	■	■
A	M	A	G	E	Z	■	■	■
G	■	G	■	S	■	■	■	■

BILA-BILA 7



Sor ezazu zeure adarbakarra

Ez dirudi txakurrari ilusio handirik egiten dionik, baina jabea pozik egongo da munduko adarbakar bakarra berea dela pentsatuta.
www.nopuedocreer.com



24

EURO

Horixe ordaindu zuen duela 40 urte inguru italiar batek Gauguin eta Bonnard margolarien bi obrarengatik. Berak ez zekien, baina

Londresen lapurtutakoak ziren. Gauguinen koadroak 15 eta 35 milioi euro artean balio du.
www.elmundo.es



Max. 26°

Min. 9°

Goi-mailako hodei finak egon arren, eguzkiari leku dezente utziko diote.
euskalmet.net

goiena

2014-04-07

HAMARREKOA

Patxo Telleria Aktorea, egilea, zinema zuzendaria... Hark idatzitako 'Lingua nabajorum' obrak irabazi du aurtengo Donostia Antzerki Saria, eta 'Pankreas' izeneko antzezlanarekin estreinatu du | TXOMIN MADINA

"Hasieran, antzeztu baino areago, zamalanak egiten genituen"

1. Donostia Antzerki Saria *Lingua nabajorum*-entzat zela jakitean, zer pasa zitzaizun burutik?

Harropuzkeria eman dezake, eta akaso ez nuke esan behar, baina: "Bazen garaia!". Ez merezi genuela uste nuelako; saria ezagutu eta ilusioa egiten zigulako baizik.

2. Ez da ohikoa komedia bat draimei gailentzea.

Ez; komediek sarri dute nolabaiteko estigma txikia, bigarren mailako produktuak izatekoa; hainbat esparrutan nabarmena da hori.

3. Euskara kontu serioa da askorentzat; zuendako, aldiz, umore iturri etengabea.

Lau obraz osatutako *Dibertimenduak* saila dugu zentzu horretan. Bertan, euskararekin jolastu, dibertitu eta barre egiten dugu. Ez da zerbait planifikatua izan; berezko prozesua baizik.

4. Euskal Filologian lizentziadun izateak lagunduko dizu horretan.

Ez dut uste ikasketek horretan eragin handirik izan dutenik, etekin praktikorik atera diedanik. Ikasketak kanpora begira auto-konfiantza izateko baliatu ditut.

5. *Pankreas*-ekin zabilta orain, bertso eta errimatan idatzi duzun obra. Bada gauzak zailtzeko gogo...

Ez da horregatik izan, publikoari horrek berdin dio. Baliabide estetiko eta artistikoak bilatze aldera egin dut. Prozesua interesgarria izan da eta aitzindariak izan gara euskaraz halakorik egiten.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Mingaina sobera erabiltzen dutenei mingaina txikituko nieke; eta hitz egiteko aukera gutxi ematen zaienei, luzatu"

AGM

6. Baduzu pantaila handirako zein txikirako proiekturik esku artean?

Gauza konkreturik ez: zehaztu gabeko pare bat proiekturik nabil. Ez dira garai errazak, edo zer gauza borrokatu behar da hatsa galdu arte, eta horretan gabiltza.

7. Esan berri duzu: "Ez naiz aktore ona". Saltzaile ona ez, behintzat!

Beti esan dut hori; baina azkenaldian, nabartu egiten nuen, denborarekin zertxobait ikasi dudala uste dut-eta. Ona ez naizela esatean, esan gura dut aktorea baino gehiago istorio kontalaria naizela.

8. 30 urteko ibilbidetik, zer ez zenuke berriz egingo?

Egun nagikeria ematen didaten alferrikako lan asko egin ditut, baina beharrezkoak orain nagoen lekuan egoteko. Aukera izan banu, lanean hasi aurretik dramaturgiak zerbait ikasiko nukeen, baina orduan ez genuen imajinatzen hori egin zitekeenik ere.

9. Eta zer gogoratzen duzu irribarre batekin?

Oso gogoan daukat, asko disfrutatu nuen unea izan zelako, bukatutakoan zamalanak egin beharrik izan ez nuen emanaldia. Hasieran, antzezteko baino areago, zamalanak egitea zen gure lana.

10. Imajinatzen duzu ibilbide hori Mikel Martinez gabe?

Ez, zaila litzateke. Egin ditut eta egiten ditut lanak hura gabe, baina izandako lankideen artean iraunkorrena eta emankorrena da.

BIHARAMUNA

XABIER ZUBIZARRETA



'Degemer mat e' Arrasate

Urtero bezala, iragan astean, Breizh-eko Kemper-eko Diwan (ikastola) eskolako ikasleak izan ditugu gure artean. Arrasateko ikastolarekin egiten duten egonaldi trukearen barruan, dagoeneko 15 urtez egin diote bixita elkarri. Arrasate eta Kemper artekoa den harremana, ordea, Euskal Herria eta Breizh artekoa bihurtzen da urtero. Herri bakoitzaren hizkuntza zein den ezagutu, historia, ohiturak, kultura, kirolak, janaria... Estatuen menpe daukagun Europa hau, beste era batera antolatzea merezi duela eta antolatu daitekeela ikuste-ko eta sentiarazteko ere.

Hurbiletik ezagutzen ditut alde bietako irakasle eta arduradunak, eta uste dut, amesten dugun Herrien Europa horretara iristeko, erabakitze eskubidea, Europar Parlamentuan egotea eta, oro har, ekimen politiko garrantzitsuak bezain beharrezko dugula, ildo horretatik, herrion arteko harreman xume baina sakon hori sendotzen eta ugaltzen joatea; egunero eginkizunetan oinarritzen den harremana, bestearen hizkuntzaren doinua, ipuinak, ardurak, zailtasunak... edota nolakoak diren Donostia, Iruñea, Gernika... Naoned, Lokronan edota zer den *Fest noz...* Zorionak bi herrietako kideoi; eta, berandu xamar bada ere, *dege-mer mat* gure lagun bretoiei.

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net